

Goienkaria

2007ko irailaren 7a > Egubakoitza > VII. urtea > 299. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

“Gaixotasuna izatera hel daiteke automedikazioa, dependentzia dela-eta”

Marisa Bouzas
Medikua > 09



G2a

Debagoieneko
zinemagileen
azken lanak > 43-44

ERLIJIOA

Etzi, Arantzazuko Amaren eguna,
gotzainak esango du meza > 05

BERGARA

San Martin ferian 115 erakusmahai
izango dira bihar, zapatua > 24

ARETXABAETA

Herria urez hornitzeko depositua
handitu egingo dute > 31

MANKOMUNITATEA > LEHENDAKARIA, LEHENDAKARIORDEA ETA DIRUZAINA AUKERATUKO DITUZTE

Gobernu batzordea eguaztenean eratuko du Mankomunitateak

ORDEZKARIAK Batzorde hori osatuko dute Mankomunitatean dauden zortzi herrietako udal ordezkariak, 16 zinegotzik

BATZORDEAK Datozen asteetan batzorde informatzaileetako arduradunak izendatuko dituzte

ESTATUTUAK EAE alderdiak estatutuen errebisioa egin eta hainbat estatutu aldatu nahi ditu oraingo agintaldian > 04

DEBAGOIENA > GARRAIOA

Urrian txartel bakarra

Urriaren 1ean iritsiko da Debagoienera autobuserako txartel bateratua > 07

INGURUMENA > IBILGAILUAK

Autoen kutsadura txikitzen

MU automobilen ingurumen inpaktua txikitzeko proiektu bat zuzentzen dabil. Lightcarbons du izena eta 17 erakunde parte hartzen dute. Aurrekontua da 11,5 milioi euro eta lau urte iraungo du ikerketak. Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak estrategikoa den proiektutzat jo eta diruz lagundu du. > 05

ARRASATE > INGURUMENA

San Josepe harrobia, lehiaketara

Zuloa betetzeko lehiaketa deitu du Aldundiak > 19

AHTren lanak gertu daudela ohartarazi dute hiru alkatek

AHT eraikitzekeo tramiteak aurrera doaz ibarrean. Eskoriatza, Aramaio eta Arrasateko tarteei dagokien alegazio epea bukatu berri da -abuztuan 15 egunez egon da zabalik-. Orain, horien erantzunaren zain daude lurren desjabetzea jasango duten 110 debagoiendarrak eta udalak.

Lanak hasteko, desjabetze eta okupazio akten onarpena baino ez da behar Pedro Lasagabaster, Asier Agirre eta Ino Galparsororen esanetan. > 2-3



ALKATEAK Ezkerretik hasita, Pedro Lasagabaster, Ino Galparsoro eta Axier Agirre planoak ikusten. ARRITXU BARRUSO

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-07
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Eskelak > 46-47
Saillkatuak > 48
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupé Trend 1.6 100 ZP, Prever Plana, BEZA garraioa, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren elkarpena barne. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. TIN: %0, irekizte komisioa: %0, Gehieneko finantzaketa: 8.000 euro, FCE Bank Pic-k eskaintako finantzaketa: Espainiako sukurtsala: Ford España SLk diruz lagundutako interesak, Eskaintza baliagarria irailaren 30 arte. REBE zenbakia: 07/24244. Modeloa: Focus S. Kontsumoa: 4,7 - 9,3 l/Km, CO2 emisioak: 125 - 224 g/Km.

Ford Focus 12.900€
Aire girotua, ABS, CD irratia eta Barruko ordenagailua.
eta gainera 0%ko UTB
24 hilabeteko finantzaketa 8.000 euroraino.

MUGARRI AUTOAK Feel the difference
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

UGARTE

AROSATEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

AHT > ABUZTUAN IZATEAZ GAIN, ALEGAZIO EPEA BAKARRIK HAMABOST EGUNEZ ZABALIK EGON IZANA ERE SALATU DUTE

AHTren alegazio epea abuztuan izatea salatu dute ibarreko alkateek

HIRU ALKATE Eskoriatza, Arrasate eta Aramaioko alkateek trenaren gainean lortu duten informazioa azaldu gura izan diete herritarrei

ABUZTUAN Proiektuaren aurkako alegazioak aurkezteko epeak abuztuan hasi eta hamabost egun bakarrik iraun duela salatu dute hirurek

110 KALTETU Lurren desjabetzeak hiru herritako 110 bat laguni eragingo die, gizarte osoak azpiegituraren ondorioak jasango dituen arren

MIRIAN BITERI > ARRASATE

2006ko urrian Abiadura Handiko Trena eraikitze obrak hasi ziren Arabako Luku herrian. Urtebete geroago, Debagoienean ate joka dabil Euskal Herrian inoiz egin izan den azpiegiturarik handiena. Bada, Aramaio, Eskoriatza eta Arrasateko alkateekin bildu gara, eta, tramiteak aurrera doazela aipatu ostean, lanak datozen hilabeteetan has daitezkeela ohartarazi dute.

Jakina denez, Leintz Gatzagako lurretatik sartuko da *Euskal Y*-a gurera. Handik Eskoriatza eta ondoren Aramaion sartuko da. Arrasaten bitan banatuko da Gasteiztik datorren trenbidea, batek Elorriorantz joko du eta besteak

Bergararantz. Azken horretan, Antzuolatik Zumarraga aldera joango da.

Espainiako Sustapen Ministerioak du Eskoriatza, Aramaio eta Arrasate arteko bideko lanen eskumena. Aspaldi esleitu zituen lan horiek eta orain tren pasatuko den lurra desjabetzen ari dira. Alegazioekin dabilta, hain zuzen ere. Aramaion joan zen uztailaren 27an ireki zen horiek aurkezteko epea. 15 egun baino ez dituzte izan kaltetuek proiektua aztertu eta alegazio egokiak jartzeko.

Arrasaten eta Eskoriatza ere bi aste izan dituzte, baina epea geroago zabaldu zen. Abuztuaren 8an irten zen Espainiako Aldizkari Ofizialean. Hil bereko 27an

Irailean kaltetu bakoitzarekin hasiko dira harremanetan jartzen, alde aurretiko akten altxatzea egiteko; hori onartuz gero, okupazio aktak sinatu beharko dira

amaitu zen epea. Hiru herrietako alkateek gogor salatu dute abuztuan jarri izana. "Jendea biluzik harrapatu dute, erabat galdu-ta", esan du Aramaioko alkate Asier Agirrek.

ESPAINIAKO ALDIZKARI OFIZIALA

Horrez gain, informazioa heldu den moduarekin ere ez daude batere konforme. Espainiako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakin dute epea irekitzen zela, bai kaltetuek eta baita udalek ere. Beste adibide bat ere jarri du Agirrek erakundeen jarrera salatze-ko. "Internet edo posta bidez bidali dizkigute kaltetutako lurren plano ziztrin batzuk. Gurekin ez da inor jarri harremanetan", azaldu du.

Aramaion dauden 32 kaltetuek laguntza jaso dutela gogoratu du. Aholkularitza zerbitzu bat kontratatu du hango Udalak alegazioei forma ematen laguntzeko. Arrasate eta Eskoriatzaren kasuetan, berriz, Udaleko zerbitzuekin saiatu dira aholkua eskaintzen.

Udalek jarritako alegazioen artean, egoera hori salatu eta epeak luzatzea eskatu dute. Are gehiago, Aramaion epea zabalik zegoela jakin bezain pronto, Arrasateko Udalak Espainiako Sustapen Ministeriora idatzi bat bidali zuela jakinarazi du hango alkate Ino Galparsorok: "Epea abuztuan zabal ez dezan eskatzen genuen horretan". Kasu askorik ez zioten egin, ezetza jaso zuen-eta erantzun moduan.

Horrez gain, proiektuarekiko dituzten desadostasunak ere azaldu dituzte alegazioetan herriko erakundeek. Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek jakinarazi duenez, Udalak bi alegazio jarri ditu. Batean, epearen luzapena eta informazio gehiago eskatzen dute. "Planoak paperean jaso ditugu, eta euskarri digitalean



HIRU ALKATE Ezkerretik eskubira, Eskoriatza, Arrasate



ZABOLA AUZOA Eskoriatza atzean utzi eta Aramaiora Zabola auzotik sartuko da trenak.

ARRITXU BARRUSO

gura ditugu. Horrela, nondik pasatzen den zehaztasun osoz jakin ahal izango dugu", azaldu du Lasagabasterrek.

Arrasaten desjabetzeek 30 bat lagunei eragiten dietela esan du Galparsorok. Debagoieneko azpiegituren garapen iraunkorraren alde lan egiten duen Onbide elkarteko presidente Juan Karlos Belokik adierazi duenez, Eskoriatza 50 bat kaltetu daude guztira. Partikularrez gain, auzoek ere alegazio bateratuak aurkeztu dituztela adierazi du. Mazmela auzokoa da hura, eta hauxe esan digu: "Abuztuan zoroen moduan ibili gara", aipatu du Belokik.

Lurren desjabetzea jasango dutenak ere kezkatuta agertu ziren abuztuan, alegazioak "presaka eta informazio nahikorik izan gabe" egiten ari zirelako. Aramaioko Lasaga baserriko Roberto eta Jose Luis anaiek, adibidez, publikoki azaldu zuten kezka.

Aurkeztutako alegazioak aurkeztu eta erantzuten ari dira orain. Irailean hiru herrietako kaltetu bakoitzarekin hasiko dira



ate eta Aramaio alkate Pedro Lasagabaster, Ino Galparsoro eta Axier Agirre, hurrenez hurren, Muruko tontorrean.

ARRITXU BARRUSO

ESLEITUTA DAUDEN LANAK

> **LEGUTIANO-ESKORIATZA**

Bi zatitan banatuta dago. Legutiano-Eskoriatza I eta Legutiano-Eskoriatza II. Lehenengoak bost kilometroko luzera izango du eta bigarrenak 2,4koa.

Aurrekontuari dagokionez, 65 milioi euro balioko du zati bakoitza eraikitzeak. Lehenengo lanak Comsa, Cycasa eta Canteras y Construcciones enpresek egingo dituzte eta bigarrenagoak Ferrovial Agromanek eta Fonortek.

> **ESKORIATZA-ARAMAIO**

80,9 milioi euro balioko du 5,58 kilometro dituen tartea egiteak. Acciona eta Escavaciones Viuda de Sainz enpresei esleitu dizkie Espainiako Sustapen Ministerioak obrak.

Besteak beste, 2.224 kilometroko luzera duen tunela egingo dute Induspen.

> **ARAMAIO-ARRASATE**

Tarte horrek 3,39 kilometro izango ditu eta 57 milioi euro kostatuko da. Sacyr eta Amenabar y Proyectos enpresak arduratuko dira lan horietaz.

Bi zubi izango ditu eta batek 70 metroko altuera izango du, Aramaio eta Arrasate arteko errepide gainetik pasako dena.

> **ARRASATE-ELORRIO**

Obras Subterranas enpresari esleitu zaizkio 4,4 kilometro dituen tarte horren lanak. Aurrekontua 70 milioi da.

maio, Arrasate eta Eskoriatzako alkateek kaltetutako beste udal batzuekin jarri dira harremanetan: "Bergara eta Antzuolakoarekin bildu ginen, baita ibarrekoak ez diren beste udalekin ere. Plangintza bateratua gura genuen lortu", azaldu dute.

Jakina denez, Bergara eta Antzuolatik ere igaroko da tren, baina Eusko Jaurlaritzak da tarte horietaz arduratzen dena. Atzeratuagoa daude, esleitu barik daude-eta oraindik lanak.

"Batera joatea" konplikatua dela gaineratu dute. "Udal bakoitzak mila kontu ditu egunero. Erraztasunik ez dizkigute inondik inora planteatu behar", diote. Horrez gain, Abiadura Handiko Trenaren eragina "guztiok jasango dugu, eta, beraz, guztien inplikazioa beharrezkoa da", azpimarratu dute hiru herrieta-ko alkateek.

harremanetan jartzen, desjabe-teen alde aurretiko akten altxatzea egiteko. Hori onartuz gero, okupazio aktak sinatu beharko liriteke ondoren. Hortik aurrera, "lanak edozein momentuan has daitezke gure ibarrean", jakinarazi dute alkateek.

Proiektu hori udalen "eskue-
tatik kanpo" dagoela eta "inposi-
zio" hutsa dela salatu dute. Gai-

nera, "bideragarritasun ekono-
mikoa kolokan jartzen duten txos-
tenak daude, eta, hala eta guztiz
ere, aurrera jarraitzen dute", azpi-
marratu dute. Horren harira, "tre-
nak beste arlo guztietan eragin
zuzena izango du", esan dute hiru-
rek.

Ingurumenean ere "sekulako
eragina" izango duela gaineratu
dute. Adibide gisa, Udalatxen

kasuan egin beharrekoa jarri
dute. Euskal Herriko akuifero
handienetarikoa dago han. "Hiru
tunel eraikiz gero, akuifero hori
galtzeko arrisku handia dago.
Hori galduz gero, inguruko men-
dietara doan ura ere galduko da",
ohartarazi dute.

Alkateen iritziz, horrelako
azpiegitura bat egiteko orduan,
"herrietan horren inguruan gal-

detu beharra dago. Bailaratik pasa-
tzen da eta hemengo jendeak ez du
aukerarik izango trena hartzeko",
gogorazi dute.

BERGARA ETA ANTZUOLA

Gainera, horren atzetik dauden
interes ekonomikoak salatu dituz-
te. "Azpiegituren munduan dabil-
tzanak aberastuko dira herrita-
rren dirutik", aipatu dute. Ara-



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxe: 945 29 04 96
omegalelevator@omegalelevator.com

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrarekin: 200 Xdi 141 ZP

22.960 €-tik aurrera



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99



ERAIKIN BERRIA Mankomunitatearen egoitza berria izango dena -Zaldibar eraikina- egokitzeko lanak uztailean hasi zituzten.

GOIENKARIA

MANKOMUNITATEA > IRAILAREN 12KO BATZARREAN AUKERATUKO DUTE LEHENDAKARIA

Mankomunitatearen gobernu junta eguaztenean eratuko dute

Udaletako hamasei ordezkariak osatuko dute Mankomunitateko gobernu batzordea

EAEk estatutuen errebisioa eta aldaketak egin nahi ditu legealdi honetan

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Irailaren 12an, eguaztena, egingo du Debagoieneko Mankomunitateak legealdiko lehen batzarra, ezustekorik ezean. Batzar horretan osatuta geratuko da gobernu batzordea. Gainera, Mankomunitateko lehendakaria, lehendakari-ordea eta diruzaina aukeratu zituzte. Mankomunitateko zortzi herrietako udal ordezkariak -16 zinegotzik- osatzen dute batzordea.

Behin gobernu batzordea osatuta, batzordeen ardurak banatzea geratuko zaie; gobernu batzordeak erabaki beharko du zein batzorde osatuko duten Mankomunitatean. Aurreko legealdian hamar batzorde informatazaille zeuden: Hiltegia, Turis-

moa, Enplegua, Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Gizarte Zerbitzuak, Administrazioaren modernizazioa, Kirola, Kultura eta Euskara. Normalean, gobernu batzordea osatzen denetik hilabeteko epean banatzen dituzte batzordeen ardurak.

ESTATUTUEN ALDAKETA

EAE alderdiak izango du gehien-goia Mankomunitatean. Ino Galparsoro (EAE) Arrasateko alkatetik eta Mankomunitateko ordezkariak adierazi du estatutuak aldatzea izango dela EAEn erroka garrantzitsuenetakoa oraingo legealdian. "Urtebeteko epean estatutuei errebasoa egingen hastea eta aldaketak egitea nahi dugu", adierazi du Galpar-

sorok. EAEk proposatzen duen aldaketa bat izango da Mankomunitaterako udalen ordezkariak aukeratzeko sistema aldatzea: "Hauteskundeetako ibar osoko emaitzak islatuko dituen gobernu junta bat osatzea da sistema horrekin bilatzen duguna".

Gainera, aurtengo apirilean Mankomunitatearen funtzionamendua arautzen duen arau forala onartu dute eta arau horretara egokitzeko ere aldatu beharko dira estatutuak.

ERAIKIN BERRIA

Debagoieneko Mankomunitateak egoitza berria izango du las-ter, Arrasateko Nafarroa etorbidean, Zaldibar eraikinean. Uztailean hasi zituzten egokitzeko lanak eta datorren urteko abuzturako bukatuko dituzte. 2.868.909 euro da lanon aurrekontua. Mankomunitatearen zerbitzu guztiak hartuko ditu eraikin berriak, hiltegia izan ezik.

Hiru solairu ditu eraikinak. Beheko solairuan kokatuko dituzte Suradesa, enpresa ekintzarako zentroa eta Garapen Ekonomikorako bulegoak. Lehenengo solairuan, gaur egun Arrasate pasealekuan dituzten bulegoak eta lanbide hastapeneko programetako tailer eta ikasgelak. Goiko solairuan, azkenik, batzarretarako gelak jarriko dituzte.

Udaletako ordezkariak Mankomunitatean

HERRIA	ORDEZKARIAK
Arrasate	Ino Galparsoro (EAE) Patxi Arburua (EAE) Izadi Mondragon (EAE) Julia Monje (Ezker Batua-Zutik)
Bergara	Agurne Barruso (EAE) Enara Minguez (EAE) Iñigo Iñurrategi (Aralar)
Oñati	Lourdes Idoiaga (EAI) Ainhoa Galdos (EAI) Ernesto Murgiondo (EA)
Aretxabaleta	Inaxio Garro (Aralar) Lore Martinez (EA)
Eskoriatza	Pedro Lasagabaster (EAE)
Antzuola	Pedro Iturbe (EAE)
Elgeta	Oxel Erostarbe (Aralar)
Leintz Gatzaga	Eusebio Villar (Leintz Gatzagako Hautesle Elkartea)
ITURRIA: UDALAK	



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

UNIBERTSITATEA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA INGURUMEN PROIEKTU BATEN

MU automobilenguz ingurumen inpaktua txikitzeko proiektu bat zuzentzen dabil

Lightcarboncars da proiektuaren izena eta 17 erakundek parte hartzen dute

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren laguntasuna dauka proiektuak

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak zuzentzen du Espainiako 17 erakundek parte hartzen duten proiektua. Izaera berezia eta estrategikoa duen zientzia eta teknologia proiektua da eta haren helburua da automobilenguz ingurumen-inpaktua txikitzea, egitura arinduta, segurtasunik eta erosotasunik galdu gabe.

Proiektuaren aurrekontua da 11,5 milioi euro eta lau urte iraungo du ikerketak. Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak izaera berezia eta estrategikoa duen zientzia eta teknologia proiektutzat hartu du Lightcarboncars, eta bere laguntasuna eman dio; kontuan hartu behar da gai bakoitzean proiektu bakar bati ematen zaio-laguntza hori.

EGITURA ARINTZEA

Ingurumen-inpaktua txikitzeko bidea, esan bezala, automobilaren egitura arintzea izango da. Kalkulatuta dago automobilaren masa %10 arinduta, erregai-konsumoa %7 gutxituko dela.

Erresistentzia handiko altzairua erabilia eta fabrikazio prozesuak optimizatuta, automobilenguz masa %15 eta %25 arte-



TALDEA Proiektuan parte hartzen diharduten erakunde guztietako ordezkariak, Arrasaten egindako batzar baten. MU

an arinduko litzateke; karbonozko konpositeak erabilia, berriz, %25 eta %70 artean arinduko litzateke automobilaren masa.

Kostu txikiko karbonozko zuntzak, nanopartikulez sendotutako polimeroak eta adimendun materialak lortuko dituzte. Horrela, material konpositeen gaitasun mekanikoak asko hobetuko dira eta fabrikazio prozesuaren kostuak %50 inguru jaitsiko dira gaur egungo kostuekin alderatuta. Era berean, egitura kontzeptuak eta simulazio tresnak ere egokitu egingo dira.

PROIEKTUKO PARTAIDEAK

Mondragon Unibertsitateko German Castillo doktorea da proiektuaren zuzendaria

German Castillo doktorea, MUko irakasle eta ikertzailea, da Lightcarboncars proiektuaren zuzendaria. Bestalde, Arrasateko unibertsitateko Mekanika Saileko bederatzi ikaslek, tesia egingo duen ikasle batek eta gai horretan euren proiektua egingo duten beste sei ikaslek parte hartuko dute proiektuan.

Esan bezala, MUrekin batera, beste 16 erakunde daude proiektuan; besteak beste, honako hauek: FPK enpresa bizkaitarra; Gaiker teknologia zentroa; Katalunia eta Madrideko Unibertsitate Politeknikoak; A Coruña, Oviedo eta Sevillako Unibertsitateak; Jaume I Unibertsitatea; Galiziako Automozio Teknologia Zentroa; Repsol YPF, PSA eta Sernauto (Automozio osagaien egileen Espainiako elkarteak).

ERLIJIOA

Arantzazuko Ama Birjinaren eguna, etzi

Ordu erdian behin jarri dituzte autobusak Oñatitik, 07:30etik 19:30era

A.I. > OÑATI

Domekan, irailak 9, ospatuko dute Arantzazuko Ama Birjinaren eguna. 12:00etan izango da meza nagusia Arantzazuko Santutegian; Donostiako gotzain Juan Mari Uriartek esango du meza. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko Udaleko agintariek parte hartuko dute mezan.

Erromesaldia 07:00etan hasiko dute herritarrek parrokoarekin, Oñatiko parrokiaren.

AUTOBUSAK OÑATITIK

Oñatiko Udalak jakinarazi duenez, Arantzazuko Ama Birjinaren eguna dela eta, domekeroko autobus zerbitzuaren maiztasuna handitu egingo dute: ordu erdian behin egongo dira autobusak. 07:30ean abiatuko da lehenengo Arantzazura; Arantzazutik behera, 08:00etan. Oñatitik azkena 19:30ean irtengo da eta Arantzazutik, 20:00etan.

KALE AGERRALDIA

Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, urtero bezala, Etixerat elkarrekin kale-agerraldia egingo du, agintari eta herritar ugari elkartzen dela aprobetxatuz. Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatuko dute ekitaldi horretan. Santutegiaren aurrean izango da hori, meza aurretik, 11:45ean hasita.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarria (4D)
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetria
- Nerabzaroko ginekologia

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- Mikel Gorostidi

CG

CONSULTORIO
GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



kontsumoa



Ogia bost eta hamar zentimo artean igoko da.

GOIENKARIA

Ogi, esne, oilasko eta arrautzen prezioak nabarmen igotzen ari dira

GOIENKARIA > BERGARA

Ohikoa den moduan, irailean ogiaren prezioa igoko da ibarrean. Jakinarazi berri denez, bost eta hamar zentimo arteko igoera izango du oinarritzko produktu horrek. Hori gutxi balitz, aurtun, gainera, esnearen eta oilaskoaren prezioek ere gora egingo dutela jakinarazi dute. Esnea, adibidez, %10 inguru igoko da. Oilaskoaren kasuan, gorakada %20 izango dela aurreikusten dute.

Arrautzak, bestalde, %12 garestiagoak dira abuztuan ezker. Dozena bakoitza 15 zentimo gehiago kostatzen da orain. Batez beste, 1,40 euro balio du. Azken urtean %28 igo dira arrautzak. Igoera horiek guztiak bioerregaien boomaren eraginez gertatu direla diote adituek. Biodieselaren eskaera handitu egin da eta horrek zerealen eta animalien dako pentuen prezioen igoera eragin du.



Kontsolak dituztenen batez besteko adina 25 urte da

Kontsolak erabiltzaileen batez besteko adinak gora egin du azkenaldian. *Consumer* aldizkariak jakinarazi duenez, 25 urtean dago adin hori. Intelektualki gero eta sofistikatutagoak diren jolas gehiagoren sorrera eragiten du horrek.



Internetetik deitzea ohiko telefonotik baino merkeagoa da

Saretik deitzea ohiko medioetatik baino merkeagoa dela azaldu du *Consumer* aldizkariak. Telefono finkoetara deituz gero, %83 merkeagoa iristen da deia. Poltsikoko telefonoetara dei egiteagatik, berriz, %56 gutxiago ordaindu beharko da.

Igor Elortza > Kilometroetako koordinatzailea

"Hemendik aurrera luzeak egingo zaizkigu egunak, gauza asko dago-eta egiteke"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Kilometroetako koordinatzaile Igor Elortza buru-belarri dabil eguntan lan egiten. Hilabete baino ez da falta Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdirako -urriaren 7an ospatuko da-, eta azken ukituak ematen dabilta antolatzaileak.

Azken txanpan sartuta zaude dagoeneko. Zelan doaz antolakuntza lanak?

Orokorrean ondo doa dena. Urduritasuna agertzen hasi da baina hori normala da. Hemendik aurrera luzeak egingo zaizkigu egunak, gauza asko dago-eta lotzako eta lotuta dagoenarekin ere amaitu beharra dagoelako. Batzorde guztiak lanean aritu dira urte osoan zehar eta orain geratzen dena da boluntarioekin egin beharreko bilerak, bakoitzaren lana zehazteko.

Gehiena lotuta izango duzue dagoeneko... Zertan zabilta-te orain?

Hala da, garrantzitsuena lotuta dago dagoeneko eta orain produkzio lanekin hasi gara: kartelak, esku orriak, seinaleak eta horrelako gauzak diseinatzen eta ekoizten gabiltza.

Zerbaitekin hastearren, nola dago trafikoaren plangintza?

Erabat zehaztuta. Argi dago aparkalekuak eta etengabeko autobus zerbitzua non egongo diren. Erakunde ezberdinekin adostuta dago, bileraren bat edo beste egitea falta zaigun arren. Autobusek Labegaraletako industrialdean aparkatuko dute. Autoendako aparkaleku nagusia, berriz, Amillaga-San Lorentzen izango da eta hori betetzen denean, San Joanera desbideratuko ditugu. Zirkuitura joateko etengabeko autobus zerbitzua irten-go da handik.

Zirkuitua aipatu duzu. Zenbat gune izango ditu?

Sei kilometro eta erdiko luze-ira izango du ibilbidea eta sei gune ezberdinetan egongo da banatuta. Horietatik, lau herrigunean kokatuko dira: ikastolako seminarioko patioan, Usondoko parkean, Matxiategin eta Espoioan. Horretaz aparte, Artabilla inguruan eta kiroldegian gainontzeko bi guneak aurkituko dituzte egun horretan euskaltzaleek.

Egitaraua itxita al dago?

Bai, gune bakoitzeko ekintzak zehaztuta daude. Ikastolan haurrak izango dira protagonistak. Goizean puzgarriak eta tailerrak, erraldoiak eta kilikiak, *Betizuak* eta Txan magoa izango dira, besteak beste. Matxiategi A zonan, Kiki, Koko eta Moko pai-



Igor Elortza, jaialdiko esku-orria erakusten.

M.B.

"Sei kilometro eta erdi luze izango da eta sei gunetan egongo da banatuta ibilbidea"

"Egitaraua itxita dago. Guztiendako egitarau zabala prestatzen saiatu gara"

"Gonbita egin gura dut jendeak jaialdian modu batean edo bestean parte har dezan"

lazoekin, zirku tailerrekin eta hankapaluekin gozatuko dute txikiek. Kilometroetako kantua egin duen taldeak, Belcebluesek, ikastolan joko du arratsaldean.

Lasaitasun apur bat bilatzen duenak nora jo behar du?

Usondon Bergarako Orfeioa eta Aritzeta abesbatza entzun ahal izango dute, baita Oinutsik, Anje Duhalde eta Pantxoa eta Peio ere. Bazkaldu ostean, berriz, Tapia eta Leturiarekin gorputza mugitzeko aukera izango dute. Espoioan, berriz, bertsolariak,

herriko trikitilariak, Aitzol Mujika eta Anari arituko dira, besteak beste.

Gazteek ere euren tokia izango dute... Zer-nolako ekintzak prestatu dituzue haiendako?

Matxiategi Bn, Artabilla eta kiroldegian kontzertuak nagusituko dira egun osoan zehar. Lehengoan, Trapatoni, Circus Band, Sagarroi, Nour, Esne Beltza eta Trikizio musika taldeak igoko dira agertokira. Artabilla, Petti, Mulanbo, Rauxa eta Samar eta Kiroldegian, Fly Shit, Sekuentzia, Gose, Kauta eta bukatzeko EH Sukarra taldeek kontzertua eskainiko dute. Azken finean, guztiendako egitarau zabala prestatzen saiatu gara.

Boluntariorik behar duzue egun horretarako?

Bai. Orain horretan gabiltza. Datozen bi asteetan jendea bilatzen ibiliko gara eta ondoren bilerak zehaztuko ditugu, bakoitzak jakin dezan zer-nolako lana egin beharko duen egun horretan. Gonbita egin gura dut jendeak jaialdian modu batean edo bestean parte har dezan. Interesatuak Aranzadi ikastolarekin jarri behar dute harremanetan.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA VII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte.

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.org
Arauk: www.pamiela.org



2007

GARRAIOAK > TXARTEL BAKARRA ETA DESKONTUAK DEBAGOIENEAN

Txartel bakarra urriaren 1ean iritsiko da Debagoieneko autobus zerbitzuetara

Proiektuaren azkeneko fasean ezarriko da txartel bakarra Debagoienez

Debagoieneko prentsa saltokietan egongo dira eskuragarri txartel bateratuak

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 4an jarri zuen abian txartel bakarra, egun hartan ekin zion lehen faseari; Donostialdean, Oarsoaldean, Bidasoan, Tolosaldean eta Goierriaren ezarri zuten lehendabizi txartel bakarra edo bateratua. Harrezkero, beste bi fasetan, Gipuzkoako beste zonalde batzuetara zabalduta dute sistema berria.

Debagoienara, baina, oraindik ez da iritsi; azkeneko fasean, laugarren fasean, hain zuzen ere, urriaren 1ean, hain justu, ezarriko dute txartel bakarra gurean. Horrela, egun horretatik aurrera, Debagoienez ez ezik, Lurraldebus elkartearen sartuta dauden eta Diputazioaren baimenak edo emakidak dituzten Gipuzkoako garraiobide guztietan bidaiatzeko aukera emango du txartel bakarrak.



HAMAR LINEA PESA Debagoienez dituen hamar autobus lineetan erabili ahal izango dugu txartela.

GOIENKARIA

izango da eskuko telefonoetan sartzekoaren antzerakoa, kutxazainen bitartez.

Autobusera sartzekoan zein irteterakoan pasatu behar duzue makinatik txartela; horrela, zehazki zein ibilbide egin dugun jakingo dute eta horri dagokion prezioa kobratu.

DESKONTUAK TXARTELAREKIN

Garraio publikoa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta handiagoak izango dira lortuko dituzten deskontuak. Hilabeteko lehenengo hamar bidaiak prezio arruntean ordainduko dira; hamaikagarrenetik aurrera deskontuak izango dira, geroago eta handiagoak. Deskontuaren portzentajea %90era irits daiteke.

Era horretan, garraio publikoari bultzada eman nahi dio Diputazioak, erabiltzaileen leialtasunari sariak edo pizgarriak emanda.

DATUA

21.046

TXARTELAK Ekainaren 4an ezarri zuten lehenengoz sistema hori; hiru hilabete geroago, irailaren 4ko datuen arabera, gaur egun 21.046 txartel bateratu daude Gipuzkoan.

PRENTSA SALTOKIETAN SALGAI

Urriaren 1etik aurrera, Debagoieneko prentsa saltokietan egongo dira eskuragarri txartel bateratuak. Hantxe, inprimaki bat bete beharko dugu, argazki bat eraman eta lau euro ordaindu. Saltoki horietatik bideratuko dituzte erabiltzaileen eskararak eta hantxe bertan jasoko ditugu txartelak, bost egun geroago. Hain zuzen ere, txartel horietan dirua sartzeko sistema

DEBAGOIENEKO AUTOBUS LINEAK

- > Donostia-Tolosa-Beasain-Zumarraga-Bergara-Bilbao.
- > Donostia-Elgoibar-Bergara-Arrasate.
- > Donostia-Arrasate (A-8 eta AP-1).
- > Eibar-Bergara-Gasteiz.
- > Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza.
- > Bergara-Antzuola-Zumarraga-Oñati-Bergara.
- > Bergara-Arrasate-Durango-Bilbao (A-8).
- > Oñati-Arrasate.
- > Oñati-Arrasate-Bilbao.
- > Oñati-Legazpi-Zumarraga.

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Zure nomina helbideratzeagatik, besterik gabe. Zurea izan daiteke auto hau. Nahi al duzu?

Horren erraz. Nomina **kutxa** helbideratua izateagatik, besterik gabe **3 Citroën C3 1.4 16V zozketan*** parte hartuko duzulako.

Teknologia aurreratuzko autoa, eta batez ere, ingurumena errespetatzen duena.

Bere kategorian onena Automobilaren Nazioarteko Federazioak egindako **ECO-TEST**en arabera.

*Hilero Citroën C3 bat zozketatuko da irailan, urrian eta azaroan. Begiratu oinarriak www.kutxa.net helbidean.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

gure artekoak

SKODA OCTAVIA TOUR > Bergarako Aseginolaza automobil kontzesionaria jo dugu oraingo astean; hantxe, Alfonso Berraondok Octavia Tour berria erakutsi digu, automobil dotorea eta batere garestia ez.

Alfonso Berraondo > Aseginolaza kontzesionariokoa

"Automobil dotorea da, osoa, eta prezio oso egokia dauka"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

"Automobil dotorea, osoa, espazio handia eskaintzen duena eta prezioaren aldetik oso egokia" dela adierazi digu Alfonso Berraondok. Horixe litzateke Skoda Octavia Tour berria labur-labur deskribatzeko modua.

Estetikoki ez dauka alde nabarmenik aurreko Octavia modeloarekin alderatuta; dotorea da, simplea, baina automobil dotorea.

PRESTAZIO UGARAI

Bere mailan oso automobil osoa da; azkeneko teknologia garrantzitsu gehienak dakartza; esaterako, beira-igogailu elektrikoak, urrutiko agintedun giltza, klimatizagailua, abiadura kontrolatzeko sistema, irrati-CD-MP3, haguak, ordenagailua...

"Prestazio horiek guztiak dituela kontuan hartuta, prezio egokia du automobilak, prezio oso erakargarria hain automobil osoarendako", azaldu du Berraondok.

ESPazio HANDIA

Espazioa da aipatu beharreko beste ezaugarri garrantzitsua. Batetik, bidaiariendako automobil oso eroso da, espazio handiarekin eserleketan eta hankendako tokian. Bestetik, bereziki



Alfonso Berraondo, Octavia Tour automobila erakusten.

A.I.

Octavia 1.9 Tdi 105 cv Tour

Prezioa	17.100 euro
Luzera	4,50 metro
Zabalera	1,73 metro
Maletategia	1.512 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,2 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	189 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	11,8 seg.
CO2 isurketak	140 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepideko kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

aipatzekoa da maletategiaren edukiera. Alfonso Berraondok maletategia zabaldu digunean, argi geratu da izugarriko edukiera duela, 528 litrokoa, hain zuzen ere. Gainera, atzeko eserlekuak erabat tolestean dira eta maletategiaren gehienezko edukiera da 1.512 litrokoa.

Automobil ez oso garestia, eroso, dotorea eta espazio handikoa nahi duenarentzat, aukera paregabea da.

Azkenik, aipatzekoa da Octavia Tour modelo bakarra dagoela, hau da, motorretan aukera bakarra dago, ondoko taulakoa.

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Goienako kultura arduraduna

Opor osteko malko gabeko negarrak

Ilarekin batera itzuli gara gehienak lanera; beste batzuei, ordea, hilabetea estreinatu orduko heldu zaie atsedenaldirako garaia. "Hori bai zorrea!", pentsatuko du batek baino gehiagok, eguneroko martxari heltzeko alfergura beharrean, gaur egun hain erabilia den opor osteko depresioa duela gaineratuaz.

Psikologo bati entzun berri diot aipatutako depresioa guk geuk sortzen omen dugula gehienetan; errutinara itzultzea beti omen da gogorra, baina ez gaitza izateko beste sintoma.

Asteko albistegietan nahikoa minutu bete dira sindromea aitzakia hartuta. Orain oporretan dauden kontuak ez omen dira abuztuan ginenen beste albiste-aitzakia. Lehengo eta bigarren mailako opor-garaiak daudela adierazi nahi al du horrek?

Oñatiko Arrikruz kobetan izan naiz eta han turistekin egin dut topo. Kobako 10.000. bisitaria ere han zen. Ez dago gaizki! Hiru hilabete ez dira bete oraindik Debagoieneko koba ezagunenak zabaldu zirela-eta.

Opor laburrak diren arren, gozatu asteburuz!

"Astean izan da 10.000. bisitaria Oñatiko Arrikruz kobetan. Nor ote?"

> Futbol denboraldia ere heldu da, guztien zorionerako ez, ezta? Lehengo ala bigarren maila jarraituko duzue aurten? Nik, orain arte ez bezala, bigarren mailako aurkariak ezagutuko ditut!

> Urtarrileko aldapa gogorra izaten da. Irailekoa ez da ez makalagoa izango askorentzat. Laster helduko zaigu-eta erraz eta erruz erabilitako banku txartelaren ordainagiria.

begi-bistan



'Itturritxo', dotore-dotore (Oñati)

2007/09/06

Argazkia: Iñigo Biain.
Testua: Ainzane Irizar.

Atzeko kaleko jaietako protagonista bihurtzen dute kaleko iturria, *Itturritxo*. Astebururako prestatu dute aurten ere, dotore-dotore apaindu dute eta argiztatuta egongo da jaietan.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jesus Mari Plazaola

ARTZAINA

Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa irabazi du Jesus Mari Plazaola arrasatearrak, *Linda* txakurrarekin. Irailaren 2an jokatu zuten txapelketa Legazpin, Artzain Egunean. Bi txakurrekin parte hartu zuen Plazolak, *Linda*-rekin eta *Gure*-rekin.



Iñaki Mata

AKTOREA

Tarregako Fira antzerki topaketetan parte hartzen dihardu Iñaki Mata antzuolarrak *Barreas* lanarekin. Taun Taun taldeko kide den arren, lan hori bakarkakoa du Matak. Gurrildun aulkian dagoen gizon baten paperean sartzen da Mata kaleko ikuskizun horretan.



Aitor Mendizabal

PILOTARIA

Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra Ameriketako Estatu Batuetan dago, euskal selekzioarekin, mundu mailako lehiaketa baten parte hartzen. Bolivia, Txile, Mexiko, Argentina, Venezuela eta AEBetako pilotariak izango dituzte aurkari hila-ren 15era arte.



zabalik

Andoni Urtzelai

Aristi-terapia

Zapuztuta gelditzen naiz uda eta gero, hustuta, umore txartuta, deprimituta, mozkorraldi gaizto baten biharumanean bezala: tremendoko ajeak jota.

Eta ez da lanera itzuli beharragatik, edo ez horrexegatik bakarrik, behintzat. Udan, badirudi mundua bera gelditu egiten dela: medioetan, mozolokeria friboloen hartzen dute lehen Irakeko gerrak edo politikak zuen lekua. Guk geuk, berriz, sukar absurdo baten eraginpean bageunde moduan bizi dugu aro hau: *Biba la virgen!* ohiukatu eta Onasisen parekoak bagina bezala xahutuz dirua, ardurak ahaztu eta apenas ahoskatu dezakegun paraje exotikoetara ihesiz tropelean... Hitz baten, lelatu egiten garela udan. Garai artifiziala da uda (edo egin dugu), irreala. Eta klaro, kontuak gero, berau amaitzean.

Orain, bakoitza norbere katakunbatara itzuliko da hibernatzen, inolako baliorik ez balu bezala pasako dugu beste urte ia oso bat, hurrengo udaren zain, hurrengo mozkor kolektibo horren zain... en fin.

Uste dut bizitza behar bezala bizitzen ikasi beharko genukeela guztiok: une, egun, aro bakoitza behar bezala apreziazten, gozaten ikasi beharko genukeela. Baina, non erakusten dute hori?

Egun txarra daukat gaur, esan dizuet lehenago ere, ez nago ezertarako, aspirina bat hartu, Pako Aristi idazleak *Berrria* egunkariko zutabeen hilabeteotan idatzitakoak bildu eta ohean etzango naiz, bihar, etzi, edo hurrengo udara arte. Nork daki? Akaso gauzak beste era batera ulertzen irakatsiko didate Azpeitiko frankotiradorearen hausnarke tek...

Izan ere, udak eduki behar zuen zerbait onik, ezta?

"Garai artifiziala da uda (edo egin dugu), irreala. Eta klaro, kontuak gero, berau amaitzean"

"Uste dut bizitza behar bezala bizitzen ikasi beharko genukeela"

herritarrak galdezka

BERGARAKO AGORROSINGO IGERILEKUAK ETA KIROL EKINTZAK

Datorren astean itxita egongo dira Bergarako igerilekuak hainbat egunez. Irakurle batek jakin nahi du zergatik itxiko dituzten.

Hilaren 10etik 14ra (biak barne) egongo da itxita Agorrosingo kirol eremua. Udaleko kirol ordezkariak azaldu dutenez, urtean birritan itxiko dute –aurrez Aste Santuan itxi zuten– garbiketa lanetarako. Legionella tratamendua eta desinfektatze sakona egingo dituzte, besteak beste. Horrekin batera, konponketa batzuk eta hainbat lan osagarri egingo dituztela ere aurreratu dute Kirol Zerbitzutik.

Horrez gain, bainuetxeak beste bi aste gehiagoz ere itxita egongo direla aurreratu dute. Kontua da obra osteko hainbat lantxo egiteko daudela eta zaila denez zehaztea zenbat denbora iraungo duten, bada, hiru astez ixtea erabaki dute.

Horrez guztiaz gain, Kirol Zerbitzutik aurreratu dute ikastaro eta jarduerak hastear daudela. Iazko ikasturteko ikastaro-

en kasuan –ekainean amaitu ziren–, irailaren 17an hasiko dira. Hortaz, ekintzotan baja eman ez dutenen kasuan, automatikoki plaza gordeta dute irailan hasiko diren ekintzetarako. Hori horrela, ekainean jardueretan egon eta irailan jarraitu nahi ez dutenek jakinarazi egin beharko dute ezinbestean. Ez badute baja ematen, ekintzetan jarraitu nahi dutela ulertuko dute Kirol Zerbitzuan.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Esandako ekintza horiek dira: areto txirringa, aerodancea, tonifikazioa, acueroa, pilatesa, sasoiaren egoteko gimnasia, hirugarren adinekoendako gimnasia eta yoga.

Azkenik, Kirol Zerbitzutik aurreratu dutenez, hastear gauden ikasturte berrirako ekintza berriak garatzen dabilta, kirol eskaintza osatzeko asmoz.

JOTeko PREST PALA TXAPELKETA ANTOLATUKO DU AURTEN LORAMENDIK? Loramendi euskara elkarteak, lehenengoz, Joteko prest pala txapelketa antolatu zuen. Irakurle batek jakin nahi du ea aurtenean antolatuko duten.

Bada, bai. Honezkeron antolatuko dute eta izenematea ere zabalik dago. Urriaren 9an hasiko da eta abenduaren 14an izango da finala. Partiduak Iturrigorri pilotalekuan jokatuko dira, martitzen eta eguenean, 19:30ean. Izenematea zabalik dago hilaren 29ra arte. Horretarako jo Loramendira edo deitu 943 77 09 70 edo 685 75 67 29 zenbakietara.

marrakiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailtako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xai Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredaktzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Mirian Biteri **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritzak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Begarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleteko
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Athleticek gaztelaniazko ikasketen aldeko apustua

Marijo Deogracias

www.goiena.net/blogak/marijo

Izugarria, ikaragarria, onartezina, salatzeakoa, lotsagarria... Nahi duzuen esan daiteke Athleticen presidente Macuaren egitasmoaren gainean. Badirudi, horrela irakurri nuen larunbeteko *Pais* egunkarian, kadete

A mailako mutikoak eskola berean matrikulatu nahi ditu, errendimendua gehitzeko. Hori etorkizuneko futbol jokalaririk profesionalak "egiteko" bidea izan daiteke. Baina, dirudienez, ikastetxe horretan eskola guztiak gaztelaniaz izango liriteke eta euskaraz, bakar-bakarrik, natur zientzien ikasgaia litzateke. Nola daiteke Athleticen presidente jaunak horrelako eskaintza egitea?

Atzo komentatu zidan Athleticen bazkide dudak ohe-lagunak. Ia ezer nekien horri buruz, lankideen artean komentarioak entzun zituela

eta... Interneten sartu ginen eta zapatuko *Pais*-en aurkitu genuen Luis Martinek sinatutako albistea. Han esaten denez, gurasoek ez dute begi onez ikusi proposamena (abuztuan egin zieten), besteak beste, eta orden honetan agertzen da egunkarian: logistikagatik (mutikoetako batzuk ordu bi lehenago jaiki beharko lukete goizetan eskolara joateko), orain arteko ikastetxeekin gustura daudela, hau da, mutikoek nota egokiak dituztelako gurasoek aukeratutako ikastetxeetan, aldaketak errendimenduan eragin dezakeenagatik, eta

plazara

Papiloma-birusaren kontrako txertoa hizpide izan da azken boladana. Urtero, utero-lepoaren 470.000 minbizi kasu sortzen ditu

mundu osoan birus horrek, eta 35.000 emakume hil egiten dira. Txertoa irail bukaeran hasiko dira merkaturatzen eta Osakidetza 13

urtetik beherako neskatxoei jarriko diela aurreratu du. Adituen esanetan, herioza tasa murrizte dezaiteke %70ean edo gehiago.

Maria Unamuno *

Papiloma-birusaren kontrako txertoa

Nahiz eta garatxoak (berrugak) eta papilomak garai prehistorikoetatik ezagutzen diren, haien izaera infektiboa eta uteroaren lepoko minbiziaren garapenean duten eragina aurreko mendearen hasieran ezagutu zen.

Gaur egun, garbi dago arrisku handiko VPH infekzioak (giza papilomaren birusa) direla utero-lepoaren minbiziaren kausa. Izan ere, birus horrek, urtero, utero-lepoaren 470.000 minbizi kasu sortzen ditu mundu osoan, eta 35.000 emakume hil egiten dira minbizi mota horregatik Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan. Infekzio biriko horiek identifikatzeak bidea zabaldu zuen arrisku handiko VPH infekzioen kontrako behin-behineko txertoak garatzeko, minbizi mota espezifikoendako txerto gisa erabiltzeko helburuarekin.

Hain zuzen ere, utero-lepoaren minbiziak da, emakumezkoetan, bigarren tumore ohikoena, bular minbiziaren ondoren; eta, horren harira, emakumeei zitologia zerbikala egiteak utero-lepoaren minbiziaren heriotzatasu murrizte dezaiteke %70ean edo gehiago.

Izan ere, sexualki aktiboak diren pertsona askok dute VPH. Emakumeetan, infekzio ohikoena da sexu bidezko transmisioetan. VPHk infektatzen ditu bagina, bulba, uzkia eta utero-lepoa. Kutsapena gertatzen da sexu-organoen kontaktu bidez (bai bagina-sexua bai uzki-sexua). Baina kutsapena ere gerta daiteke larruzal bidez. Esan beharra dago sexualki aktiboak



MIKEL ARROIABE

diren emakumeen %70 baino gehiago VPH birusak kutsatuta izango direla bizitzan zehar. Hauek dira VPH bidez infektatzea erraz dezaketen faktoreetako batzuk: sexu-harremanak gazte hastea, bikotekide ugari izatea bizitzan zehar, eta emakumeon bikotekideek izan duten bikotekide kopurua, besteak beste.

Birusaren kontrako txertoa hiru injektzioz osatua dago, eta irail bukaeran merkaturatzen hasiko dira, 200 eta 400 euro artean, baina kanpaina unibertsal bat ere egingo dute. Hain justu ere, Osakidetza 13 urte beherako neskei jarriko die VPHren kontrako txertoa, sexu-harre-

"Sexualki aktiboak diren pertsona askok dute VPH. Emakumeetan, infekzio ohikoena da sexu bidezko transmisioetan"

"Emakumeen %70 baino gehiago VPH birusak kutsatuta izango dira bizitzan zehar"

manak izan baino lehen hartzea komeni da-eta.

Emakumezko eta ginekologo moduan iruditzen zait bakuna horrek ekidin egingo dituela, seguruenik, uteroko minbizi ugari. Hala eta guztiz ere, ez ditugu ahaztu behar -artikuluaren barrena azaldu ditugun- infekzioa kontagiatzen laguntze duten faktoreak. Faktore horiek aldatu egin daitezke gatzetatik heziketa egokia jasoz gero. Horren adibide da, esaterako, antisorgailua erabiltzea sexu-harremanetan.

*Maria Unamuno, ginekologoa da

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Kobratu behar da perretxikotan egiteagatik?

BAI	%33,3
EZ	%66,6

> PEKATU GALANTA

Bai, eta kalean ibiltzeagatik, eta arnasa hartzeagatik eta... Nahikoa kobratzen digute autopistan joateagatik.

Mikel

> OSO GAIZKI

Errekurtso naturalak modu jasangarri batean erabiltzeagatik ez dut uste ordaindu beharra dagoenik. Agian Ultzamakoek erabaki hori hartu badute izan da jende izugarri pila joaten delako hara perretxiko bila eta honezkeroko kalte ere eragiten ari direla.

Amaia

> ONDO DERITZOT

Amuarrainak hartzeagatik ere ordaindu beharra dago eta ia inori ez zaio gaizki pentsatzen. Batzuek negoziario egiten dute perretxikoak batzetik eta hori da ez zaidana ondo iruditzen: ahalik eta kilo gehien hartzen saiatzen dira gero saldu eta sos batzuk ateratzeko. Ordaindu beharrak hori ekiditeko balio badu...

Iban

DATORREN ASTEKO GALDERA:

Zer deritzo zuu parkinetan minutuka kobratzea?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

azkenik (horrela jasotzen da ere egunkarian), ikasketei eta euskararen babesari dagokien arrazoengatik.

Ia argi ikusten dudana: RHaren bila hainbeste buelta ematen dituen euskal talde batek, Basaurin jaio, baina kanpoan hazitako andaluziar bat fitxatu nahi zelako zaleen artean sekulako iskanbila eragin zuen talde batek, etorkizunean taldeko jokalaririk izan daitezkeenak gaztelania hutsez hezi nahi ditu!??? Eta gero, Macuak Bai Euskarari ziurtagiriaren alde egingo du, esaterako; edo, euskal jatorrizko jokalaririk fitxatzea-

ren aldeko politikaren defendatzaile sutsu izateari eutsiko dio... Euskaldun egiten gaituena ezta bada euskara? Edo, ez zen horrela...

Goizeko sanidatea

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellozabala

Pozik ikusi dut bederatziru-reneko aiton-amonen taldea. Gosaldu orduko, eguzki goxotan, katuarena nahiz sugandilarena egiten

hasiak dira, mantxo mantxo... Saiatu nintzen, bada, aspertu ere bai, goizetan eguraldia emanez jardun nintzenean, ezin erakutsiz, batez ere Radio Euskadin, udaberri nahiz udazken bideko sasoiaren, goizeko tenperatura freskoa seinale onena dela eguraldi onari antzemateko. Esatariek ere ez baitute batere laguntzen, 12-15 graduren bitartea usaindu orduko, albiste bakoitza azpimarratu beharrez, "Qué temperaturas más frías tenemos esta mañana", esanez abiatzen direnean.

koplak

Enaitz Alustiza

San Simon eta San Juda

Kantu za(ha)r batek halaxe dio: "San Simon eta San Juda joan zen uda eta negua berriro ere heldu da".

Eta askori otuko zaio eguzkiaren peskisan uda izena eduki arren udarik ez dela izan.

Japon, India, Txina, Afrika, Errusia, Punta Kana, a(ha)lik urrunen joatea izan ohi da jendearen plana.

Aurten Uberan gelditu naiz ta nahi ez banauzue sutu oporretako argazkiekin pelotarik ez ikutu.

Euskal Herrian egotekoa azken hila da nirea kurtso batean hartu behar dut Txekiarako bidea.

Ta despedidak nola pilo bat gustatzen zaizkidan niri maite nautenei muxu handi bat eta gainontzekoei bi.

Aznarren erreplika Oñatin

Marijo Altube, Karmelo Arregi, Lierni Axpe eta Mikel Igartua

(EAE-ANVko legez kanporatutako hautetsiak)
Oñati

Erreplikak edo kopiak ez dira inoiz originalak bezain onak izan. Oraingoan ere araua errepikatzen dela uste dugu, baina ondorioak ateratzea zuen esku uzten dugu.

Pasa den uztailaren 26an ohiko Osoko Bilkura burutu zen Oñatiko Udaletxean, bertan besteak beste PPren zinegotziak (Alderdi Legeak inposatua dagoena, Iñaki Galdos eta Manu Egaña bezala) parte hartu zuelarik. Bere ildo politikoa espainiarra bereizten duen interbentzio pare bat izan ondoren, galde-erreguak puntura ailegatu ginen. Puntu honetan, PPren zinegotziak hitza eskatu ondoren, hasi ziren guztiz soberan zeuden gertakizunak, hau da, PPren zinegotziaren eraso, mehatxuak eta irainak hain zuzen, bertan geunden EAE-ANVren ordezkariaren aurka.

PPren zinegotzi honen lehen interbentzioak alkatearen eta PSE-EEren ordezkariaren erantzunak jaso zituen; EA eta OEren (IU-Aralar-Zutik) bozera maileak isilik gelditu zirelarik, nahiz hitza izan. Zergatik azken bi alderdi politikoa hauen bozera maileen isiltasuna?

Ondoren, PPren zinegotziaren bigarren interbentzioa etorri zen eta hor hasi ziren, gure aburuz, gertakizun larriak, EAE-ANVren ordezkariari zuzendu zitzaion behin eta berriro (hatzarekin seinalatuz) Osoko Bilkuren aretoan une hartan "hiru hiltzaile eserita zeudela", "ez zirela pertsonak"... eta era honetako esaldiak errepikatuz, bere onetik guztiz irlanda.

Pentsa dezakezue zein egoera bizi izan genuen.

Bere amorru guztia deskargatu ondoren, gure erreakzioa etorri zen eta Karmelo Arregi, bere nortasunaren ezaugarriak diren patxada eta ironia puntuak erabiliz, oso tonu lasaian erantzun polita eman zion; beste behin erakutsiz ezker abertzaleak jakin badakiela dagoen lekuan behar den bezala egoten; nahiz pertsonak garen neurrian eta minutu batzuk aurretik bizitakoa ahanzi gabe, barnean genuen samina kontrolatzen jakin izan genuen.

Mehatxu eta irain horiek gure ahotik irten baziren, uste duzue aukerak izango genituela iritzi artikulu hau idazteko? Une honetan Oñatin egongo ginatete edo agian beste tokiren batean? Bestela gogoratu Iñaki de

Juanaren kasua, bi iritzi artikulu idatzi ondoren non dagoen oraindik.

Hurrengo larunbatean, uztailaren 28an, beraz, PPren zinegotziaren aurkako salaketa jarri genuen Bergarako epaitegian. Auzia, egun, epaitegi beraren esku dago.

Ezker abertzalearen kideok betidanik izan gara kritika politikoaren aldekoak. Kritika eraikitzailearen aldekoak gara, adierazpen askatasunaren aldekoak; ez ordea mehatxuen aldekoak, irainen aldekoak... Jarrera hori ez diogu onartuko ez PPri, ez eta inori ere. Gauzak elkarrizketaren bitartez konponetzen dira. Elkarrizketa akordio-en muina da, baina oraindik dirudi batzuk ez direla honetaz konturatu eta mehatxu zein irainen bidea nahiago dutela, beraien "demokraziaren" izenean.

Larria bada PPren ordezkariak esandakoa; are larriagoa da Alderdi Legearen ondorioz herriaren borondateari lapurturiko lau aulkietatik bat era honetako pertsonai baten esku egotea, herriaren bozketen zilegitasun osoa duten hautesiek beraien oinarriko eskubiak onartu gabe dituzten bitartean.

PPren zinegotziak ez du Oñati ezagutzen. Oñatira etorri zenetik, bere politikaren oinarriak euskara eraso egin, herriko presoen aldeko edozein ekimen eraso egin, ezker abertzalearen hautetsiak eraso egin, abertzaletasuna eta herrigintza eraso egin... izan dira. Zeren aurka egingo du oraingoan eraso?

Era berean, bere ezintasuna adierazteko ETA zein ezker abertzalea gara beti bere gaitzen errudun; gu geu baikara PPK Oñatin "3.000 bozka soilik" izatearen arrazoi nagusiena. "Lapsus" berri bat, bere "ohiko beste perla" bat —300 nahi zuen esan—; zero batean erratu zen, baina zer da hori, ezta?

Dena den, ezker abertzaleko kideok ez gara bere probokazioetan eroriko. Herriaren alde lanean jarraituko dugu; Oñati, oñatiarrak eta Euskal Herria izango baitira gure ardatzak, hau da, herrigintza eta nazioingintzaren uztarpena. Gainera gaurtik indar gehiagorekin; era honetako jarrerak kemena ematen digutelako gure ideiak, gure ekimenak... defendatzeko; berrestu egiten gaituzte gure jarreraren eta atzo baino zurrago gaude bide zuzenetik goazela eta gure herriaren askatasuna, bakea... hurbilago daudela, guztion hobe beharrez. Agian, bera hobeto bizi da gatazka egoera batean, bestela mauka finitzen zaio; baina gu geu ez, guk soluziobideak behar ditugu.

Ez dugu denbora gehiagorik galduko era honetako pertso-

naiekin, ez baitute merezi. Baina, zuei informatu nahi genizuen, bakoitzak bere ondorioak atera ditzan. Azken finean, denborak norbera eta bere ekintzak merezi duten tokian jartzen baititu.

Bergarako Martinez Irala ikastetxean denok kabitzen garela pentsatzen dut

Miren Gurutze Arana

(San Martin ikastetxe guraso eta Aranzadi ikasle izandakoa)
Bergara

Uztailaren GOIENKARIAN azaldutako *Denok kabitzen garela pentsatzen dut*, Justina Elexpuruk idatzitakoari buruz, zenbait azalpen egin nahi nituzke.

Alde batetik, arrazoia eman nahi diot Justina Elexpururi, ikastola herriak eta herriaren dako sortutakoa dela eta, beraz, bokazio publikoak jaiotako ekimen bat.

Garai hartan proiektu honen sortzaile eta bultzatzaile izan zirenen ustea eta ametsa izan zen ikastola noizbait eskola publiko bihurtzea. Baina, zoritxarrez, aukera sortu zenean, hau da, 1993an, Bergarako ikastolak, Aranzadik, sare publikoan ez sartzea erabaki zuen, eta horren zergatia eta zehaztasunak nik baino hobeto ezagutuko ditu Justina Elexpuruk. Nik dakidana da ni bezalako herritar askok pena izugarria hartu genuela, hor galdu baitzen Euskal Eskola Publiko bakar bat egiteko aukera.

Erabaki horrek Bergara bezalako herri txiki batean aurrerantzean zatiketa eta banaketa besterik ez baitu sortu: gurasoen artean, familietan eta koadriletan.

Asko gara gaur egun, ez bakarrik San Martingo gurasoak, ikastolako zenbait guraso ere (beraien aurretik zeudenek hartu baitzuten erabakia) erabaki horren zergatia ulertzen ez dugunok.

Ikastola sare publikoan sartu izan balitz (Eibarkoak egin zuen bezala), gaur egun ditugun arazoak ez genituzke izango eta denok elkarlanean arituko ginateteke.

Baina, beno, penak alde batera utziz, gator gaur egungo egoerara. Aranzadi ikastola ikastetxe kontzertatua da eta kontzertatuei dagokien dirulaguntzak jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzatik eta beste hainbat udaletatik. Beraz, aparteko finantzabideak ikastolakoek

aurkitu beharko dituzte. Azkenik, Justina Elexpuruk planteatzen duen galderari erantzunez, badakizue non dagoen horren guztiaren gakoa? 1993an hartutako erabakian.

Ez dezagun giroa gehiago nahastu. San Martin ikastetxe publikoak eskatzen duena, hau da, Martinez Irala ikastetxea konpartitzea, bidezkoa dela uste dut beharra kontuan izanik, 1983 inguruan konpartitu zen bezala.

Bergaran, kalitatezko hezkuntza euskalduna

Leire Iruin, Maite Mugika eta Ibai Redondo

(Bergarako Euskal Herriak Bere Eskola)
Bergara

Ondoko lerroen helburua ez da San Martin eskola, Aranzadi ikastola, Udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean sortu den liskarrari atera bide osoa ematea. Hala ere, bergararrok kalitatezko hezkuntza euskalduna jasotzeko eskubidea dugu, honen urraketaurrean oso kezkatu gaude. Beraz, ondokoa adierazi nahi dugu:

1. Bergarar guztioi, gure herriaren etorkizuna diren belaunaldi berriak, kalitatezko hezkuntza euskaldunean hezteko eskubidea zor zaigu eta horretarako oztopo nabarmenak ditugu. Batetik oztopo ekonomiko, pedagogiko eta eraikin mailako larriak ditugu. Honen erantzule nagusia Eusko Jaurlaritza da, Europan hezkuntzara diru gutxien bideratzen duen administrazioa delako. Gauzak horrela, San Martingo haurrak oso baldintza txarretan daude oraingo eraikinean eta poligonokora eramanez gero ezin dira Aranzadikoak kalean utzi. Haur guztiek dute espazio egokian hezteko eskubidea; beraz, konponbiderako ahalegina egin behar da.

2. Kalitatezko hezkuntza euskalduna emateko, oztopo politikoa dugu. Erabaki guztiak Bergarako ikasle, irakasle, guraso eta herritarren esku egon behar dira. Baina, tamalez, erabaki nagusi gehienak Madrilen hartzen dira, hezkuntza sistema espainola inposatzen zaigulako. Honek esan nahi du Bergarako eta Euskal Herriko haur eta gazteek eskolan edo ikastolan ikasten dutenaren zati handiena Espainiako Gobernuak erabakitzen duela, baloreen transmisioa eta azterketa sistema atzerakoa haiek erabakitzen dutelarik, hitz batean espainiar curriculum ematera beharturik gaude.

3. Zorionez, Aranzadi ikastolak eta San Martin eskolak kalitatezko hezkuntza euskaldunaren aldeko apustua egin dute eta bide horretan hainbat pauso eman dituzte, eskola guztiak euskaraz ematea adibidez. Hala ere, oraindik urrats asko dago emateko Hezkuntza Sistema Nazionala eta propioa lortu bitartean.

4. Bergararrok behar dugun hezkuntza jasotzeko elkarren arteko borrorak baztertu behar dira, norberaren interesak baztertu eta bergararren interesen alde elkarlana beharrezkoa da. Zentzu honetan, oso kezkatu gaude Eskola Publikoaren eta Ikastolaren arteko liskarre herriarroi kalte handia egiten digutelako eta bereziki Bergarako haur eta gazteek sufritzen dituztelako ondorioak, aski da!

5. Konponbideen garai da. Horretarako Jaurlaritzak, Udalak eta bi ikastetxeek akordioa izenpetu behar dute. Azken urteotan Udalaren gestioa negargarria izan da, Victoriano Gallastegi alkate ohiaren utzikeria eta ganora faltak egoera larritza besterik ez du eragin. Oraingo alkateari ezin zaio eskatu urteetako arazoa egun batetik bestera konpontzea. Hala ere, alkatearen eta udal gobernu osoaren ardura ere bada, ahalik eta epe laburrean arazoari irtenbidea bilatzen saiatzea, gainontzeko aktoreen inplikazioarekin batera.

Bukatzeke, bergarar guztioi, Aranzadi ikastolari eta San Martin eskolari dei egiten dizuegu, Bergarako kalitatezko hezkuntza euskaldunaren alde eta Euskal Herrirako Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde elkarrekin lan egin dezazuen. Horretarako gure laguntza osoa duzue.

Eskerrik asko

Enrike Gorrotzategi

(Elgetako Jai batzordearen izenean)
Elgeta

Elgetako Jai batzordeak eskerrik eman gura dizkie herriko jaiak antolatzen lagundu duten guztiei eta jaietan parte hartu duten herritarrei. Jakin badakigu eta jende askoren lanik barik ezingo genituela jaiak egin, eta lan hori eskertu gura dugu, bai ekitaldiak prestatzerakoan beraien ideiak eta ekarpenak egin dituztenak bai eta ekitaldiak egiterakoan antolakuntzan parte hartu eta lagundu dutenak. Bide batez, aukera hau aprobetxatu gura dugu jendea animatzeko datorren urteko Jai batzordean parte hartzera, ekarpen eta ideia berri guztiak aztertuko baitira guztion artean jai erakargarri eta hobeak egiteko.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Eskaintza honek abuztuaren 16tik irailaren 22ra balio du

A
B

Berriro eskolara



199 €

6 alditan
interesik
gabe

Pantaila, TFT, **COMPAQ**,
W1907 mod.

- WINDOWS
VISTA BASIC
- DVD DUAL DL
BIRGRABAGAILUA
- INTEL DUAL
CORE E2140
PROZESATZAILEA



499 €

6 alditan
interesik
gabe

CPUa, **COMPAQ**
PRESARIO, SR5119 mod.
• RAM: 2.048 MB
• Disko gogorra: 250 GB
• INTEL GRAPHIC MEDIA
ACCELERATOR 950,
dedikatuak: 32 MB,
224 MB arte
• Txartel-irakurgailua




EROSKI

Erosten jakin



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENENKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otorlora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea 7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salvador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**
Amillagako bidegurutzean biribila egingo dute > 25



> **ARETXABALETA**
Futbol zelaiko lanak amaitu eta UDA hasi da entrenatzen > 32



> **ANTZUOLA**
Irailean hasiko dituzte parrokia berritzeko lanak > 36



> **ARAMAIO**
Datorren astean zabalduko dute gazteendako lokala > 38

ARETXABALETA > KANPAIAK JOTZEN IKASTEKO MATERIALA

Kanpaiak jotzen ikasteko materiala sortu dute Areantzako auzotarrek

IDEIA

Aretxabaletako Areantza auzokoena da ekimen bitxi hori

JAIETAN

Auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan, eta materiala aurkeztuko dute

MATERIALA

DVD batek eta hainbat grafikok eta partiturak osatzen dute materiala

MIREN ARREGI > ARETXABALETA

Makina bat aldiz ikusi eta entzun izan dugu gure auzo eta herrietan elizako kanpaien soinuak bazterrak astintzen. Ohitura horrek, baina, urterik urte eta hamarkadarik hamarkada indarra galdu duenik ezin ukatu. Bada, kanpaiak jotzeko tradizioa galduaz doala-eta, ohitura zahar hori mantentzeko, Aretxabaletako Areantza auzoko bizilagunak ekimen bitxi batekin datozkigu. Izan ere, auzo horretako kanpai jotzaile eskolak kanpaiak jotzen ikasteko material didaktikoa sortu du. Euren helburua da kanpaiak jotzeko ohitura mantentzea eta sendotzea. "Lehenago auzo guztietan entzuten ziren kanpaiak; orain, berriz, gutxiago... Dakitenek ere aukera gutxiago dute jotzeko eta entzuten ez denetik ikastea zaila da", dio proiektuaren bultzatzaile Julen Abasolo auzotarrak.

Hain zuzen, material didaktiko hori ikus-entzunezko formatuan datorren DVD batek eta hainbat grafikok eta partiturak osatzen dute. Ikus-entzunezkoa Arteman komunikazio enpresak gauzatu du, eta grafiko eta partiturak egitea Oihan Vega musikari eta kazetariaren lana izan da. Julen Abasolok azaldu duenez, "Kanpandorrean ikas-



KANPAI JOTZAILEA Joxe Joakin baserriko Felix Madinabeitia da Areantzako kanpai jotzailea. Familiako kideek jo izan dituzte beti auzoko kanpaiak.

GOIENKARIA

tea zaila da oso, eta bururatu zitzaigun paperean zer ikasi izate interesgarria izango zela".

AUZOKO JAIK

Gaur hasiko dira Aretxabaletako Areantza auzoan jaiak, eta hori aprobetxatuz aurkeztuko dute material didaktiko berri hori, auzoko elizan, 19:00etan.

IKASTEKO TRESNAK

Auzoko elizako arkupeetan kanpaiak jotzen ikasteko tresna bitxi bat ere ipini dute auzotarrek; benetako kanpaien imitazio bat dela esan daiteke. Bada, bertan entseatu ahal izango dute kanpaiak jotzen ikastera animatzen direnek. Bestetik, aurrez esan bezala, material didaktikoarekin

ere egin ahal izango dituzte probak, etxean bertan. Ekimen horren sortzaile eta bultzatzaile direnek diote dagoeneko badi-rela hainbat pertsona proiektuarekin interesatuta daudenak eta parte hartzeko gogoia erakutsi dutenak. Edozelan ere, eurek diote hobe izango litzatekeela auzo desberdinetako jendea

elkartzea, horrela ohitura auzo desberdinetan hedatuko litzateke-eta. Hain justu ere, materialean kanpai modalitate guztiak bildu dituzte, hala nola letxuga kanpaiak, errepikak, hil kanpaiak eta beste hainbat. Baditu zailtasunak kanpaiak ondo jotzen ikasteak. Ziur parte hartzaileek lortuko dutela.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 8	Ruiz Perez	Nafarroa 1	943 79 14 09
Domeka, 9	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehena, 10	Ruiz Perez	Nafarroa 1	943 79 14 09
Martitzena, 11	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguaztena, 12	Irizar	Erguin 11	943 77 16 30
Eguena, 13	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 14	Ruiz Perez	Nafarroa 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 8	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 9	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 10	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 11	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguaztena, 12	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 13	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 14	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 8	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 9	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 11	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 12	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 13	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 14	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 8	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 9	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 10	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 11	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 12	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 13	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 14	Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urizarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)

08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Gallizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urizarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	08:05
09:00	09:15	09:15
10:30	10:30	10:30
11:30	11:30	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 8

Behelanoarekin esnatuko garen arren, egunak aurrera egin ahala garbitzen eta argitzen joango da. Egun ederra eta tenperatura gozoak.




Domeka, 9

Goizeko lehen orduetatik eguzki izpiak izango ditugu lagun. Tenperaturak fresko goiz eta iluntze partean. Gainerakoan, giro ederra.

EUSKAL HERRIAN

Eguraldi polita izango dugu zapatuan. Barnealdeko bailaretan behe lainoa izango dute goizeko lehen orduetan, baina erabat garbituko du. Domekan ere eguraldi polita izango dugu. Hala eta guztiz ere, egunak aurrera egin ahala lainoak azaltzen joango dira zeruan.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Astelehenean hasiko dute ikasturtea Miguel Altuna institutuak

Astelehenean, hilaren 10ean, hasiko dute ikasturtea Miguel Altunako ikasleek. Lehenengo mailetako ikasleena 10:00etan hasiko da; bigarren mailetakoena, berriz, 11:00etan.

BERGARA

> 1942. urtean jaiotakoek irteera egingo dute

1942an jaiotakoek -1963ko kintoek- Hondarribiara irteera egingo dute hilaren 29an. Izenematea hilaren 22ra arte egin daiteke Azpeitxi jatetxean eta Edel oihal denda -30 euro aurreratu behar dira-. Bidaia eguenean 11:00etan abiatuko da autobusa Fraiskozuritik; 12:30ean, Hondarribian txangoa izango da eta 14:30ean, bazkaria, jatetxe on batean.

ARRASATE

> Goikobalu abesbatzak entsegu ordutegia ekarri du gogora

Helduek ohiko ordutegia izango dute: martitzenetan, 21:00-22:30 eta eguenetan, 20:00-22:00, Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean. Gazteen entseguak, berriz, eguaztenetan izango dira, 19:00-20:30, Raquel Murgiondok zuzenduta; eta Txiki-izartxoentseguak irailaren 13tik aurrera izango dira,

BERGARA

18:30-19:30, Amaia Aboitzekin. Horrekin batera, interesa duten herritarrei dei egiten diete taldeetan parte hartzeke. Horretarako, Saiolan eraikineko beheko solairuan egiten dituzten entsegutara joan besterik ez dute. Informazio gehiagorako: 660 80 07 91.

BERGARA

> San Martinetak danborradarako entseguak deitu ditu Kultura Sailak

Haur eta nagusien danborradetan parte hartuko dutenei egiten diete dei. Entseguak izango dira: irailaren 10etik 13ra, Seminarioko patioan. Haurren kasuan, 19:00etatik 20:00etara izango dira entseguak; nagusien kasuan, 20:00etatik 21:00etara.

BERGARA

> Goimendi auzoko jailetako zenbaki saritua

Urdaiazpiko bat zozkatu zuten uztaila-

BERGARA

ren 28 eta 29 bitartean auzoko jaietan. Hala, jakinarazi dute zenbaki saritua 3.652 izan zela.

BERGARA

> 1944an jaiotakoek Errioxara irteera egingo dute

Irailaren 29an egingo dute irteera. 09:00etan abiatuko da autobusa, Fraiskozuritik; 10:30ean, hamarretako egingo dute upeleategian; 12:45ean, Vivanco museoa ikusiko dute eta 15:00etan, bazkaldu. Izena emateko azken eguna da irailaren 17a. Horretarako deitu M. Luisa Muruamendiarazi (943 76 30 88) edo Bodegon Herandezera (943 76 20 43).

LEINTZ GATZAGA

> Bigarren hiru hilabeteko ura eta estolderia ordaintzeko epea zabalik

Zerga horien errolda onartu berri du Udalak eta jendaurrean dago ikusgai. Irailaren 10era bitartean ordain-

TENPERATURAK

MINIMOA

Egubakoitza, 31

12 °C

MAXIMOA

Zapatua, 1

24 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

8,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 29	20 °C	19 °C	2,4 l/m²
Eguena, 30	21 °C	14 °C	- l/m²
Egubakoitza, 31	23 °C	12 °C	- l/m²
Zapatua, 1	24 °C	14 °C	- l/m²
Domeka, 2	23 °C	15 °C	0,4 l/m²
Astelehena, 3	21 °C	14 °C	5,3 l/m²
Martitzena, 4	21 °C	16 °C	0,2 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URTARRILEAN



Ilbehera

4

Ilberri

11

Ilgora

19

Ilbete

26

DEBAGOIENA

> Txatxilipurdik ibar osoari erantzuteko dinamizatzaileak behar ditu

Arrasateko ludoteka eta gazte txokoetarako lau orduko kontratuko lana eskaintzen du eta Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuetan, aste bukaerako. Gutxieneko eskakizuna da euskara maila ona izatea. Baloratuko dute, besteak beste, formazioa eta esperientzia. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

du behar dira; ordainagiri helbideratueta izan ezik, udaletxeko zerga-bilketa bulegora jo behar da.

BERGARA

> Ikasturte hasiera Musika Eskolan

Musika Eskolatik jakinarazi dutenez, ikasturte berria hilaren 10ean hasiko da.

ARRASATE

> Calpera (Alacant) irteera egingo du Abaroak

Urriaren 20tik aza-roaren 3ra izango da irteera eta prezioa, 445 euro laguneko. Prezioaren barruan daude, besteak beste: joan-eto-rrirako autobusa eta 14 gau hiru izarreko hotelean, otordu guztiak barne. Izenematea luzatu egin dute. Hor-taz, oraindik izena eman daiteke.

BERGARA

> Begirale lan poltsa osatu nahi du Jardunek

Aste bukaeratan lan egiteko begirale lan poltsa osatu nahi du Jardun Euskara Elkar-teak. Beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Begirale titulua, ikasketak eta esperientzia izatea baloratuko da. Izena emateko azken eguna da irailaren 22a. Horretarako, bidali curriculuma helbide honetara: Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara. Informazio gehiagorako deitu 943 76 36 61 zenbakira.

kale inkesta

Kostatu zaizu lanera eta normaltasunera itzultzea?




Idoia Iñiguez de Heredia
Langilea
Gereñu

Ez. Hamabost egun izan ditut jai eta ez dut normaltasunera itzultzeko arazorik izan. Gainera, ez ditut oporrak gustuko. Nahiago dut egunero lan egin eta, gehienez, hiruzpalau egun hartu.



Maribi Mendialdua
Langilea
Aramaio

Ez zait kostatu lanera bueltatzea. Jakin badakit egun batzuk direla eta gero amaitzen dela. Lehenengo eguna agian gogorra izan daiteke, oporretan ederto bizi garelako, baina azkar pasatzen da.



M. Angeles Arriolabengoa
Langilea
Aramaio

Ondo bueltatu naiz. Opor osteko depresiorik ez dut edukitzen. Egia da kosta egiten dela, baina, behin lanean hasiz gero, ez dut arazorik izaten. Gainera, ez duzu denborarik horretan pentsatzeko.



Maria Jesus Altuna
Langilea
Aramaio

Ez daukat opor osteko depresiorik, ez dudalako oporrik hartu. Taberna naiz eta abuztuan arratsaldeetan taberna itxi badugu ere, lanean egongo gara. Nik, behintzat, ez dut arazorik izan.



Alberto Garcia
Langilea
Arrasate

Ez. Ez dut opor osteko depresiorik izan. Depresioa izanez gero, gero kendu egin behar duzu-eta. Oporrak izan ostean indar handiagoarekin bueltatzen naiz lanera. Baikor izan beharra dago.

5 galdera...

Mikel Astorkia

Kutxako zuzendaria
Bergara

1. Abuztua euriborraren beste igoera batekin amaitu da. Orain %4,661ean dago. Askoz gehiago igoko dela aurreikusten al duzue?

2004ko martxoan euriborra %2 inguruan zebilen eta orain %4,6an dabil. Ziurtzat ematen dugu %4,9ra igoko dela eta hortik gora pentsa liteke beste %0,25-0,5 igoko dela, guk nahi edo ez nahi. Ni, gazte gehienak bezala, maila baten titularrak naiz-eta.

2. Igoeren ondorioak nabaritzen hasi zarete dagoeneko? Alegia, hipotekari aurre egin ezin dionik joan da zuenera?

30 urtera 180.000 euroko maila baten kuota 2004tik gaur egunera 200 bat euro handitu da hilerro. Beraz, argi dago denok nabaritu dugula igoera. Baina esan beharra dago momentuz inor ez dela gurera etorri ezin duela ordaindu esatera. Horrek adierazten du bere garaian egindako aurreikuspenak onak izan zirela.

3. Etxebizitzaren salmentak jaitsi egin direla igarri al duzue?

Azken urteotako etxebizitzaren salmenta ikaragarria izan da, eta, beraz, gehikuntza hori apurka moteltzen doa. Hala ere, esan genezake lehengo etxebizitzaren salmenten joera egonkorra izango dela.

4. Zenbat diru eskatzen da gaur egun? Zenbait igo da iazko abuztutik hona?

Eskatzen den diru kantitatea ez da berdina, faktore askok eragiten dutelako beregan: erosleen adina, lehenengo edo bigarren etxea den, kokapena, familiaren dirulaguntza eta abar.

5. Zer esango zenioke etxea erostea pentsatzen ari den bergarar bati?

Nik neuk animatu egingo nuke. Hori bai, gomendatuko nioke bere ohiko eta konfiantzazko banketxera joatea. Etxebizitzaren erosketa bizitzan egingo dugun erosketa garrantzitsuenetakoa da eta erabaki egoki eta zuzena hartzeko konfiantza ematen dion eta ezagupena duen pertsona baten laguntza beharrezkoa da.



txaloak eta txistuak



E.A.

Agirre auzorako bidea, zaborrez beteta



Agirre auzora bidean, Candy lantegiak aparkaleku moduan erabiltzen duen gunea negargarri dago: zaborrez beteta. Plastikoa, paper eta abarrez gain, autoak, aulkiak eta telebistak ere aurki daitezke. Udalarari eta Candyri zerbait egin dezatela eskatzen diete auzokoek.

ustek uste

Ubane Madera

Oporrak bai, zerbitzuak ere bai

Oporrak bukatu dira eta gehienok egun batzuk, behintzat, etxetik kanpora egin baditugu ere, hilaren zati bat etxean egin dugu. Beste batzuek hil osoan izan dira hemen; batzuk, gainera, lanean, geroago eta gehiagok egiten dute-eta abuztuan lan.

Eta oporretatik bueltan, hemen ibili direnen artean kezu bat nabarmendu da: herrian ez dela ezer egon, ez aisialdiari dagokionez eta ezta zerbitzuei dagokienez ere (dendak, tabernak, liburutegiak, gremioak...). Neu Arrasateri buruz nabil, baina pentsatzen dut antzerako egoera izango zela ibarreko bestelako herrietan.

Eta horrek zer pentsatua ematen du. Izan ere, guztiok dugu oporretarako eskubi-dea, gogo eta beharra. Hori egia da. Baina egia da, baita ere, abuztuan barrualdeko gure herriek itxura oso tristea erakusten dutela, arratsaldeetan bereziki, saltokiak-eta ixten dituztenean; horrez gainera, zerbitzu ugari igartzen ditugu faltan: etxean matxuraren bat izanez gero, kosta egiten da konpontzaileak aurkitzea.

Ez da erraza esatea zein den konponbidea. Akaso zerbitzu minimoak egon beharko lirakeke banatuago, edo akaso gehiago ipini, edo bereziak. Baina zerbait bai.

asteko datua

10.000

Arrikruzeko kobako bisitarien kopurua etengabe ari da handitzen. Asteazkenean zehar 10.000 bisitaria hartuko du. Joan zen ekainaren 8an ireki zen kobazuloa eta ordutik hona 240 laguneko bisita izan du egunero. Oñatiar eta debagoiendarrez gain, mundu osoko jendea joan da hara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

OBRAK > ERDIALDEKO OBRAK, BIDE ONETIK

Iturbideko kantoiko zatia falta da Zerkaosteta kaleko obrak bukatzeko

Ezustekorik ezean, irailaren amaieran bukatuko dituzte Zerkaosteta kaleko eta Ferixalekuko aparkalekuko obrak; Uriburukoak bukatuta daude

UBANE MADERA > ARRASATE

Zerkaosteta kaleko obrak nahiko aurreratuta doaz abuztuko oporraldiaren ostean. Dagoeneko zorua zolatuta dago, galtzadharriekin, eta, obra nagusiari dagokionez, erremateak egitea besterik ez da falta. Hala jakinarazi du Izaro Agirrek, obretako udal teknikariak.

Hori bai, Iturbide egoitzaren ondoko kantoiko obrak egitea falta dela ere gaineratu du hark. Hain zuzen ere, Garibai kaletik Zerkaostetara igotzeko pasabidea egokitu egin behar dute; baita Iturbide egoitzaren sarrera ere. Hala, batetik, aldapa berria egingo dute, orain arte zegoena baino malda txikiagoa izango

duena. Halaber, lehengoa baino luzeagoa ere izango da. Helburua da aldapa horrek irisgarritasun irizpideak betetzea. Eta bestetik, eskailera berriak ere ipiniko dituzte, orain arte zeudenak estuegiak ziren-eta.

Hain zuzen ere, udal teknikariak jakinarazi duenez, aurreikuspenen arabera, datorren astean ekarriko dute kantoirako pasabide berria. Behin hura ipinita, erremateak egin eta obrak bukatuzat emango dituzte.

FERIXALEKUKO APARKALEKUA

Eta eguraldiak askorik oztopatzen ez badu, behintzat, irailean bukatuko dituzte, baita ere, Ferixalekuan egiten dabilzan lanak.



ZERKAOSTETA Zerkaostetak dagoeneko erakusten du laster estreinatuko duen itxura berritua.

U.M.

Hain zuzen ere, Ferixalekuko jolastokian dagoen aparkalekurako irteera berria egiten dabil Udala. Izan ere, aparkalekuaren orain arteko irteera ez zen egokia, justu oinezkoen pasabidera ateratzen zelako. Gainera, autoen joan-etorriaren eraginez, irteera horretan zegoen espaloiairen egoera nahiko txarra zen.

Hori guztia kontuan hartuta, irteera berria egingo diote aparkalekuari. Orain arteko irteeratik metro batzuk urrutirago,

Amaia antzokirantz. Eta horrekin batera, ate irristailu bat ipiniko dute, eskola orduetan itxita egongo dena, umeak babesteko. Eta eskola orduak bukatzen direnean, udaltzainak arduratuko dira hura zabaltzeaz.

Uztaillean hasi zituzten obrak eta abuztuan etenda egon dira. Orain, hastear daude. Hain zuzen, gaztetxerantz ematen duen aparkaleku zatia inpermeabilizatzea falta da. Atea eta baranda, berriz, eskatuta dituztela jakinarazi dute.

URIBURUKO BERRITZE LANAK

Eta obren errepassoarekin bukatzeko, Uriburu kalekoak uztailearen amaieran bukatu zituztela gogorarazi dute Udaletik. Beraz, harrezkero, Erguin auzoan autoen zirkulazioa normaltasunera bueltatu dela gaineratu dute.

2006ko bukaeran hasi zituzten Uriburu kaleko 9 eta 29. atarrien artean obrak egiten. Hain justu ere, kalearen zati horretako azpiegitura guztiak berritzen ibili dira harrezkero.

Hizkuntzak ikasiko dituzu, hitza

ingelese - frantsesa - alemana - euskara - txinera - italiera

Maila guztiak eta malgutasuna ordutegietan

Sistemak:

- Aurrez aurrekoa
- Blended (On Line + Aurrez aurrekoa)

Balio erantsiko zerbitzuak:

- Mediateka, mailegu zerbitzuarekin
- Extranet, materiala on line duten bezeroentzat
- Lingua Maila-ak astero (ingelesezko ikasgai txikiak)
- Astero txatetan parte hartzea
- Hilero kalitate oneko sariak banatzen dituzten hizkuntza lehiaketetan parte hartzea
- Ikasleen jarraipen pertsonalizatua
- Batez besteko ikasle kopuru txikia
- Ordenagailu eta internet gela

Klaseak:

Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Aramaion, Eskoriatzan

Cambridge Unibertsitateko
azterketak gure zentroan

matrikula epea zabalik



Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00

Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02

Bilbao
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67

Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55

www.mondragonlingua.com

INGURUMENA > SAN JOSEPE

San Josepeko ideia lehiaketa finantzatu egingo du Diputazioak

36.000 euro jarriko ditu Aldundiak harrobiaren zuloa betetzeko lehiaketa egin dadin; lehiaketaren oinarriak zehaztu beharko dituzte orain

UBANE MADERA > ARRASATE

Hitzarmena sinatuko dute Diputazioak eta Arrasateko Udalak San Joseperako ideia lehiaketa finantzatzeko. Diputazioak jakinarazitakoaren arabera, "aurki sinatuko dute hitzarmena Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Arantxa Tapiak eta Arrasateko alkate Ino Galparsorok. Hain justu ere, azken horrek konfirmatu dio GOIENKARIARI martitzenean jaso zutela Diputazioaren ahozko jakinarazpena.

Hitzarmen horren bitartez, Diputazioak 36.000 euroko dirulaguntza emango dio Arrasateko Udalari, "San Josepeko harrobiaren etorkizuna argitzeko ideia lehiaketa finantzatzeko". Hau da, Bedoñara bidean dagoen harrobiak mendian utzitako zuloa zerekin edo zelan bete erabakitzeko.

KONTRAKO ARRAZIOIAK

Diputazioak emandako xehetasunen arabera, "50 urte baino gehiagoko ustiapenaren ondoren, San Josepeko harrobiak gutxi gorabehera 1.200.000 m³-ko bolumen

eremua hartzen du, eta horrek, erabilera geruzatuaren bitartez, 274.000 m³ baino gehiagoko inguru gordina sor lezake. Ideia lehiaketak harrobia lehengoratzeko eta ustiatzeko helburuei erantzun beharko die, ustiaketa ez espekulatiboa sortuz eta egungo

begi-inpaktua murriztuz, balizko gizarte eta etxebizitza erabilerak modu orekatuan eratuta. Asmoa da guztiz zigortutako inguru geografiko bat ingurumen aldetik lehengoratzeko proiektu eredu-garri bat garatzea".

Ino Galparsoro alkateak emandako azalpenen arabera, berriz, "aurreko agintaldian onartu zuten proiektu hori. Orain egin behar duguna da aztertu lehiaketa deitzeko oinarriak eta gero, lehiaketa abiarazi".



HERRITARREK argazkikoaren moduko ideiak proposatu zituzten.

U.M.



AGINTARIAK Argazkian, klaustroak ikusten dabilta udal agintariak. TXOMIN MADINA

ZERBITZUAK > KULTURA ETXEA

EAJko udal taldea egokituko du Uri Buru Batzarrak

U.M. > ARRASATE

Aldaketak egin beharko ditu EAJk Udalean duen taldean. Hain zuzen ere, EAJren zerrendan laugarren lekuan aurkeztu zuten Jose Ramon Uribarren zinegotzia udal langilea ere bada, Udaleko brigadakoa, hain zuzen. Eta, legearen arabera, bi karguok bateraezinak dira.

Hori horrela, hamar laneguneko epea eman zion udalbatzak Uribarreni erabakia hartzeko: edo eszedentzia eskatu Udaleko lanpostuan eta zinegotzi moduan jardun edo Udalean lanean segitu eta zinegotzi kargua utzi. Eta oraingo astean jakinarazi dute zinegotzi kargua utzi egingo duela Uribarrenek.

Isidor Solupek, EAJko Uri Buru Batzarreko presidentek, emandako azalpenen arabera, udalbatzak ez zuen onartu EAJ alderdiko udal taldetik zinegotzi bat liberatzea. Eta hori dela-eta erabaki du EAJk Uribarren ez dela zinegotzi izan-

go eta orain arte moduan udal langile izaten jarraituko duela.

Ondorioz, Uribarrenen ordez beste pertsona bat izendatu beharko du orain EAJk laugarren zinegotzi izateko. Solupek esandakoaren arabera, irailean zehar erabakiko dute zeinek hartuko duen kargua.

APRAITZEK HEMEN SEGITUKO DU

Bestalde, eta EAJren udal taldearekin jarraituz, uztailean jakinarazi genuen Luis Mari Apraitz EAJko udal taldeko buru eta zinegotzia Diputazio-ara doala lanera. Errepideetako zuzendari nagusi izendatu zuen Diputatuen Kontseiluak. Eta izendapen horrek zalantza jarri zuen Apraitzek Udalean segitu ahal izatea. Bada, EAJk jakinarazi duenez, Apraitzek oraingo, behintzat, zinegotzi izaten segituko du, hauteskundeetan aurkeztu zuten moduan, hau da, EAJren zinegotzi taldeko buru eta ordezkari moduan.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

BASATI TABERNA

943 711768

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazulatuak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

BERGARA AUTOAK

- AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
- GARANTIA IDATZIZ
- FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Autoen eskaerak aukeran:
jlegana@terra.es

Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

Audi BMW VW Toyota Mercedes Mitsubishi

Afrika Marteatxe > Irakasle oiha eta ikerlaria

"Historiako gaietako detektibe bat bezala naiz: haritik tiraka hasi eta ikertzea gustuko dut"

AITZIBER ARANBURUZABALA > ARRASATE Arizmendi ikastolan, Almenen, irakaslea izan da arrasatearra 33 urtean. 1944an jaio zen. Historiako gaietan ikertzea du zaletasun. Dagoeneko bospasei liburu idatzi ditu. Ez ditu liburuak argitaratzen, bere etxeko liburategian gordetzen ditu. *La Séptima bienaventuranza* da haren azkeneko lana.

Oraingoan, Alemaniako erregimenaren kontra egin zuten 100 opositore politiko eta erlijiosoren biografiak batu dituzu. Nola laburbilduko zenuke?

Aurrekoan, *La quinta bienaventuranza* liburuan, juduen salbazailak ikertu nituen. Oraingoan, berriz, Alemaniako erresistentzian teologoek izan duten eragina ikertu nahi izan dut. Ikaragarria da, Erregimenak eraikitzen katoliko pila, eta baita luteranoak ere. Batutako guztien artean bat aukeratzekotan, propaganda paperak banatzeagatik epaitua eta ondorioz heriotza zigorra izan zuen 17 urteko gaztearen kasua aipatuko nuke. Gaztearen adina argudiatuz zigorra gogorregia zela-eta, haren abokatu eta familiak errekurtsioa idatzi zuen; epaileek, berriz, adinez gaztea zen arren, egiten zuenaren jakituna zela erantzunez, ez zioten heriotza zigorra barkatu eta hil egin zuten.

Informazioa batzeko ze lan prozesu jaraitzen duzu? Dokumentazio guztia eskuratzeko?

Ikertzen hasteko, lehenengo, jakin-mina sortzen didan galdera egiten diot neure buruari eta ondoren galdera horri erantzuna bilatzen hasten naiz. Lehenengo, liburuetara jotzen dut, baina interesatzen zaizkidan gaiak horren ezagunak ez direnez, Internetera jotzen dut gero. Nazien garaia oso dokumentatua dago, eta, beraz, garaiko dokumentu, akta eta baita epaiketarako grabazioak ere aurki daitezke sarean. Ondoren, aurkitutako dokumentazioa itzultzen dut; horretan izaten dut lan handiena. Egunero ordu asko eskainta, bospasei hilabete behar izan ditut lana burutzeko.

Zure ikerketa lanak, baina, ez dira nazien garaira mugatzen.

Ezta gutxiagorik ere! Esklabotza kontuen gainean, adibidez, *Cimarrones* liburua egin nuen. Mexikon hain ezagunak ez diren iraultzak ere ikertu izan ditut. Ikusten duzuen moduan, denetik.

Idatzitako liburuak ez dituzu argitaratzen. Interesa duenak badu zure lanak eskuratu edo erabiltzeko modurik?

Azkenaldian izan ditudan elkarrizketekin, dagoeneko jende askok daki nire zaletasunaren berri; beraz, norbaitek beharra izanez gero, nirekin harremanetan jarri eta, duda barik, saiaturik nintzateke behar duenarekin laguntzen.



Afrika Marteatxe, idatzitako liburua esku artean duela.

UBANE MADERA

"Ez dakit hurrengo galdera noiz eta zeri buruzkoa sortuko zaidan"

"Ondo dokumentatuko lanak egitea gustatzen zait; azaleko lanak ez ditut gustuko"

Etorkizunari begira baduzu beste proiekturen bat esku artean?

Ezin dut nire burua galdera sortzera bultzatu; beraz, ez dakit hurrengo noiz eta zeri buruzkoa sortuko zaidan. Hurrengo galdera sortutakoan, itturrietara jo eta ondo dokumentatutako erantzuna ematen saiaturik naiz. Azaleko lanek ez dute ezertarako balio, nire ustez.

KULTURA ESKAINTZA

Udalaren kultura eskaintza irailerako

Abuztuko etenaldiaren ostean, eskaintza zabala egin du irailerako Udalak

A.ARANBURUZABALA > BERGARA Asteburu honetan udako zine emanaldiak jarraituko dute Monterronen; eguraldi txarra eginez gero, bertan behera geratuko dira hitzorduak. Irailaren 21ean hasiko dira, berriz, Amaia Antzokiko zine emanaldiak.

AUKERAN DANTZA TALDEA

Datorren astean, hilaren 15ean, Bergarako Edu Murua-mendiarrak dantzariak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak aurten bete dituen 10 urteak ospatuko ditu Monterronen eskainiko duen *10 urte* ikuskizunarekin. 1997. urtean taldea sortu zenetik antzoki eta agertoki txikietan eskaini dituen lanak laburbiltzen ditu Arrasatera ekarriko duten ikuskizun horrek.

Antzerkiari dagokionez, Euskal Herriko aktore eta ezagunenek osatzen duten Kanpingags taldea izango da Amaia Udal Antzokian; hain zuzen, *Lapurren kobazuloa* antzezlanarekin egingo dute.

Eta kultura eskaintza borobiltzeko, Arrasateko Iturrigorri Elkarlana taldeak antolatutako musika ikuskizun interesgarria izango da Amaia Antzokian, hilaren 29an. Hezur-muineko transplantea behar duten gaixoen alde lan egiten du taldeak. Taulagainean izango dira Bergarako Belceblues, Arrasateko Big Band eta Goikobalu abesbatza.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



euskara
zure gaitasuna

zure jaia
zure garaia
zure kuraia
zure jarraia
zure soslaia

NAHI BESTE LEKU!
www.aek.org

aek
coach berri

ARRASATEKO ERDU AEK

GARIBAI 14 • Tel.: 943 770369

ZURE NEURRIRA!

- ▶ **EUSKALDUNTZE** (maila guztiak erreleboka)
- ▶ **ALFABETATZE** 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean
- ▶ **MINTZA TALDEA** 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
- ▶ **EGA** 2 egun astean
- ▶ **4.MAILA** / 2 egun astean + etxerako lana
- ▶ **AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA**

GURE SEKRETUA, KOMUNIKAZIOA

*Matrikula zabalik
irailaren 27ra arte*

*Udalaren laguntzaz
Beka sistema*



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 

Beñat Barberena > Desarrollo Uteboko jokalaria

"Aurrerapauso handia da, baina hemen ez dago Arrasateko taldeko giroa"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Beñat Barberenak (Arrasate, 1989) EBA kategorian lehiatuko den Desarrollo Utebo taldearekin jokatuko du oraingo denboraldia. Abuztuan Aragoiko taldearekin hainbat proba eginda, taldeko entrenatzaile Slovdan Vuckevic-ek lekua egin dio Arrasatekoari. Abuztuaren 16a ezker Zaragozan dago Barberena, entrenatu eta entrenatu.

Mugarri Alkesatik –orain Mondragon Unibertsitatea– Desarrollo Utebora egin duzu jauzi. Aurrerapausoa da.

Bai, niretako aurrerapauso handia da, kategoriatik bat gorago jokatuko dudalako. Baina saskibaloian jokatzea eta ikastera etorri naiz Zaragozara –Ekonomia ikasketak egingo ditu–, eta bi gauza horiek bateratzen ahalginduko naiz.

Zer moduz orain arte egindako denboraldi-aurrea?

Oso gogorra, egia esateko. Orain arte Arrasateko taldearekin ere lan egin izan du abuztuan, baina hemengo denboraldi-aurrea oso gogorra izan da, egunero 5-6 orduko lan saioak izan ditugulako. Goiz eta arratsalde entrenatu gara, batez ere arlo aerobikoa lantzen. Pentsatzen dut hemendik aurrera lan anaerobiko gehiago egingo dugula.

Denboraldi-aurreko lan saioekin batera, dagoeneko hainbat lagunarteko jokatutuzue. Zer moduz?

Dagoeneko hiru norgehiagoka jokatutuz. Lehenengo partiduan ez nuen askorik jokatutuz, min hartuta nengoelako. Zapatuan zazpi minutu izan nituen,

eta zapatuan, berriz, 17 minutu egon nintzen kantxan; gainera, nahiko partidu txukuna egin nuela uste dut, pozik geratu nintzen. Hala, espero dut entrenatzaileak konfiantza eman eta urtean zehar minutuak izatea.

Taldearendako ere kategoriatik berria da EBA. Zein da taldeak duen aurtengo helburua?

Lehenengo urtea izanda, uste dut kategoriari eustea izan behar dela gure helburua. Taldea goitik behera da berria, eta, gainera, EBA kategorian dauden bost sektoreen artean, gurea da gogorrena –Kataluniakoa–. Hori jakinda, bistan da gogor egin beharko dugula lan.

Eta, zein da zeure buruari ezarri diozun helburua?

Entrenatzaileak dagoeneko esan dit oso jokalarik gaztea naizela –18 urte–, eta taldean jokalarik garrantzitsu bilakatu aurretik gauza askotan hobetu behar dudala uste dut, bai arlo fisiko-



EBA kategorian jokatuko duen Desarrollo Utebok fitxatu du Beñat Barberena (erdian).

GOIENKARIA

an eta baita taktikoki ere, eta baita esperientzia hartu ere.

Orain arte zure taldea izan den Mondragon Unibertsitateak entrenatzaile berria du, Iñaki Merino.

Bai. Nik ez dut harekin lan zuzenean egin, hura Euskadiko Selektzioan emakumeekin ibili delako, baina badakit lan handia egiten duen entrenatzailea dela. Seguru nago Mondragon Uniber-

tsitateak aurten ere lan polita egingo duela.

Seguru Arrasateko taldeko giroaren hutsunea igarriko duzula.

Bai, horixe! Hau beste kontu bat da. Hemen kanpotar mordoa dago, Esloveniakoak, Kroaziarakoak... eta nork bereari begiratzeko dio. Arrasateko taldean taldea bera da garrantzitsua, lagunarteko lan kolektiboa.

Ointxe! saskibaloia taldeak hainbat berritasun ditu aurtengo denboraldirako

Hainbat berritasunekin hasiko du aurtengo denboraldia Ointxe! klubak. Batetik, Arrasateko saskibaloia taldeak Mondragon Unibertsitatearen babesa izango du, eta, horrekin batera, entrenatzaile berria estreinatuko dute: Iñaki Merino gasteiztarra.

Jokalariei dagokienez, berriz, taldeak aurreko blokeari eustea lortu du, nahiz eta hiru jokalarik taldea utzi duten. Beñat Barberenak EBA mailan jokatuko du aurten, Desarrollo Uteboren eskutik. Horrekin batera, Iker Lizarriturri Zarautzera itzuliko da, eta Gorka Erañak saskibaloia utzi du. Baja horiek utziko duten hutsunea betetzeko etorri da 20 urteko Igor Peña hegal-pibota Arrasatera. Hura ere Gasteiztik dator.



Aurrerantzean Mondragon Unibertsitatea izango da taldearen izena.

OINTXE!

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

kanpotarrak arrasaten

Eamon Fagan > Hizkuntza akademiako arduraduna
Arrasaten bizi da

"Hemendik gutxira gazteak hirueledunak izango dira"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Arrasatear askok baino denbora luzeagoa darama Eamon Faganek herrian. Egun gutxi barru 55 urte beteko ditu, eta azken 31 urteak gurean eman ditu. Irlandakoa da Fagan. Meath konderrikoa, hain zuzen. Lehengo oroitzapenak gogorra ekarri eta egungo bizipenak kontatu dizkigu.

Arrasatera etorri aurretik, Londresen bizi izan zen lau urtez. Han ezagutu zuen bere emaztea izango zena, arrasatear bat. Herrira iritsi zenean hiru atzeritar baino ez zeudela adierazi du. Ingalaterrakoak ziren haiek.

Hasierako uneez gogoratzen da oraindik Fagan. "Bizitzaz beteriko herria zen. Eguerdia eta arratsalde partean erdiko kaleak txikiteroz beteta zeuden", dio. Hark harritu egin zuela jakinarazi du irlandarrak. "Jaioterria oso lasaia zen, baserri-giroa zen nagusi". Ordutik hona, hala ere, Arrasa teko egoera ere asko aldatu dela gaineratu du. "Gaur egun 21:30ean irteten zara eta ez dago inor herrian", azaldu du.

Ibarreko bizimodura "arazo barik" moldatu izan dela adierazi du Faganek. "Irlandarrek eta euskaldunek antz handia dute, gauza asko dituzte komunean", dio. Musika eta dantza jarri ditu adibide gisa. Ezberdintasunak

ere igarri ditu bien artean. Euskal Herria, adibidez, Irlanda baino menditsuagoa dela eta eguraldia ezberdina dela dio. Horretaz gain, gurean lan gehiago egiten dela gaineratu du.

ALDE ZAHARRA ETA UDALA

Arrasateko alde zaharra du gustuko, baita Udala ere. "Hamar minutuan mendian zaude, eta hori zoragarria da", esan du. Herriko azpiegiturekin ere oso pozik dago, hala nola Kulturategiaren, Musakolako igerilekuekin eta osasun etxearekin. "Kalean dagoen zikinkeria eta bandalismoa" da ibarretik gutxien gustatzen zaiona.

Maritxu Kajoi jaia ere gustuko du. Lehenengoan parte hartu

"Orain dela 30 urte emaztearekin kalean ingelesez berba egiten nuen eta ez zigun inork ulertzen"

"Maritxu Kajoi masifikatuta dago eta ezin zara tabernetara sartu; kanpoko jende gehiegi dator"

zuen, eta eskapulario guztiak gorde ditu ordutik hona. "Lehen aldi hartan 40-50 lagun inguru irten ginen", gogoratu du. Denborarekin jaia aldatu egin dela gaineratu du. "Gaur egun masifikatuta dago eta ezin zara tabernetara sartu. Kanpoko jende gehiegi dator. Hala ere, gustuko dut jai hori; egun horretan elkarrean biltzen gara", gaineratu du.

Ibarrari dagokionez, Urkulura askotan joaten dela azaldu du. "Beti daramat argazki-kamera aldean. Argazkilaritza gustatzen zait, eta han irudi ederrak ateratzeko aukera dago", dio.

Irlandako tabernak sumatzen ditu bereziki faltan. "Gaurero musika egoten da han. Jendea bere gitarrekin edo musika tresnekin joaten da eta jotzen eta abesten hasten da", azpimarratu du.

URTERO DOA IRLANDARA

Jaioterria bisitatzen jarraitzen du Faganek. Hizkuntza akademia bat dauka eta 18 ikaslerekin joaten da hara urtero. Uztail osoa ematen du bertan. Gabonetan, berriz, Arrasaten geratzen da. "Santamasak asko gustatzen zaizkit eta emazteak, gainera, ez du opor askorik izaten", azaldu du.

Arrasatearrek duten ingeles mailaz ere mintzatu da. "Orain dela 30 urte emaztearekin kale-



Eamon Fagan, bere lantokian.

an ingelesez hitz egiten nuen eta ez zigun inork ulertzen. Gaur egun kontu handiz ibili behar duzu, gazte gehienek hizkuntza dakite-eta", azpimarratu du irlandarrak.

Horren harira, herrian ingeles maila "asko igo dela" esan du. "17 urterekin maila altuak ikasten dabilta gazteak. Batzuk, gainera, kanpora joaten dira hizkuntza hobetzera" eta, hori dela eta, "hemendik

gutxira gazteak hirueledunak izango dira", gaineratu du.

Euskararekin ez da nahi bezain ondo moldatzen irlandarra, zertxobait ulertzen duen arren. "Ikasteke dudak zerbait da. Hizkuntza akademiako ordutegiak euskaltegienak bezalakoak dira, eta, beraz, ezin naiz klaseetara joan", azaldu du. Hala ere, "erretiratzen naizenean ikasten hasiko naiz", amaitu du esaten Faganek.

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Zenbaki Aholkulariak

EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

- **Juridikoa:**
 - Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak,
 - Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
 - Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
 - Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
- **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

Kapikua OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94



BARAZKIAK lazko San Martin azokako barazki lehiaketako postuen irudi bat.

GOIENKARIA

JAIA > SAN MARTIN FERIA EGUNA

San Martin ferriako hiru lehiaketetan 62 postu izango dira bihar, zapatua

Gazta lehiaketan aurtengo Ordiziako txapelduna egongo da, Jesus Ansola elgoibartarra

Azokaz gain, odoloste-dastatzea, kalejira eta gaztetxoendako ekintzak izango dira zapatuan

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

San Martin feria egunean, etzi, zapatua, 115 postu batuko dira; horietatik 62, hiru lehiaketetan: barazkiak, fruta eta gazta lehiaketak; gainerako 53ak denetari-ko salmenta postuak izango dira. Horrez gain, etorriko diren 115

horietatik 16 Debagoieneko ekoizleak izango dira. Azoka San Martin plazan eta udaletxean, 10:00etan, izango da.

Gazta lehiaketak batzen ditu parte-hartzaile gehien -46, horietatik sei debagoiendarrak-, eta interes berezia piztuko du joan

den eguaztenean Ordiziako Gazta Lehiaketako txapeldunak, Jesus Ansola elgoibartarrak. Haren gazta erdia 6.400 eurotan saldu zen enkantean. Lehiaketako gazta guztiak Idiazabal zigiludunak dira.

Lehiaketetako debagoiendarrak ondokoak izango dira: Maria Egizabal, Kontxita Bere-zibar, Jesus Osa, Jose Lonbide eta Tomas Larrañaga (barazkiak); Kontxita Izagirre eta Jose Lonbide (fruta); Nikolas Seguro-la, Juan Jose Murgiondo, Aitor Unamuno, Jose Ramon Arrieta, Ramon Ugarte eta Nestor Altze-

DATUA

16

DEBAGOIENDAR

Barazki, fruta eta gazta lehiaketetan 12 debagoiendar egongo dira; beste lauk salmenta postuak ipiniko dituzte.

lai (gazta). Horiez gain, salmenta postuak ipiniko dituzte beste lauk: Jose Ramon Arrieta (gazta), Juan Arantzeta (eztia), Fer-

nando Lizarralde (eztia) eta Aranzadi ikastolak, Kilometro-etako arropa saltzeko.

BESTE EKINTZA ASKO

Egun osoan, beste honako ekintzak ere izango dira: 11:30ean, Bergarako trikitilarien kalejira; 12:30ean, odoloste-dastatzea San Martin plazan, Luis M. Rezola, Pello Urtzelai eta Jon Leturiaren eskutik; 13:30ean, sari banaketa; eta 17:30ean, gaztetxoendako zezentxoak eta poniak, plazan, eta Jardun elkarteak antolatutako jolasak eta taillerak, Munibe plazan.



FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2007-2008 ikasturtea
Ikastaroaren hasiera:
urriaren 1a

Izenematea: irailaren 28ra arte
Informazio gehiago: 10:00-
12:00 eta 18:00-20:00

943.76.30.55



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

INDIOAK Txorro Morro taldeko kideak indiarrez mozorrotuta *Luma Gorri* ikuskizunaren emanaldi baten.

GOIENKARIA

BERBENA > AMERIKAKO INDIARREN BIZITZAN GIROTUTAKO IKUSKIZUNA

Umeendako 'Luma Gorri' ikuskizun eta dantzaldia

Jardun elkarteak antolatu du ekitaldia, eta gaur izango da, egubakoitza, Munibe plazan, 18:30ean

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Jardun euskara elkarteak neska-mutikoendako berbena edo dantzaldia antolatu du; gaur, egubakoitza, izango da hori, 18:30ean,

Munibe plazan. Txorro Morro taldeak *Luma Gorri* ikuskizuna eskainiko du eta umeek aukera paregabea izango dute dantzarako, jolaserako, mozorrotzeko eta ondo pasatzeko.

INDIOEN JAIA

Txorro Morro taldearen *Luma Gorri* dantzaldia eta ikuskizuna da Amerikako tribu baten bizitzan girotutako berbena; musika, dantzak eta jolasak uztartzen dituzte ekitaldi horre-

tan. Ikuskizunaren helburua da elkarrekin jolastea eta ondo pasatzea musikaren bitartez: "Ez dugu nahi umeak eserita guri begira egoterik, denok jolastu eta dantzatzea da lortu nahi duguna. Azkenean, leher eginda bukatzen dute ume guztiek", adierazi digu Eneko Abian taldeko kideak.

Gurdiak, totem bat eta indiarren bizitzan girotuko gaituen dekoratua topatuko ditugu ikuskizunean.

GASTRONOMIA > ERREILENO ETA TOSTOIEN KOFRADIA

Hogei bat kofradia elkartuko dira gurean hilaren 16an

Kofradiaren VIII. batzar nagusia egingo dute eta lau ohorezko kide izendatuko dituzte

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Datorren asteko domekan, irailak 16, egingo du Erreileno eta Tostoi Kofradiak VIII. batzar nagusia. Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Portugalgo hogei bat kofradia etorriko dira; guztira, 120 bat lagun elkartuko dira.

OHOREZKO LAU KIDE

Ohi bezala, ohorezko lau kide izendatuko dituzte eta dagoeneko jakinarazi dute zeintzuk izango diren: Bergarako Musika Banda, 175 urte bete ditue-

lako; Zabala jatetxe-ostatua, gastronomiaren alde egindako lanagatik; Jabier Retegi, bere ibilbide profesionalagatik; eta Miguel Gonzalez Bastida, Musika Bandan eta konposatzen egindako lanagatik.

10:45ean kalejira egingo dute txistulariekin eta Musika Bandarekin; 11:00etan meza izango dute eta ondoren desfilea egingo dute. 12:15ean izango da batzar nagusia udaletxean. 13:00etan txikiteoa egingo dute eta 14:30ean bazkaltzera joango dira.



IAZKO EKITALDIA Iazko ohorezko kideak kofradiaren dominarekin. GOIENKARIA



IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

*Marraskia, pintura eta
marrasketa linealean
trebatzea*

Kurtso hasiera: **irailak 18**
Martitzenetan eta
eguenetan **17:30ean**
Iraupena: **ordu eta erdi.**

Zubieta 11, behea
M. Paz Alustiza
Tel.: 943 76 17 32

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

BERGARA
Margoak

Certificado ISO 9001 por



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Mujika
gozotegiaBizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak


Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34



Ondo pasau
San Martinak!



BERGARAKO UDALA



euskara

zure gaitasuna

zure jaia
zure garaia
zure kuraia
zure jarraia
zure soslaia

NAHI BESTE LEKU!
www.aek.org

aek
coach berri

BERGARAKO AKULU AEK

Tel.: 943 77 03 69

ZURE NEURRIRA!

- ▶ 1A MAILA / 3 EGUN ASTEAN / EGUNERO 2 ORDU
- ▶ 1B MAILA / 3 EGUN ASTEAN / EGUNERO 2 ORDU
- ▶ 2. MAILA, AUTOIKASKUNTZA (Programa PERTSONALA + mintza saioa ordu eta erdi astean + tutoretza ordu erdi astean)
- ▶ EGA, AUTOIKASKUNTZA (Programa PERTSONALA + mintza saioa ordu eta erdi astean + tutoretza ordu erdi astero)
- ▶ 4.MAILA / 2 EGUN ASTEAN EGUNERO 2 ORDU ETA ERDI + etxerako lanak eta jarraipena-tutoretza.

GURE SEKRETUA,
KOMUNIKAZIOA

Matrikula zabalik
irailaren 27ra arte

Udalaren laguntzaz
Beka sistema

Manu Diaz > Bergara futbol taldeko entrenatzailea

"Zaleak Agorrosinen ikusi gura ditugu berriro, taldea jarraitzen"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hausnarketa sakona eginda, Bergarako zuzendaritzak herriko jokalariekin osatutako taldea egitea erabaki du. Eta, proiektu berria gidatzeko ere etxeko entrenatzailea aukeratu dute, iaz ohorezko kadeteekin lan egin zuen Manu Diaz (Bergara, 1965). Diazek onartu digu oso gustura dagoela orain arte egindako denboraldi-aurrearekin.

Ez da gauza bera ohorezko kadeteak edo talde nagusia entrenatzea, ala?

Ez da gauza bera, ez. Egia esateko, egiten den lana, intentsitatea... nahiko antzerakoa da. Hala ere, jokalarien jarrera eta mentalitatea erabat ezberdinak dira, eta, alde horretatik, nagusiekin lan egitea errazagoa da. Kadetei erakutsi egin behar zaie futboleko jokatzeko, eta nagusiekin dinamizatzaile lana egiten dugu; azken horiek badakite futboleko, eta gure lana da daukaten gaitasunari errendimendua ateratzea.

Bergarak etxeko jokalariekin bakarrik jokatu du.

Bai. Alde horretatik nahiko erabaki erradikala izan da, baina taldeak behar zuen horrelako

zerbait. Iaz, kanpoko zortzi jokari izanda ere taldeak hamargarren amaitu zuen. Hala, emaitza hori lortzeko hobe da etxeko jokalariekin jokatzeko, behetik datozenei lekua egitea.

Hori da helburua?

Bai, helburuetako bat. Bergarak lan ona egiten du harrobietarekin, hamabi talde ditugu kategoria txikiagoetan, ohorezko mailatan lehian dabilzanak. Baina azken urteotan talde horiek galdu egin dute goiko erreferentzia, eta hori da lortu gura duguna. Gazteek ikus dezatela lana ongi egiten badute Agorrosinen jokatu ahal izango dutela, talde nagusian lekua izango dutela.

"Iaz kanpoko zortzi jokalariekin jokatu genuen, eta, hala ere, hamargarren izan ginen"

"Horretarako hobe da etxekoekin jokatzeko; harrobietako erreferentzia izan dezaten"

Proiektu berria izanda, goiz da preferentzia begiratzeko?

Nire ustez, bai. Oso argi daukat Bergarak preferentzia egon behar duela, Mondrarekin, Aretxabaletarekin edo Aloñarekin lehian, baina oso talde gaztea egin dugu. Zuzendaritzak ere ez du helburu hori ezarri; emaitzak epe motzean lortu gura izatea akatsa izan daiteke, jakinda aurtengo ere lauzpabost kontrario gogor izango ditugula erregionalen.

Aurtengo baditugu beste helburu batzuk, eta horietako bat da Bergarako zaleak berriro ere harmailetan ilusioz ikustea, herriko jokalariekin osatutako taldea jarraitzen.


Zer moduz orain arteko denboraldi-aurreko lana?

Oso gustura nago, asko poztu nauten gauzak ikusi ditudalako. Esan behar da taldea dagoeneko itxita dagoela eta ondo entrenatu garena. Bestalde, oso gustura geratu naiz Bergara Hirian egindako txapelketarekin, nahiz eta Ermuaren kontra 1-2 galdu. Txapelketa aberasgarria izan da, besteak beste zaleak ikusi ditudalako harmailetan.



Bergarako entrenatzaile berria Agorrosinen, astelehenean.

X.U.



ARIZNOA ELKARTEA

Kurtso hasiera: IRAILAK 17 Astelehena
Ordutegiak: Agorrosinen eta polikiroldegian daude.

nire bidaia hura

Edurne Arregi

Australian izan zen > 2004ko udan

"Egun guztia mozkortuta ematen dute hango aborigenek, erabat baztertuta daude"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Hiru urte pasa diren arren, oso ondo gogoratzen du Edurne Arregi 2004ko udan Australiara egindako eztei-bidaia. Herrialdeak duen aniztasunarekin harrirituta geratu zen bikotea. Han ohikoa den legez, ibilbide laburretarako karabana eta luzeetarako hegazkina erabili zuten.

Hilabete osoa eman zuten Australian. "Naturarekin loturiko bidaiak gustatzen zaizkigu, eta, horren urruti dagoenez, eztei-bidaian ez bazen sekula joango ez ginela bagenekien", azaldu du Arregik. Hortaz, gida-liburua erosi eta bidaia-agentzia baten bidez bikoteak berak antolatutako bidaia hartu zuten.

Uztailaren 18an irten ziren Bergaratik. Bilbotik Londrese-rantz abiatu ziren eta handik Thaiandiako hiriburu Bangkokera. 24 ordu pasatxoko hegaldi luzea egin ostean, Sidneyra iritsi ziren. "Nik, behintzat, oso ondo egin nuen hegaldia. Ez zitzaidan batere astuna egin", dio Arregik. Karabana zain zuten.

SYDNEYN, METROA GAINETIK

Bost zona ezagutu zituzten, bakoitzean bospasei egun eginez. Lehenengoak Sydneyn bertan eman zituzten. Inguruko mendietara joan ziren. "Han sekulako hotza egiten zuen", gogoratu du. Hiriburua ezagutzeko astia ere izan zuten. Arregiri izugarri gustatu zitzaion hiria: "Ikusteko polita da. Hiriburu berria da eta metroa gainetik doa. Hori bai, oso estresagarria da, zarata eta mugimendu handia dago-eta".

Handik hegoalderantz joan ziren, Adelaidarantz. "Euskal Herria bezala da, baina dimentsio handietan", azaldu du. "Abeltzain batek 6.000 ardi eta 500 behi izan ditzake", jakinarazi du. Han ikusi zituzten, lehen aldiz, kanguruak. Baita pinguinoak ere. Hegazkin batekin Alice Spring-sera joan ziren ondoren. "Deser-



Irudian, Edurne Arregi.

"Adelaidan artzain bakar batek 6.000 ardi eta 500 behi izan ditzake"

"Barnealdeko umeek frekuentzia bidez jasotzen dituzte klaseak"

tua zen, eta Uluru harri kokorrra ikusi genuen. Ikusteko polita da, baina baita astuna ere, zerbait ikusteko kilometro asko egin behar dira-eta", esan du.

ABORIGENEN EGOERA

Bidaia osotik gutxien gustatu zitzaiona han ikusi zuen. Australiako aborigenen egoera negargarria, hain zuzen. "Erakundeek emandako dirua edateko erabiltzen dute. Egun guztia mozkortuta ematen dute eta hori ikustea oso gogorra da. Erabat baztertuta daude", gogoratu du Arregik.

Darwinen ere izan ziren. Zona tropikal horretan parke naturalak ikusi zituzten. Horretarako, helikoptero bat alokatu zuten. Han helikopteroak erabiltzea ohikoa dela dio. Australia horren handia denez, medikuak, adibidez, horietan mugitzen direla adierazi du. Krokodiloak gertutik ezagutzeko aukera ere izan zuten. Hori bai, itsasontzitik.

Cairnsen amaitu zuten bidaia. "Sekulako hondartzak dituen lekua da. Surfari asko joaten da hara", esan du. Koralkusgarriak gogoratzen ditu bereziki handik. Sydneyko bizilagunak oporretan Cairnsera joaten direla dio. "Karabana hartu eta hara doaz. Australiarrek ez dira herrialdeetik mugitzen", azaldu du.

Oso pozik bueltatu zen handik Arregi, eta, ahal izanez gero, berriro joatea gustatuko litzaiokeela dio. "Gauza asko ikusi barik utzi genituen, ez genuen astirik izan guztia ikusteko", gogoratu du. "Barnealdean, adibidez, ez dago eskolarik. Umeek frekuentzia bidez jasotzen dituzte klaseak. Haien etxeak urrutiegi daude egunero eskolara joan ahal izateko. Dimentsioak ikaragarriak dira han", azpimarratu du.

Amaitu aurretik, naturaz gozatzeko gustuko duen edonori Australiara joateko gonbidapena egin gura izan dio Arregik.



Edurne Arregi eta Iñigo Almorza Darwinen, krokodiloak ikusten.

bere ustez



Jon Suinaga

Haurren ipuin bat

Behin batean, errege gaizto batek herri bat gobernatzen zuen. Biztanleei zergak bilduta esker aberatsa zen.

Egun baten neska eder batekin, Ainhize izenekoa, behatza egin eta lurrera jausi zen. Ondotik pasatzen zen gazte ziratsak jaikitzen lagundu zion. Neurrigabeko ekarpena sortu zen eta berehala itxuragabe maitemindu ziren. Galaia erregearen semea zen, betiereko amodioa eta bere aberastasuna neskatilarekin partitzea promes egin zuen.

"Egun baten, gaztea neskatoaren aurrean aurkeztu zen eta errege izateari uko egin zuela esan zion"

Printzea zela jakin zuenean, Ainhize nahigabetu egin zen. Harreman hori ezinezkoa zela oso desberdinak zirelako adierazi zuen. Herria esplotatuz pilatutako ondasunak ez zituela nahi argitu zion, eta negarrez printzea abandonatu zuen. Gutxira erregea larri gaixotu zen eta printzeak monarka berriaren koroa hartu behar izan zuen. Ainhizek izugarri maite zuen gaztea baina bere printzpioengatik ezin zuen erlazioa mantendu.

Egun baten, gaztea neskatoaren aurrean aurkeztu zen eta errege izateari uko egin zio- la adierazi zion. Gaizki zegoe- la herria zapaltzea aitortu eta bere amodioa deklaratu zion. Ainhizek besarkatu zuen gaztea.

Betirako elkar bizi eta zoriontsuak izan ziren.



BELIRE EskULANAK

IRENE MARTINEZ

Helduendako ikastaroak (iraila/urria)

- Pinturan trebatzea
- Olio akrilikoa
- Eskulanak
- Bisuteria

Oxirondo 4 • 20570 **BERGARA** • Tel.: 651 70 81 70





SHOTOKAN KARATE-DO

12 urte karatea irakasten



KARATE , KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenetariko da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratuta.

HELBURUAK

Klubak epe luzera begira egiten du. Gure iritziz, funtsezkoa da gure ikasleak kirolaren garrantziaz ohartzea (karateaz, kasu honetan) eta kirola egitearen onura guztiez kontzientzia hartzea. Horrez gain, kirola egiteko ohiturak sortarazten ditugu. Karatea kirol lehiakorra dela onarturik, geure ikasleak lehiatzera ere bultzatzen ditugu pixkanaka, betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan. Gure filosofian eta lan metodologikoan berebiziko garrantzia dute ez etsitzeak eta une oro hobetzen ahalegintzeak. Kirolariek, banaka edo taldean, erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez, lagunartekotasuna, adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz .

IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BERRI BAT JARRIKO DUGU ABIAN

Programa honekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikusi dezan ze aukera dituen. Hiru hilabetetik behin txosten bat bidaliko diegu gurasoei, bertan ikasle bakoitzaren informazioa eta talde osoarena agertuko dira.

SHOTOKAN KARATE-DO KLUBA

Hamabi urte karatea irakasten. Kluba sortu genuenetik eguneroko lana eta irmotasuna izan dira geure lehentasunak, eta hori dela eta zorionez urtero-urtero lortzen ari gara kirol emaitza on mordoia. Hala ere, kirol arrakasta ez da garrantzitsuena, ez lehen ez orain. Ahalik eta ume gehienek lehia dezaten nahi dugu, baina emaitzei erreparatu barik.

Parte-hartzaileak garaile dira parte-hartze soilagatik.

IRAKASLEAK

Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko. Guztiak tituludunak.

KARATEA : HAURTZAROKO HEZIKETA OSAGARRIA

Karateak beste hainbat kirolek baino gehiago laguntzen du umeen heziketa-prozesua garatzen eta azkartzen. Osasun fisikoa eta psikologikoa hobetzen dituen gero, umeek atarramentu handiagoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan. Gure gizartearen geroari begira, beraz, karatearen ekarpenik onena kirolarien heziketaren garapen osoa izango da .

Karatean, Kontzentrazioa lantzen da, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira, Konfiantza eta segurtasuna hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona.

Karate eskolak IRAILAREN 10ean hasiko dira:

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era
Nagusiak: 19:30etik 20:30era

**Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz
Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia entrenamendu orduetan.**

LANAK > UR-DEPOSITUA HANDITZEN

Urez hornitzen gaituen depositua handituko dute

Depositua 2.000 metro kubikoko edukiera du, eta egunero 2.300 metro kubiko kontsumitzen dira

Lanok bederatzi hilabete inguru iraungo dute, eta bitartean depositu zaharra erabiliko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Urkulu urtegi bidean dagoen ur-depositua handitzen hasiko dira laster. Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak egingo ditu lanok, Udalak eskatuta. Eta aurrekontua ia milioi batekoa da.

BESTE DEPOSITU BAT

Aretxabaleta urez hornitzen duen ur-depositua 2.000 metro kubiko gordetzeko edukiera du. Herriak, ostera, 2.300 metro kubiko kontsumitzen ditu egunero; ondorioz, ezin da urik gordeta eduki orain dagoen lekuan.

Horregatik, depositu handiagoa behar duela herriak esan zion Udalak Aldundiari orain dela hilabete batzuk. Aldundiak onartu, eta uztaile bukaeran esleitu zituen lanok. Donostian egoitza duen Construcciones Murias SA enpresak egingo ditu, eta 977.670 euroko kostua aurreikusi dute.

Orain dagoen deposituaren alboan edukiera bereko beste bat eraikiko dute; hau da, 2.000 metro kubikoko beste depositu bat. Hala, ur-deposituaren edukiera 4.000 metro kubikokoa izango da bukatutakoan. "Bigarren depositua egin behar dutelako da



UR-DEPOSITUA Txiki geratu da Urkulura bidean dagoen depositua.

M.A.

lanen kostua hain handia", argitu digute Udaleko Hirigintza Sailean. Gainera, depositu bietako balbulendako eta kontrolerako gelak izango dituen txabola egingo dute aldamenean.

BITARTEAN, DEPOSITU ZAHARRA

Lanok, ezustekorik ezean, bederatzi hilabete inguru iraungo dute. Bien bitartean, ur-depositu zaharra erabiliko du Udalak Urkulutik datorren ura etxeeta-

ra bidaltzeko. Urkulurako bidean dago hura ere, oraingoa baino zertxobait beherago, eta 240 metro kubikorendako edukiera du. "Aldaketa horrek ez luke inolako eragozpenik sortu beharko herriko ur hornikuntzan", adierazi dute Hirigintza Saileko arduradunek. Lanok lehenbailehen hasiko dituztelakoan daude Udalean, eta, hala, datorren urteko udarako bukatuta egongo litzateke.

JAIK

Gaur hasita Andramaixa jaiak Areantzan

M.A. > ARETXABAleta

Martin Kabarrixa txorimaloa iturriko erromaran jarrita hasiko dituzte Agorreko Andramaixak gaur Areantza auzoan. 19:00etan, Areantzako kanpai-jole eskola aurkeztuko dute, elizan. Ostean mokadutxoak jan eta txistulariekin auzojiran joango dira. 20:30ean, auzo afaria egingo dute.

Txistulari doinuek esnatuko dituzte zapatuan, eta 12:00etan meza nagusia esango dute abesbatzaren laguntzarekin. Luntxa eskainiko diete bertaratutakoei, soinu-jole eta buruhandiak lagun dituztela. Eta 13:30ean, 23. jinkana txapelketa jokatu dute. Ez da izango eguneko txapelketa bakarra, 17:45ean jolasak egingo dituzte-eta: txapel jaurtiketa, itsulapikoa betetzea, iltzak sartzea... eta paperezko hegazkin lehiaketa. 20:00etan, ostera, 21. aro-sartze txapelketa jokatu dute.

Eta domekan, Kurtzebarri-ra joango dira, 09:30ean irten da iturriko erromaratik.

Markolen dago airearen kalitatea neurtzen duen furgoneta

Markole auzoan dago airearen kalitatea neurtzeko jarri duten furgoneta abuztuko lehen astea ezker, futbol zelai alboan. Udaberrian ere egon zen bertan, baina auzotarrek eskatu zuten hego haizea dabilenean jartzeko, orduan jasaten dute-eta injektzioa aluminioan egin duen lantegiaren kutsadura. Hilabetea bukatu bitartean egongo da furgoneta.



M.A.

> OSPAKIZUNA

Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dute domekan, hilak 9

Urtero legez, Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dugu aretxabaletarrok iraileko bigarren domekan, hilak 9. Eguraldiak lagun eginez gero herritar ugari igoko da Mendiolatik Kurtzebarriara.

Hala, 10:30ean salda beroa eskainiko diete Murruxiko Mendizale Elkarteak kideek tontorrera igotako guztiei. 11:00etan meza esango dute, eta ostean mokadutxoak banatu: txorizoa eta gazta, ardoak eta xanpainak lagun egingo dira. Eta ospakizuna bukatzeko, etxeranzko bidean, 13:00etan, bermuta hartuko dute Mendiolan.



EXPRES

TABERNA

*Gosariak astegunetan!!
Goizeko 7:00etatik aurrera!*

Santakurtz 16 • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 33 76

FUTBOL ZELAIA > LANAK BUKATZEN

Futbol zelaiko lanak bukatzekotan daudela hasi dute denboraldia UDAko futbol taldeek

Uste baina beranduago bukatu dituzte lanok, baina denboraldia hasteko ez dago arazorik

Preferenteko taldeak kanpoan jokatu du lehen partidua, Vasconiaren aurka

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Txikikeria batzuk bakarrik geratzen dira Ibarra futbol zelaiko lanak guztiz bukatzeko. Hala, futbol taldeek ez dute inolako arazorik izango 2007-2008 denboraldia hasteko.

EGURALDI ESKASA ERRUDUN

Uste baina gehiago iraun dute Ibarra futbol zelaiko belarra aldatzeko lanek. Zaragozako Mondo Iberica enpresak agindu zien 27 egunetan egingo zituela lanok, eta abuztuaren erdirako bukatuta egongo zirela uste izan zuten UDAko eta Udaleko arduradunek. Eguraldi eskasa tarteko, atzeratu egin ziren lanok, baina dagoeneko erabiltzeko moduan dago, bai entrenamendu saioak egiteko, bai partidua jokatzeko. Belarrak beste itxura bat dauka orain, eta ureztatze sistema berri-tzailea jarri diote, kainoi bidez; ate-sareak eta ordezkoen aulkiak ere aldatu dituzte.



ENTRENATZEN Jokalariak gogotsu ekin diete entrenamendu saioei berritutako futbol zelaiari.

M.A.

UDAko arduradunei oraindik ez dizkiete zehaztu zeintzuk izango diren zelaiak beharko dituen mantentze-lanak; hala ere, presidentek, Jokin Antxiak, ez du uste aparteko lanik beharko dutenik: orraztu, ureztatuta eta abar; hau da, betikoak.

PREFERENTEA, DONOSTIARA

Taldee dagokienez, ez dago berrikuntzarik, iazko berberek jokatu dute denboraldi honetan. Hori bai, futbol eskola jarri dute abian 1997 eta 1999. urte bitartean jaiotako neska-mutikoekin, eta datorren astelehenean

hasiko dituzte entrenamendu saioak.

Futbol talde batzuek dagoeneko hasi dute denboraldia, eta gainerakoek aste bukaera honetan egingo dute. Zein erronka dituzten galdetu diogu Antxiari, eta talde bakoitzak berea duela adierazi digu: "Taldea bakoitzak emaitzaren aurrean helburu bat dauka, eta gero talde guztiek daukate erroka bat, jarrera hobetzeko hain zuzen".

Preferente edo afizionatuen goren mailan jokatzen duen taldeak domekan hasiko du denboraldia, eta kanpoan jokatu du lehen partidua. Donostiara joango da UDAko jokalaririk izandako Igor Arenazak eta Gaizka Herizek gidatzen duten taldea, Vasconiaren aurka jokatzera. Eta preferenteko taldearen helburua argi dauka UDAko presidentek: "Lehen lau sailkatuen artean geratzea".

> INTERNET

Dagoeneko zabalik dago KZgunea, irailean arratsaldeetan

Astelehenean zabaldu zuten KZgunea oporrak bukatu eta gero, eta irailean 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Hainbat ikastaro antolatu dituzte: sinadura elektronikoa zertarako erabili, irudi digitalak zelan landu, posta elektronikoa bidez komunikatu eta beste batzuk.

Ikastaroez gain, oposizio-erako baliagarria den IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte. Hona hemen egunak: hilaren 13an, 18:00etan; eta 18an eta 28an, 16:00etan.

> LIBURUTEGIA

Udako ordutegia dauka oraindik Udal Liburutegiak

Udal Liburutegia zabalik dago abuztuaren 27a ezkerreko. Hala ere, oraindik udako ordutegia izango du irailaren 14a arte. Hona hemen ordutegia: astelehen, eguazten eta egubakoitzetan goizez bakarrik egongo da zabalik, 10:00etatik 14:00etara; martitzen eta eguenetan, ostera, goizez eta arratsaldean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Irailean 17tik aurrera ohiko ordutegia izango du: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

> MUSIKA

Hilaren 12an hasiko du kurtsoa Leizarra musika eskolak

Leizarra musika eskolak hilaren 12an, eguaztena, hasiko du ikasturtea. Musikaren hizkuntza, euskal dantzak eta hainbat instrumenturen ezagutzak irakasten dituzte. Ikasleek aurreko egunen, hilaren 11n, pasatu beharko dute eskolatik ordutegi berri izateko; 17:00etatik 20:00etara egongo dira ikusgai.

Orain arte moduan Otalora kalean hasiko du ikasturtea musika eskolak, baina gero Santa Kurtz kaleko eraikin berrira aldatuko da.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

RainTattoo



MANTENDU DEBAGOIENA
EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!

Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/rainintattoo

Jou Diaz



Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

MAPFRE



BADATUZ BEHERAPENAK MAPFRERA!

- * %60ko deskontua automobil aseguruetan.
- * %25erainoko deskontua etxebizitza aseguruetan.

Errekabarren 3 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TEL. 943 79 32 34

ZERBITZUAK > KIROLDEGIAREN INAUGURAZIOA

Hilaren 21ean inauguratuko dute kiroldegiaren zati berria

Betiko tokitik sartuko da gero ere; sarreran bi tornu jarriko dituzte, gune bustira edo lehorrera joateko

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Irailaren 21ean inauguratuko dituzte Zubikoa kiroldegiaren instalazio berriak. Eraikin berriak izango ditu bi gimnasio eta areto futboleko, saskibaloian eta eskubaloian jokatzeko balio duen kantxa bat, aldagelak eta komunak. Taberna berria ere eraikinaren zati berrian egongo da gero.

SARRERA, ZAHARRETIK

Instalazio berriak zabaltzen dituztenean ere, orain arteko tokitik sartuko da Zubikoa kiroldegira. "Harrerako mahaia tokiz aldatuko dugu eta bi tornu jarriko ditugu, bat igerilekuetara sartzeko eta bestea instalazio leho-



APARKALEKUA San Juan kaletik izango du sarrera Zubikoa kiroldegi azpian egin duten aparkaleku berriak.

O.E.

rretara joateko, baina sarrera betikoa izango da, bai", dio Gerardo Eskarzak, Kirol teknikariak. Bestalde, orain taberna dagoen tokian karatea egiteko gela egon-

go da eta taberna berria, oraingoa baino txikiagoa, eraikin berrian egongo da. Bazkaltzeko edo afaltzeko plater konbinatuak ere emango dituzte tabernan.

Instalazio berriein batera, aparkalekua ere inauguratuko dute. Gaur egun 1.200 erabiltzaile ditu Zubikoak egunero astelehenetik egubakoitzera.

SALAKETA > ABUZTUAREN 30EKO GERTAERA

Sirena eta bi kartutxo jaso ditu herritar batek etxean

Ezker abertzaleak salaketa jarri du aste honetan Bergarako epaitegian

O.E. > OÑATI

Ezker Abertzaleak prentsaren aurrean salatu du ezker abertzaleko kide eta udal ordezkari ohi batek anbulantziek izaten duten moduko sirena bat, ohar bat eta bi kartutxo etxean jaso dituela. Abuztuaren 30ean jaso zituen. Ezker Abertzalea-

ren esanetan, ez da lehen aldia horrelakoak gertatu direla Oñatin, baita pertsona berari ere, eta prentsaurrekoarekin "gertaera salatu eta herriari jakinarazi gura" izan dio, "mehatxu hauek egiten dituztenak ez direlako umekieretan ibiltzen". "Guk beti erabili dugun arma bakarra hitza izan da", esan du Marijo Altubek ezker abertzalearen izenean.

Bergarako epaitegian salaketa jarri du ezker abertzaleak eta hilaren 26ko osoko bilkuran iritzia eskatuko dio alderdi politiko bakoitzari.



Ezker Abertzaleko hainbat kide martitzeneko prentsaurrekoan.

GOIENKARIA

> TURISMOA

Udako hiru hilabetetan 8.046 bisitari etorri dira

Turismo bulegoak eman dituen datuen arabera, 8.046 bisitari etorri dira Oñatira ekainetik abuztura, 2006an baino 1.049 gehiago. Joan den urtearekin konparatuta, abuztuko emaitzak antzerakoak izan dira, baina ekainean eta uztailean gorakada igarri dute. Natur ibilbideetan 55 lagunek hartu dute parte.

Jatorriari buruz, Kataluniatik, Madrildik eta Valentziatik etorri dira turista asko, baita Frantziatik, Erresuma Batutik, Amerikatik eta Italiatik ere.

> SAN MIGELAK

Hasi dituzte jaietako bi danborradetako entseguak

Hasi dituzte San Migel jaietako danborradetako entseguak. Haurren danborrada-koak martitzen eta eguenetan egingo dituzte 19:00etatik 20:00etara; dantzariak astelehen eta eguaztenetan joango dira Errekaldeko lokalera 20:00etatik 21:00etara. Nagusien danborradakoak datorren astean hasiko dituzte. Umeen arropa banatzen ere hasi dira, eta komeni da ume guztiak joatea entseguetara. Hilaren 20an eta 27an udal bandarekin entseutuko dute.

> EUSKARA

Udal Euskaltegiak matrikulazio epea zabaldu du

Udal Euskaltegiak zabaldu du matrikulazio kanpaina. Hilaren 21a arte egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara. Euskaltegiaren bertan, Internet bidez edo faxa erabilita egin daiteke matrikula. Ikasteko bi modu eskainiko ditu Bedita Larrakoetxea euskaltegiak: irakaslearekin edo Internet bidez. Informazio gehiago behar duenak telefono honetara dei dezake: 943 78 24 96.



STEP SPINNIN
BODY-COMBAT BODY-BALANCE
BODY-JAM BODY-ATTACK
BODY-PUMP FITNESS GELA

MATRIKULA DOAN
urriaren 22ra arte

INDAR GIMNASIOA
Bidebarrieta kalea 8 • OÑATI



ABIADURA HANDIKO TRENA > ALEGAZIOAK AURKEZTUTA

AHTren lanei alegazioak jarri dizkiete Udalak, elizateek eta lursailen jabeek

Mazmela, Zarimutz eta Marin elizateetako 137 lursaili eragingo diete lanek; salatu dute ez dutela proiektua behar bezala aztertzeko astirik eduki

MIRARI ALTUBE > ESKORIATZA

Alegazioak aurkeztu dizkiete Abiadura Handiko Trenaren lanei eskoriatzarrek. Udalak, lursailen jabeek eta hiru auzotako ordezkariak aurkeztu dituzte.

EPEAREN LUZAPEN ESKE

Abuztuaren 27an bukatu zen AHTren lanei alegazioak aurkezteko epea. Opor sasoa izan arren, Eskoriatzako Udalak bilera egin zuen gaia aztertzeko. Pedro Lasagabaster alkateak halaxe azaldu digu: "Erabaki genuen alegazioa aurkezte, eta bozeramaileen batzordeak eta alkateak sinatuta bidali dugu. Alderdi guztiek sinatutako idatzia izan da". Aipatutako idatzian, Udalak salatu du abuztuaren zabaldu dutela alegazioendako epea eta eskatu du epe hori luzatzeko; ez hori bakarrik, proiektua behar bezala aztertzeko aukera emateko. "Guk eskaera egin dugu, baina alegazioen epea zabal-



LURREN DESJABETZEAK lazko otsailean lurren desjabetzeen berri ematera etorri ziren udaletxera.

IKER BARANDIARAN

du aurretik, dagoeneko idatzia jasota geneukan Sustapen Ministeriotik epea ez zutela luzatuko esanaz", adierazi du alkateak.

62 JABEREN LURSAILAK

Marin, Zarimutz eta Mazmela elizateetako 137 lursailetatik pasatuko da AHT, Eskoriatzan. Guztira

62 jaberren lurak ukituko ditu. Hori horrela, jabeek alegazioak aurkeztu dituzte eta elizateek ere bai, nork berea. Onbideko presi-

dente Juan Carlos Belokik hauxe azaldu digu: "Elizate bakoitzak elkarte bat dauka, eta elkarte horrek, auzo alkateak eta Onbidek sinatuta joan dira alegazio horiek". Gainera, 40 bat alegazio zuzenean eroan zituzten gobernuaren azpiordezkarietara, Donostiara, Onbideren izenean.

Mazmela eta Marin artean bost tunel eta hiru zubi egingo dituzte. "Azpiegiturak berak lur batzuk kenduko dizkigu, baina lanek askoz lur gehiagori eragingo diete, eta elizateendako izugarria izango da", azaldu du Belokik, eta jarraitu du: "Elizatearen eta base-ritarren bideak erabiliko dituzte, zabortegeak egin -Mazmelan 4 milioi metro kubikokoa-, zarata jasan beharko dugu, basoetarako bideak moztuko dizkigute..." Horregatik, bide, iturri, baso eta gainerako guztien inbentarioa egin dezatela eskatu dute lanak hasi aurretik.

Irail erditik aurrera hasiko dira iristen alegazioen erantzunak, eta ondoren lurren desjabetzeak etorriko dira.

Hasi dira Santa Marinako etxeak eraikitzen

Oraintsu hasi dira Santa Marinako etxebizitza tasatuak egiten. Hondeatze makina dabil ingurua zulatzen, eta etxeen egitura egiten hasiko dira gero. Bistaratu duten errekeren ezkerreko aldean eraikiko dituzte etxeok, eta eskuman, plaza eta kioskoa egin dituzte. Ekainean zozketatu zituzten etxebizitzok eta bi urtean bukatuta egotea aurreikusi dute.



M.A.

Villar

Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

ILE APAINDEGIA



APAINDU

San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40



> AUTOBUSA

Autobusa egongo da bihar, Dorletara meza entzutera joateko

Autobusa antolatu du parrokiak bihar, Dorletako Amaren eguna, Gatzagako Dorleta santutegian esango duten meza nagusia entzutera joateko. 11:15ean aterako da Eskoriatzatik, eta meza ostean itzuli. Txartelak Viteri jantzi dendan dituzte salgai 8 euroren truke.

> ERAKUSKETA

Irailaren 16ra arte Espainiako gerraren gaineko erakusketa

Espainiako gerra irakaskuntzan nola landu duten ezagutzeko aukera eskaini du Ibarraundi museoak. *Irakatsi gabeko ikasgaia* du izena, eta Gernikako bakearen museoak gertatutako erakusketa da. Hain zuzen ere, ekaina ezker dago ikusgai, eta hilaren 16an bukatuko da.

> DIRULAGUNTZAK

Laguntzak gizarte zerbitzuetako jarduerak garatzeko

Gizarte zerbitzuetan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko talde eta elkarteendako dirulaguntzak arautu ditu Udalak. Abuztuaren 6ko GAOn argitaratu zituen oinarriak, eta zein agiri aurkeztu behar duten azaldu zuen. Eskaraker eta agiriak udaldez aurkeztu behar dira.

> ZERBITZUAK

Udaletxeko arreta zerbitzuak udako ordutegia du

Abuztua pasatu da, baina udaletxeko arreta zerbitzuak oraindik udako ordutegia du: 10:00etatik 13:30era. Urritik aurrera eguenetan 15:00etatik 17:00etara ere zabalduko dute.

Kultura etxea, liburutegia eta kiroldegia, berriz, zabalik daude eta ohiko ordutegia dute.

MUSIKA ESKOLA > IKASTURTE HASIERA

Astelehenean hasiko du ikasturtea Beheko Errota musika eskolak

Eskolak 190 ikasle inguru ditu, eta gaur, egubakoitza, ordutegiak banatuko dizkiete

Musikaren hizkuntza, euskal dantzak, kantua eta instrumentuen ezagutza eskaintzen dituzte

MIRARI ALTUBE > ESKORIATZA

Gaur banatuko dizkiete ikasturteko ordutegiak ikasleei Beheko Errota musika eskolan. Eta astelehenean lanean hasiko dira.

KANTUAN ETA DANTZAN

Musikaren hizkuntza, euskal dantzak, kantua eta instrumentuen ezagutza eskaintzen dizkie eskoriatzarrei eskolak. Araceli Telletxea arrasatearrak 10 urte daramatza zuzendari lanetan, eta eskaintzen berri eman digu: "4 urterekin has daitezke musika

ikasten eta dantzan, eta 16 urterekin kantuan; benetan interes handia dago kantuan ikasteko".

Bestalde, 11 instrumenturen ezagutzak eskaintzen ditu, tartean pianoa, perkusioa, gitarra eta tronpeta. "Haizezkoak aukeratzten dituztenek bandan jotzeko aukera dute gero, eta gainerakoekin beste erakustaldi batzuk egiten ditugu", dio zuzendariak. Eta euskal dantzak ikasten 70en bat ume eta heldu dabil.

Matrikulatzeko epea oraindik zabalik daukate.



ARACELI TELLETXEA Beheko Errota musika eskolako zuzendaria.

M.A.

argazki zaharra

Irailan Arantzazura, otoitz egitera

Arantzazuko Amaren egunaren bueltan, irailak 9, Arantzazura erromes joateko ohitura gordetzen dute herri askok. Eskoriatzarrak hilaren 23an joango dira, domeka. Sasoi baten erromes bakarrik ez, bertara egun batzuetan otoitz egitera joaten ziren. Halaxe joan zen argazkiko neska koadrila, 1951. urtean. Irailaren 8tik 14ra bitartean egon ziren gogojardunak egiten.

Argazkia: Antonio Altube.

Testua: Goienkaria

Urtea: 1951.



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA

943 71 40 63

bere ustez



Joseba Lezeta

Iraila eta sindromea

Oporretatik etorritako lagunak ondo zaindu behar dira. Oporren ondorengo sindromeak gogor joko omen die.

A zer nolako putzak ateratu dituzten buzoa jantzi eta makina aurrean jarri direnek! Baita ordenagailu aurrean eseritakoek ere. A zer nolako estresa!

Hilabete osoa firin-faran eman, ia ardurarik gabe, altuenera emaztearekin, umeekin edota neskekin eztabaidaren bat izanda, eta orain hau.

"A zelako putzak ateratu dituzten buzoa jantzi eta makina aurrean jarri direnek!"

Iraila ei da urteko hilabeterik okerrena XXI. mende hasiera honetan. Lehen, abuztuan dirutzak xahutzen zirelako zen aldapa gogorra irailakoa. Gaur egun, lanera itzultzeak dakarren ondoreza gehitu behar zaio aldapa gogor horri.

Ez dago eskubiderik. Lanera joan behar eta, gainera, baja hartzeko bezainbeste sindromeak jo.

Gizarte modernoaren gorabeherak ditugu. Egokitu egin beharko dugu. Dena dela, oraindik ezagutzekotan nago irailako krisiari aurre egiteko oporrik hartu barik geratu denik.

XXII. menderako laga beharko dugu moda berri hori. Etorriko da hori ere, bai. Akaso.

ONDAREA > ERRUKIZKO AMAREN PARROKIA

Irailean hasiko dira parrokia eraberritzen

Garabiarendako oinarria jarri dute dagoeneko; zortzi hilabete iraungo dute lanek eta frontoitik eskolarako bidea moztuta egongo da denbora horretan

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko lanen lehen fasea hasitar dago; teilatua eraberritu eta fatxada osoa txukunduko dute lehendabiziko fase horretan. Bigarrenen, barruko konponketak egingo dituzte.

Abuztuan hasi ziren garabiarendako oinarria jartzen; zementuzko oinarri hori jarri dute elizaren atzeko aldean, frontoia eta eskola lotzen dituen kalean. Guipuzcoana de Reformas enpresak egingo ditu lehen faseko lanak; zortzi hilabeteko epea du enpresa horrek lanak egiteko.

KALEA MOZTUTA

Lanek irauten duten bitartean guztiz moztuta egongo da kalea. Erabaki horixe hartu du oraingo astean Udaleko Hirigintza batzordeak. Hasiera baten Uda-



GARABIA Elizaren atzeko aldean jarriko dute garabia.

A.I.

laren asmoa zen lanen arduradunei eskatzea pasatzeko tokia lagatzeko. Azkenean, baina, erabaki dute kalea guztiz itxita egongo dela zortzi hilabeteotan. Horren

arrazoia honakoa da, Pedro Iturbe alkateak azaldu duenez: "Garabiaren inguruan ibiltzea arriskutsua izan daiteke; arrisku hori ekiditea da erabakiaren arrazoia".



JUANLU ARANBURU

Idiakes-Sanchez garaile frontenisean

Herriko Frontenis txapelketa jokatu dute aurreko lehen aldiz. Uztailaren 29an jokatu zuten finala; Mikel Idiakes *Ezki*-k eta Sergio Sanchez *Txurro*-k 40-33 irabazi zieten Andoni Rodriguez eta Eñaut Arantzetari. Guztira hamahiru bikotek hartu dute parte lehendabiziko txapelketa honetan, eta aurrerantzean antolatzen jarraitzeko asmoa azaldu dute.

ABUZTUA > ARGITERIA ARAZOAK

Argi barik egon dira hainbat kaletan abuztuan

Beheko auzoan eta Zurrategin izan du eragina kaleko argiteria arazoak

A.I. > ANTZUOLA

Oporraldiak eman digun berri azpimarragarriena izan da hainbat arazo sortu direla kaleko argiteriarekin. Beheko auzoan eta Zurrategin sortu dira arazok abuztu osoan zehar. Beheko auzoan astebete inguru egon ziren ilunpean, kaleko argirik gabe; Zurrategin ere hainbat egunetan izan zuten arazo hori.

AZPIEGITUREN AZTERKETA

Udaleko arduradunak aztertzen dabilta zein izan den arazoaren arrazoia. Pedro Iturbe alkateak adierazi digunez, Udalaren asmoa da kaleko argiteriaren azpiegitura osoaren azterketa egitea eta arazoari konponbidea emateko beharrezko hobekuntzak egitea. Bide batez, hauxe adierazi digu Iturbek: "Herritarrei barkamena eskatu nahi nieke, Udalaren izenean, argi faltagatik sortu diren eragozpenegatik".

Oraingoz, behin-behineko irtenbidea eman diote argiaren kontuari, eta badago argia kaleetan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioakKalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzeaKalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARAGAILUR
taberna eta
gozotegiaBuztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

bere ustez



Igor Arizmendiarieta

Uzta, oporrak bezala, beti ona

Iazko mahats-uzta oso ona izan zen ardogileen esanetan, hori entzun zen iaz. Uda lehorraren ostean, lehenago heldu zen mahatsa eta honek kalitatezko uzta jasotzea ekarri zuen.

Aurten, aldiz, uda ez da hain ona izan, eguzkirik ez, eta ez du asko berotu mahastietan. Ondorioz, badirudi mahatsa motelago helduko dela, mahats-biltze datak luzatuz. Nire harridurarako uzta oso ona batuko dela entzun dut berriz ere. Ardogintzan ezjakina naiz, bada-

"Uda lehorra edo hezea egin beti daukagu mahats uzta ona eta kalitatezkoa"

kit, baina ez diot zentzu handirik hartzen. Uda lehorra edo hezea egin, beti daukagu mahats uzta ona eta kalitatezkoa. Inoiz ez dut entzun uzta txarra datorrenik.

Mahats-uztak oporrak bezala izango direla diot nik; izan ere, oporretan izanda ez dago inor oporretan gaizki egon dela esango duenik. Hala gertatzen da normalean. Denok oporretan beti ondo. Nola esango dugu, bada, gaizki pasa ditugula oporrak! Oporretan ez hain ondo pasa arren ere ongi pasa dugula esango dugu.

Nik, behintzat, ederki pasa ditut oporrak eta ez dut inor entzun oporrak gaizki pasa dituela esaten. Ez al dago uzta edo opor txarrik?

((112))
SOS DEIAK

OSPAKIZUNAK > SAGARDO EGUNA

Sagardo eguna hilaren 15ean ospatuko dute

Elgetako Gazte Asanbladak antolatuta, sagardo eguna ospatuko da datorren zapatuan; aurtengoa XI. edizioa izango da

MIREN ARREGI > ELGETA

Datorren zapatarako, hilaren 15erako, alegia, sagardo eguna antolatu du Gazte Asanbladak. Hamaikagarren edizioa izango da aurtengoa. Ekintza desberdin ugari antolatu du Elgetako Gazte Asanbladak egun horretarako, beste urte batzuetan egin izan duen bezala. Besteak beste, patata tortilla lehiaketa, sagardo dastatzea, txitxi-burruntzia eta kontzertuak antolatu dituzte.

Laster udazkenean sartuko gara eta, azken urteotako ohi-

turari jarraituz, sagardo egunak jende ugari erakarriko du Elgetako plaza eta kaleetara. Esan bezala, arratsaldean ipiniko dituzte sagardo kupelak herriko puntu desberdinetan. Sagardotegi askotatik ekarriko dituzte kupelak herrira eta sagardo dastatzea erakargarria izango da, benetan. Hori guztia tabernariaren ezinbesteko laguntzarekin.

Arratsalderako ere ekintza ugari antolatu ditu Gazte Asanbladak. Esaterako, 18:00etan izango da patata tortilla lehia-

keta herriko plazan. 20:00ak inguruan izango da tortilla lehiaketako sari banaketa. Joan den urtetan ez bezala, aurtengoan afariaren ordez txitxi-burruntzia egingo dute.

Txitxi-burruntziaren ostean, dantzarako eta ongi pasatzeko aukerarik ere ez da faltako gartetxean. Izan ere, musika kontzertuak antolatu ditu Gazte Asanbladak gauerako. Hain zuzen ere, herriko Gazte Asanbladak herri-tarrak gonbidatu nahi ditu parte hartzera.



SAGARDOA Iazko sagardo egunean, gazte bat edalontzia sagardoz betetzen.

GOIENKARIA

OMENALDIA

Omenaldia egingo diote Jabier Arantzetari

Idaztea zuen gogoko Arantzetak, eta, hala, hark idatzitako testua irakurriko da

MIREN ARREGI > ELGETA

Jabier Arantzetari minbiziak hil zuen abuztuan. GOIENKARIAko eta *Asteleheneko Goienkaria*-ko kolaboratzaile zen, eta makina bat testu idatzi izan ditu gure ibarretan argitaratzen den astekarirako. Euskaltzale amorratua zen eta asko gustatzen zitzaion bere pentsamenduak eta bere bizipenak paperean islatzea. Alegia, idaztea zuen gustuko Arantzetak.

Hain zuzen ere, testu batzuk utzi zituen idatzita Arantzetak, hura ez zegoen egunean irakurtzeko.

OMENALDIA

Hala, Elgetan Jabier Arantzetari omentzea pentsatua dute. Espaloian izango da omenaldia, hilaren 22an, zapatuan. Lehenik eta behin, Arantzetari zenaren errautsak botako dituzte eta hark idatzitako testu bat irakurriko dute. Aureskua ere eskainiko diote. Hori guztia goizean izango da, baina familiakoei eta lagunei zuzendutakoa bakarrik izango da.

Eguerdiko hamabietan antzokira joango dira omenaldia bertaratutakoak, eta bertan mokadutxoez gozatzeko aukera egongo da. Jendearen ekarpenak ere onartu eta eskertuko dira.

TXANGOIA > ERRETIRATUAK

Elgetako Erretiratuen Elkarteak txangoa prestatu du hilaren 12rako

Txangora joan nahi dutenek Pedro Mari Uberari eman beharko diote izena irailaren 8a baino lehen

M.A > ELGETA

Irailaren 12rako antolatu du Elgetako Erretiratuen Elkarteak txangoa. Animatzen direnak Bizkaiko kostaldera joateko aukera izango dute egun

horretan. Lehenik eta behin Portugaleteko Zubi Esekia bisitatu eta gero Bakiora joango dira bazkaltzera.

Autobusean tokirik gelditzen bada, elkartekideak ez direnak ere joan ahal izango dira txangora.

BIHAR AZKEN EGUNA

Izenemate epea irailaren 8an amaituko da eta joan nahi duenak Pedro Mari Uberari eman beharko dio izena. Txangoaren prezioa elkartekide direnentzat 30 euro da eta gainontzekoentzat, 40 euro.



TXANGOIA Erretiratuen Elkarteko kideak txango baten.

GOIENKARIA



GAZTE LOKALA la guztia prest dago datorren astean gazte lokala irekitzeko.

GOIENKARIA

GAZTE LOKALA > KUDEAKETA UDALAREKIN BATERA EGINGO DA

Azken txukuntzeen ostean, datorren astean zabalduko dute gazte lokala

Udalak gazteekin harremanetan jarraituko du gazte lokalaren kudeaketa elkarlanean egiteko

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Joan den agintaldian Udalak herriko gazteekin izandako harreman tirabiratsuak alde batera utzi nahi izan ditu udalbatza berriak. Hala,

uztailean gazteekin izandako batzarraren ostean akordiora iritsi dira, eta datorren astean zabalduko dute gazte lokala. "Gazteak herriko partaide diren heinean, eurekin akordio batera

iristen saiatu gara eta ikusi dugu hitz eginez posible dela adostasun batera eltzea" azaldu du Asier Agirre alkateak. Aurrerantzean ere herriko gazteekin harremanetan jarraituko du Udalak gazte lokalaren kudeaketa elkarlanean egiteko.

Agirrek azaldu digunez, gazte lokalak bi gela izango ditu: "Bata 18 urtera arteko gazteei

zuzenduta egongo da eta bestea gazte sentitzen den edonork erabili ahal izango du, bilerak egin edota ekintzak antolatzeko".

Lokalaren pintaketa lanak gazteek eurek egingo dituzte eta garbitze lanetan Udalaren laguntza izan dute herriko gazteek.

Bestetik, udalbatzak abuztuan inbertsio garrantzitsua egin du herriko eskola ingurua

konpontzeko. Uztaileko azkeneko osoko bilkuran onartu zen lan horiek egiteko inbertsioa. Agirrek azaldu digu eskola ingurua oso egoera txarrean zegoela eta herritar askoren kezak jaso dituztela agintaldia hasi zutenetik. Hori horrela, irailean haurrak eskolara itzuli aurretik amaitu nahi izan dituzte lanok.

POLIKIROLDEGIA > IRAILEAN ITXITA

Herriko kiroldegia itxita egongo da irailean zehar

Udalak kiroldegia kudeatzen zuen enpresarekin harremanak hautsi eta konponketa lanak egingo ditu irailean

A.B. > ARAMAIO

Kiroldegia egoera txarrean zegoela-eta, hura kudeatzen zuen enpresarekin harremanak hautsi ditu Aramaioko Udalak. "Ito-ginak zeuden eta ate asko apur-

tuta. Horrek ezin zuen horrela jarraitu, eta kiroldegia modu egokian kudeatuko duen enpresa bat lortu nahi dugu", azaldu du Asier Agirre alkateak. Enpresa berria eskuratzeko Udalak abiarazi du jada prozesua, eta laster emango du argitara zeini esleituko dizkion kiroldegia kudeaketa lanak.

Kiroldegiko atea irailean itxita egongo diren arren, alkateak jakinarazi du herritarren batek instalazioak erabiltzeko beharra izanez gero, Udala erraztasun guztiak ematen ahaleginduko dela.



ARAMAIOKO KIROLDEGIA Urrira arte itxita egongo da kiroldegia.

GOIENKARIA

Ainara Zubillaga > Kultura zinegotzia

"Gatzagar guztien gustuko Andramaixak egiten saiatu gara"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur hasiko dituzte Andramaixak, eta domekara bitartean jai giroa izango da herrian. Kultura zinegotzi Ainara Zubillagak lehenengoz antolatu ditu jaiak.

Jaiak antolatzeko batzordea sortu izan du Udalak...

Bai, aurtun ere halaxe egin dugu. Bilerarako dei egin eta herritarrek proposamenak egin zizkiguten, batez ere gazteek.

Berrikuntzarik badago aurtengo egitarauan?

Bai. Bolo txapelketa berreskuratu gura izan dugu; zapatu gauean izango da. Eta tortilla txapelketa berria da.

Jaietako lehen eguna gazteendako da?

Bai, egubakoitza beti gazteei begira antolatzen da. Hori horrela, rock kontzertuak ditugu: The Crakers, Agressive Combat, Doubling Boys eta Never Surrender taldeak. Txosna jarriko dute gazteek, urtero moduan, eta eskuratutako dirua urtean zehar ekin-tzak antolatzeko erabiliko dute.

Herri afariak arrakasta handia du, ezta?

Bai, 100 lagunetik gora elkar-tu izan gara. Herritarrok antolatu dugu afaria; gizon talde batek saiheskia eta txuletillak erreko ditu eta emakumeek entsaladak egingo dituzte. Txartelak oraindik salgai daude Labidea dendan.



Ainara Zubillaga, Kultura zinegotzia, jai egitaraua eskuan duela.

M.A.

"Pozik nago herritar askok eskaini didalako laguntza jaiak antolatzeko orduan"

Eta mountain bike zeharkaldira lagun asko etorriko dira.

Bai, ume zein heldu. Umeak Gure Ametsatik Landara joango dira, 11:00etan irtenda. Ez da txapelketa, baina bukaeran sariak zozketatuko ditugu parte hartu-takoen artean.

Aurtengo jaiak ezberdin bizi-ko dituzu?

Bai, ardura handiagoarekin. Baina pozik nago herritar askok eskaini didalako laguntza. Guztien gustuko jaiak egiten saiatu gara; hortaz, jaiak bizi ditzatela eskatuko nieke herritarrei, ez dadila inor etxean geratu.

> INTERNET

Astelehenean, irailak 10, eta 24an egingo dituzte KZguneak antolatutako ikastaro biak

Oporrak bukatu eta dagoeneko bi ikastaro antolatu ditu Gatzagako KZguneak. Astelehenean izango da lehena, eta Adobe Acrobat Reader programaren gaineko kontuak -PDF formatuko dokumentuak irakurtzen dituen programa- erakutsiko ditu Aitor Madrid arduradunak. 10:00etatik 12:00etara izango da.

Irailaren 24an, astelehena, *Euskara ziberespazioan* izeneko ikastaroa egingo dute. Euskarazko hiztegiak, liburuak eta dokumentazioa zela topatu Interneten erakutsiko dute, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Ikastaro biak euskaraz izango dira.



M.A.

Ping-pong jokatzen jo eta su

Ping-pong jokatzen mahaia jarri zuen Gatzagako Udalak joan zen astean San Migel plazan, eta orduetik jo eta su dabiltaza gaztetxoak. "Gaztetxoek bakarrik ez, nagusiek ere gustura hartu dute", adierazi digu Ainara Zubillaga zinegotziak. Orain dela urte pare bat saskibaloian jokatzen saskia jarri zuten, baita berehala apurtu ere. Ping-pongeko mahaia gehiago iraungo duen itxaropena du Udalak.

GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com



ALDAKETAK AULKIAN UDAk eta Aloñak entrenatzaile berria izango dute: Arenaza eta Zubia; Mondran, berriz, Gordobilek jarraituko du.

GOIENKARIA

PREFERENTE MAILA > LEHENENGO JARDUNALDIA

Denboraldi-aurreko lanak eginda, bihar hasiko dute liga preferenteko taldeek

Ibarreko taldeen artean Aloñak hasiko du denboraldia etxekoen aurrean; Aurreraren aurka

Mondrak eta UDAk Idiazabalen eta Donostian (Vasconia) jokatuko dute, bihar, hurrenez hurren

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Denboraldi-aurrea amaituta, bihar hasiko dute preferente mailako taldeek denboraldia. Egin beharreko lanak egin dituzte, eta orain, lanaren emaitza ikusteko garaia heldu da.

DENBORALDI-AURREAN, ONDO

Hainbat partidu jokatu dituzte ibarreko taldeek azken egunotan. UDAk, esaterako bi partidu jokatu ditu Gasteizen, Vasconia eta Zaramagaren aurka; lehenengo partiduan 1-2 irabazi zuen UDAk, eta, bigarrenena 2-1 galdu.

Mondrakoek, berriz, etxeko txapelketa irabazi berri dute. Aurten, lehenengoz Mojategin jokatuko dute Gordobilen muti-

UDA Kirol Elkarte

PRESIDENTEA

Jokin Antxia

ENTRENATZAILEAK

Igor Arenaza
Gaizka Eriz (2. entrenatzailea)
Xabier Lasagabaster (atezainak)
Erik Vadillo (prestatzaile fisikoa)

ATEZAINAK

Jon Ander Elgarresta
Jon Davila

ATZELARIAK

Raul Sanchez
Gorka Iturbe
Julen Arriaran
Jon Iregi
Ruben Leonardo
Iban Astola
Ibon Gonzalez
Alain
Akaitz Garai

ERDILARIAK

Mikel Sanchez
Argider
Iban Lopez
Haritz Igartua
Iñaki Uribetxeberria
Iban Espinosa
Imanol
Jon Kortazar

AURRELARIAK

Eriko
Gari Dublan
Iker Orueta
Igor Arriaga
Oñatx

Mondragon Futbol Elkarte

PRESIDENTEA

Jose Luis Azkarate

ENTRENATZAILEAK

Igor Gordobil
Juanina Garai

ATEZAINAK

Ander Ruiz de Azua
Mikel Calvo
Mikel Garcia

ATZELARIAK

Andoni Amutxastegi
Iker Lazpiur
Jon Loiti
Ander de Luis
Illart Etxeberria
Markel Gonzalez
Kepa Mercader
Iker Arazkarga

ERDILARIAK

Iban Garai
Arkaitz Garmendia
Jon Alzola
Gotzon Urzelai
Ruben Rueda
Julen Aranbarri
Ander Bereziartua
Julen Losada
Julen Eriz

AURRELARIAK

Iker Lopez
Jon Murua
Ekain Garin
Maikel Hernandez

Aloña Mendi Kirol Elkarte

PRESIDENTEA

Jabier Azpiazu

ENTRENATZAILEAK

Josu Zubia
Ismael Egaña (2. entrenatzailea)

ATEZAINAK

Oier Zabaleta
Iñigo Idigoras
Gorka Otamendi

ATZELARIAK

Andoitz Biain
Julen Barrena
Aratz Losada
Iker Maiztegi
Iker Olalde
Mikel Sanchez
Jon Igartua
Joseba Irizar
Mikel Kortabarria

ERDILARIAK

Unai Arregi
Iker Aramendi
Xabier Elgarresta
Aritz Garmendia
Iñigo Zubia
Xabi Carpintero
Asier Ugarte
Xabi Agirre
Josu Juaristi

AURRELARIAK

Jon Astigarraga
Iñigo Arregi
Xabier Camino
Roberto Idigoras
Mikel Palacios

lek. Azkenik, Oñatiko taldeak hiru partidu jokatu ditu denboraldi-aurrean. Abuztuaren 25ean Gasteizko San Ignazioren aurka 2-2 berdindu zuten; gero, 3. mailako Eibarren aurka 1-0 irabazi zuten Azkoagainen. Eta, aurreko astean Mojategin jokatu zuten. "Gustura geratu naiz taldeak egindako lanarekin; orain, garrantzitsua izango da lasaitasuna hartzeko ligako lehenengo partidua irabaztea", esan du Josu Zubiak, Aloña Mendiko entrenatzaile berriak.

LEHENENGO JARDUNALDIA

Ligako lehenengo jardunaldia etxetik kanpo hasiko dute UDAk eta Mondrak; Aretxabaletak Donostian jokatuko du, 17:30ean, Martutenen, Vasconien aurka. Mondrak ere etxetik kanpo jokatuko du, bihar, Idiazabalen aurka, 17:00etan Arizkorreta futbol zelaietan. Aloña izango da liga etxean hasiko duen talde bakarra. Ondarroako Aurreraren aurka jokatuko dute oñatiarrek, domekan, 16:30ean.

Iazko denboraldi hasiera ikusita, preferente mailako taldeek aurtengoa hobea izatea espero dute. Izan ere, iaz, hiru taldeek galdu egin zuten estreinako partidua. Aloñak eta UDAk etxean galdu zuten Berio eta Pasaiaren aurka; eta, Mondrak Trintxerperen zelaietan galdu zuten.

ESKUBALOIA > LAGUNARTEKOAK

Hiruko txapelketa jokatuko dute Bergarak, Arrasatek eta Urolak

Bihar arratsaldean jokatuko da lagunarteko txapelketa Labegaraieta kiroldegian

Bestalde, irailaren 15ean 'Pitxi' Herreroren omenezko partiduak jokatuko dira Arrasaten

A.E. > BERGARA

Denboraldia berotze aldera, bihar jokatuko dituzte Arrasate eta Bergarako eskubaloit taldeek denboraldiko lehenengo partiduak. Arratsaldeko lauretan hasita, Bergarak, Arrasatek eta Urolak neurtuko dituzte indarrak Labegaraieta kiroldegian.

PARTIDU LABURRAK

Hiru taldeek elkarren aurka partidu laburrak jokatuko dituzte; 20 minutukoak. Hala, denek denen aurka jokatu ondoren Bergarako txapelketako irabazlea izendatuko dute.

Maila handiko partiduak izango dira Labegaraietakoak. Izan ere, hiru taldeak Euskadiko txapelketan arituko dira has-tear dagoen denboraldian. Arrasatekoentzat ez da lehenengo aldia izango; baina Bergarak eta

Urolak Euskadiko txapelketan estreinakoz jokatuko dute. Iaz, Gipuzkoako txapelketa irabazita, Bergarak Euskadiko txapelketa jokatzeke txartela lortu zuela gogoratu behar dugu.

'PITXI' HERRERO MEMORIALA

Bergarakoa, baina, ez da denboraldiaurreko txapelketa bakarria izango. Irailaren 15ean, Iturripen, Pitxi Herreroren omenezko txapelketa jokatuko da.

Arratsaldeko 5etan hasiko dituzte partiduak; territorial mailan, Arrasate eta Balonmano Pereda (Santander) neurtuko dira. Ondoren, 2. nazional mailan, Arrasateko Ford Mugarr eta Erromo taldeek jokatuko dute. Partidu bakoitzaren ostean, txapeldunari garaikurra emango zaio. Aurtengoa antolatzen den hirugarren memoriala izango da.



ESKUBALOIA Euskadiko txapelketa irailaren 29an hasiko dute.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA

San Migel saria jokatuko da bihar

Aloña Mendik antolatuta, 10:30ean hasiko dute lasterketa

A.E. > OÑATI

San Migel jaien atarian jokatuko ohi den lasterketa izango da bihar Oñatin; gazte mailako 49. San Migel saria, hain zuzen. Hain zuzen, 10:30ean hasiko da lasterketa Oñatiko, Olakua auzoan.

UDANA ETA DESKARGA

Guztira 100 lagun inguru elkartzeko dira lasterketako hasiera puntuan. Horietatik zazpi oñatiarrak izango dira.

Olakuatik irten eta txirrindulariek Bergara aldera hartuko dute. Ibilbidean zehar, parte-hartzaileek Udana eta Deskarga igo beharko dituzte. Aipatutako mendateak, gainera, mendiko sarirako puntuagarriak izango dira.

Iazko lasterketa esprintean irabazi zuen Unai Iparragirre azpeitiarrak (1:54:11).

Euskal Herriko

onddoen gida liburua

Aranzadi Zientzia Elkarteari esker, Euskal Herriko 110 perretxiko ezagunen zerrenda ekarri dugu liburu honetara. Perretxikozaleentzat gida ezin hobea: perretxiko bakoitzaren ezaugarriak, nola bildu, gordetzeko teknikak, intoxikazio arriskuak...

doan!



Euskal Herri osoko 110 perretxiko ezagunenak

- 🍄 110 perretxikoak banan-banan: ezaugarriak, habitata eta jangarritasun maila
- 🍄 Perretxikoen mundura bidaia
- 🍄 Perretxikoak egoki biltzeko azalpenak
- 🍄 Intoxikazioen aurrean zer egin
- 🍄 Perretxikoak kontserbatzeko metodoak



Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

irailaren 8an, larunbata, BERRIArekin.

2.- Kupoia itsatsi

Otsailaren 8tik aurrera, egunero kupoia argitaratuko dira BERRIAN, guztira 14.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta **DOAN** jasoko duzu liburua.



Irailak 8, larunbata

kartilla + 1. kupoia berriarekin


Babeslea

kutxa

Egileak



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagolena.net

Lanbide profilak

Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1. maila

- Industri mekanikako laguntzailea

2. maila

- Behe tentsioko instalazio elektrikoaren laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA

Irailean

09:00etatik 12:30era

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
Nafarroa Etorbidea 23 Pk: 237 20500 Arrasate
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com
Telf: 943793090



LANBIDE HASTAPENA

2007-2008
IKASTURTEA



Arizmendi
ikastola

LANBIDE HASTAPENA

Nafarroa etorbidea, 19

20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)

Tfnoa. 943792890 - 943793090



Karaoke Ikuskizuna Urritik aurrera Debagoiensean!

- Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango dira.
- Emanaldi guztiak GOITBn emango dira, Debagoieneko Telebistan.

BABESLEA



gaztetxoek
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak


G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> IPARRALDEA OÑATIN

Hilaren 16ra arte ari dira ospatzen > 45



> BLUETOOTH ANTENA

Bergaran jarri dute Debagoieneko lehenengoa > 51

> USOA IGARTUA


Oñatiko turismo bulegoan ari da lanean. Bidaiatzea du gustuko eta berak ere turismo bulegoetako zerbitzuak erabiltzen dituela dio > 50



Aitor mantxola *La casa de mi padre* filman



Jon Anduezak Oriñongo hondartzan errodututako filmaren pasartea



Aitor Arregik zuzendutako *Lucio* dokumentalaren une bat

Zazpigarren artea lanbide

Debagoieneko hainbat zinegilerekin izan gara eta esku artean dituzten egitasmoen gainean jardun dute

A.ARANBURUZABALA > BERGARA
Donostiako Zinemaldiko atarian gaude, eta, era berean, amaitze-ar dagoen uda zinemagintzan urtero lanpetuena izaten dela aitakia hartuta, zazpigarren artean lan egiten duten hainbat debagoiendarrekin izan gara.

Film bateko atal ezberdinak landu ditugu; hori horrela, argazki zuzendari, gidoilari, zuzendari eta aktore banarekin izan gara.

AITOR MANTXOLA
1989. urtean hasi zen Aitor Mantxola argazki zuzendari oñatiarra

zinegile lanetan. Uztailean amaitu zuen Gorka Merchan zuzendari donostiarraren *La casa de mi padre* filma errodutzen. Mantxolaren hamabosgarren film luzea izan da, eta, argazki zuzendari lanak egiteaz gain, kameralari lanak ere egin ditu.

La casa de mi padre filmak osaba eta iloba pilotazale baten arteko harremana du oinarri eta Gipuzkoako hainbat herritan filmatu zuten. Mantxolaren kameraren begiak Carmelo Gomez, Emma Suarez, Juan Jose Balles-ta eta Alex Angulo aktoreak

Zazpigarren artea lanbide

(43. orrialdetik dator)

jaso ditu. Aipatutako filmeko lanak bukatuta, Sevillako Expok agindutako Ebro ibaiaren gaineko dokumentala grabatu du. Udazkenean zen David Pinillosen filma errodatzen hastekoa, baina, udaberrira atzeratu denez, Donostiako Zinemaldira joateko asmoa du. "Lehiaketa jarraituko dut, baina, sorpresa asko izaten direnez, oraingoz, behintzat, ez dut faboritorik", adierazi du Mantxolak.

JON ANDUEZA

Uztailean grabatu zuen lehen film luzea Kantabriako Oriñon herriko kanporean. "Proiektuaren ideia iaz sortu zen, lankide batzuk Oriñongo kanporean oporetan elkarrekin izan ginenean. Kanporeko bizimodu bereziak film baterako argumenturako aitzakia polita iruditu zitzaigun", azaldu du Anduezak.

Hasiara baten aktore profesionalekin lan egiteko ideia zuten, baina otsailean Andueza Bizkaiako Leioa herrira *Bilintx* film laburra eskaintzera joan zenean, aktoreen profila aldatzea pentsatu zuen: "Down sindromea duten Despertar los Sentidos dantza taldeko kideak ezagutu nituen orduan, eta, kamera aurrean esperimentiarik ez zuten arren, hasieratik harrapatu ninduten".

Hori horrela, uztailean, Oriñongo kanpina filma errodatzeko agertoki bilakatu zuten. Anduezak horrela azaldu du filmaren istorioa: "Errealitatean oinarritutako istorioa grabatu genuen. Argumentuaren oinarria, hondartzan dantza emanaldi bat prestatzen ari diren dantzarien kontaketa datza. Dena dela, pertsonaien naturaltasun eta izateari ere lekua eman nahi izan diogu".

Proiektuaren bitxitasuna, ordea, haratago doa; izan ere, atzekoz aurrera egindako filma dela esan daiteke. "Berrogeita

zortzi orduko grabazioa jasota dugu eta orain gidoia idazten ari gara", gaineratu du Anduezak. Lagun arteko proiektua da, aurrekontuari guztien artean egingo diote aurre. Eta amaitzeko epe zehatzik ez duten arren, datoren udarako amaitu nahi dute.

ASIER ALTUNA

Asier Altuna *Kixi* zinemagile bergarra lan handiarekin ibili da azkenaldi honetan. Hiru filmetarako gidioak dauzka idatzita: animaziozko film baterako eta fikziozko beste bi filmetarako.


Animaziozko filmaren gidoia 2 urte direla idatzi zuen. Orain, Irusoin ekoizpen etxearekin marrazki probak egiten ari direla azaldu digu: "Prozesuaren hasieran gaude oraindik, marrazkiak egiten eta abar. Izan ere, animaziozko pelikula bat prestatzeko pare bat urte behar dira, gutxienez". Artalde baten istorioa kontatuko du filmak: "Ume zein gurasoek ondo pasatzeko moduko filma izango da".

Lehenengo aldia da animaziozko film baten murgiltzen dena, eta hauxe adierazi du: "Istorioko bat kontatzeko beste modu bat da; gainera, ardien gaineko istorioa denez, errazena eta egokiena da animazioa erabiltzea".

Beste bi filmetarako gidioak ere bukatuta dauzka: "Bat neuk bakarrik idatzi dut; bestea, Telmo Esnalekin batera". Lehenengoaren izenburua ere aurreratu du *Kixi*-k: *Auzolan* da filmaren izenburua. "Eusko Jaurlaritzaren laguntza bati esker idatzi dut *Auzolan*, eta baserriek gaur egun bizi duten gainbeheran dago oinarrituta", azaldu du Altunak. Telmo Esnalekin elkarlanean idatzi duen gidioaren gainean ez du ezer askorik aurreratu.

EDURNE AZUARA

ETB1eko *Hasiberriak* telesailen ezagutu genuen gehienok Edurne Azuara aktore bergarra. Iazko denboraldian, berriz, *Balbemendi* telesailako protagonista izan zen. 15 kapitulu eskaini zituzten eta bigarren denboral-



Mantxola, kamaralaria *La casa de mi padre* filmaren errodaian.

AITOR MANTXOLA

dirako beste 12 kapitulu grabatu dituzte udan. Horrela azaldu digu Azuarak: "Martxoan jakin genuen bigarren denboraldirako beste hamabi kapitulu grabatuko genituela. Hori horrela, ekainean hasi ginen grabaketekin eta abuztuko lehenengo astera arte jardun dugu lanean".

Hasierako beldurrak gaindituta, gustura dago Azuara: "Lan handia izan dugu, baina oso gustura nago telesailarekin; izan ere, hasiera baten erronka zaila zen niretzako, eta beldur nintzen".

Aurrera begira, oraingoz ez du esku artean aparteko proiekturik: "Film labur bat grabatzeko deitu didate, baina bestelakoa ez dut oraingoz beste proiekturik lotuta".

Balbemendi-ren hirugarren denboraldirik izago den galdetuta, hauxe adierazi digu: "Egia esan, bigarrena nola doan ikusi arte ez dugu jakingo. Dena dela, nahiago nuke beste proiektu batzuetan murgildu".

AITOR ARREGI > Zine zuzendaria

"Nahiago nuke sekzio ofizialean balitz, baina pozik gaude, noski!"

GOIENKARIA > BERGARA

Aitor Arregi oñatiarrak Jose Mari Goenagarekin batera zuzendu du *Lucio* dokumentala. Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dute.

Zer kontaktzen du dokumentalak?

Lucio Urtubia anarkista nafararen bizitza eta bizitzeko filosofia.

Nola sortu zitzaizuen ideia?

Italiako jaialdi batean ginen gure beste lan bat aurkezten eta han Lucio-ren istorioen berri eman ziguten italiar batzuek. Berehala ikusi genuen dokumental on bat egiteko materiala zegoela.

Noiz eta nola egin zenuten?

Grabaketa 2005eko azaroan hasi genuen eta 2007ko otsailean amai-




GOIENKARIA

tu. Lehenengo Lucio elkarrizketatu genuen eta ondoren bere lagun eta arreba.

Zabaltegin izango zarete. Pozik?

Bai, egia esan, nahiago nuke sekzio ofizialean balitz, baina askoren ustez Zabaltegin gaude filme onenak.



Lucio Urtubia da Aitor Arregik egindako dokumentalaren protagonista.

MORIARTI



Jon Anduezak zuzendutako filmaren irudi bat.

JON ANDUEZA

JAIALDIA > IPARRALDEA OÑATIN

Hilaren 16ra arte ari dira ospatzen Iparraldea Oñatin

Txokolatearen inguruko liburua eta Axularren hiztegiaren berrargitalpena ere aurkeztuko dituzte bigarren aldiz antolatutako jaialdian

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Iparraldea Oñatin egitasmoa antolatu dute Laixan euskara elkarteak eta Klaxk txokolategileen elkarteak Udalarekin batera. Hilaren 16ra bitartean ospatuko da egitasmo hori Oñatin, eta Iparraldeko hainbat kultura produktzio ikusi, entzun eta dastatzeko aukera egongo da.

Adibidez, Irkus Robles-Arangiz eta Gonzalo Etxebarriaren margolanak daude ikusgai kultura etxean hilaren 16ra arte; Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart umeendako ipuinak kontatzera etorriko dira hilaren 12an; Zuberoako Maddi Oihenart, Kattalin Indaburu eta Celine Mounole hirukoteak kontzertua emango du 15ean, Santa Anan.



AURKEZPENA Ainhoa Galdos, Amaia Kerexeta eta Anton Azpiazu.

O.E.

Oñatiko Ganbara abesbatzak ere hiru emakume horiekin batera abestuko du.

Txokolatearen II. artisau azoka ere Iparraldea Oñatin egitasmoaren barruan egingo dute. Euskal Herriko 22 artisau inguru

retorriko dira, horietatik bost Iparraldekoak: Ezpeletatik, Baionatik, Donibane Lohizunetik eta bi Miarritzetik. Oñatiko txokolategileek, gainera, lauzpabost txokolate mota egingo dituzte, Natra-Zahorrek lagunduta.

MUSIKA > DONOSTIAKO ERESKI TALDEA

Kantu gregorianoak entzungo dira Arantzazun

Kontzertuaz gain, kantu gregorianoen disko bat ere aurkeztuko dute, gaur, basilikan

O.E. > OÑATI

Kantu gregorianoen kontzertua emango du gaur, egubakoitza, Donostiako Ereski eskola gregorianoak. Arantzazuko elizan izango da, 20:00etan. Ama Birjinaren bederatiurrena ospatzen ari dira Arantzazun eta antolatutako ekitaldien artean sartu dute kontzertua. Ereskiko 15 abeslarik –denak gizonetzkoak– *Arantzazuko benedikta* ofizioa kantatuko dute.

DISKO AURKEZPENA

Zortzi pieza dituen ofizio hori kantatzeaz gain, disko berria ere aurkeztuko dute Donostiako Ereski eskola gregorianoak. *Benedikta* izena du CD berriak eta *Arantzazuko musika* izeneko bilduman sartzen da. Diskoaren aurkezpena Donostiako Ereski eskola gregorianoak zuzendariak, Jokin Otamendik, eta Pello Zabalak egingo dute Arantzazuko elizan.



ERESKI Donostiako Ereski eskola gregorianoa.

GOIENKARIA

KIA auto erakusketa berritua Arrasaten! Etor zaitez ezagutzera, KIA produktu-gama zabala!



KIA MOTORS
The Power to Surprise™

KIA MOTORS

Araba Etorbidea z/g - ARRASATE

(Honda Tecnocar ondoan)

Tel.: 943 79 00 11 Faxa.: 943 71 27 38





Mireia Arakistain eta **Fernando Contreras** bergararrak irailaren 8an ezkonduko dira San Pedro elizan eta bazkaria Etxe Haundin egingo dute. Bidaian New Yorkera eta Jamaikara joango dira. Ongi pasa, bikote. Familiakoek eta lagunentzat partetik.



Bergarako **Igor Basauri** eta **Sonia Davila** zapatuan, irailaren 8an, ezkonduko dira Santa Marina elizan, 17:30ean. Luntxa eta afaria Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dituzte. Bidaian Thailandiara joango dira. Zorionak eta ongi pasa, familiarentzat partetik.



Julian Fernandez eta **Isabel Lillo** arrasatearrak 1957ko irailaren 7an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta muxu handi bana etxeko guztientzat partetik. Jaki-zue asko maite zaituztegu.

hildakoak

- **Romana Uribesalgo Eguen.** Bergaran, abuztuaren 26an. 81 urte.
- **Maria Teresa Urtzelai Ganboa.** Oñatin, abuztuaren 30ean. 61 urte.
- **M^a Esperanza Elkorbarrutia Lazkano.** Arrasaten, abuztuaren 31n. 83 urte.
- **Asun Peña Aranburu.** Bergaran, abuztuaren 31n. 83 urte.
- **Jose Freire Cuns.** Oñatin, irailaren 2an. 65 urte.
- **Conrada Mangas Sanchez.** Bergaran, irailaren 4an. 72 urte.

ESKELA

Juli Arregi Amilleta

Arrasaten hil zen 2007ko uztailaren 30ean, 88 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna, domekan, irailaren 9an, 11:00etan, Arrasateko San Juan parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Patxi Arregi Amilleta

Arrasaten hil zen 2007ko abuztuaren 7an, 85 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna, domekan, irailaren 9an, 11:00etan, Arrasateko San Juan parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Maria Urrutia Otxoa

Arrasaten hil zen 2007ko ekainaren 15ean, 76 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna, zapatuan, irailaren 8an, 18:00etan, Aretxabaletako Galartza auzoko Santa Luzia elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Bibiana Letona Unzueta

Elgetan hil zen 2007ko abuztuaren 7an, 97 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 9an, 12:00etan, Elgetako Ama Jasokundearen elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.

Elgetan, 2007ko irailaren 7an.



ESKELA

Iñaki Mujika Garitano

Donostian hil zen 2007ko abuztuaren 18an, 40 urte zituela.

*Goiz juan zara,
baina zure bizi pozak gugan beti.*



Zure lehengusu-lehengusinak: Pastor Mujika, Garciandia Mujika, Garcia Mujika eta Mozos Mujika. Bergaran, 2007ko irailaren 7an.

bono fotoa



Bada Oñatin errepidea bitan banatzen duen Ama Birjina bat, dagoen tokiaren izena hartzen duena. Nola deitzen da?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Txokolate esneduna, Milka

125 g-ko tableta

0,76 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Aritz Kortabarriarendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak.

MEZA

Nicolasa Arana Isasmendi

Aretxabaletan hil zen 2007ko abuztuaren 3an, 79 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, irailaren 9an, 11:00etan, Aretxabaletako Jasokundearen elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.

Aretxabaletan, 2007ko irailaren 7an.

URTEURRENA

Vicente Diaz Ramirez

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Gisasola Araiztegi

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Ez zaitugu sekula ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Luisa Iraolagoitia Juaristi

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pilar Arando Uribe

Victoriano Isasisasmendiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 11:50etan, Aretxabaletako Jasokundearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Romana Sagastigutxia Etxeberria

Blas Altunaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maitere Urzelai Gamboa

Gasteizcn hil zen 2007ko abuztuaren 50ean, 61 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko irailaren 7an.

ESKER ONA

Asun Peña Aranburu

Bergaran hil zen 2007ko abuztuaren 31n, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.

Beti egongo zara gure bihotzetan.



Bergaran, 2007ko irailaren 7an.

ESKER ONA

Javier Mujika Garmendia

Bergaran hil zen 2007ko uztailearen 30ean, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko irailaren 7an.

ESKER ONA

Jose Agirre Arenaza

Bergaran hil zen 2007ko abuztuaren 20an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko irailaren 7an.

ESKER ONA

Luis Agirre Arregi

Oñatin hil zen 2007ko uztailearen 27an, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko emaztea eta seme alaben izenean.



Oñatin, 2007ko irailaren 7an.

Babeslea:



OROILORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak

- Zerbitzu etengabea 365 egunean
- Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak
- Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara
- Bete beharreko tramiteak
- zuekin egoteko: etxera, ospitalera...
- Gorpua prestatu eta dotore ipini
- Erantzun azkarra, tratu pertsonala
- Zerraldo aukera, denetarikozko prezioak
- Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
- Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxe: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osinbu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubieta 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

Antzuola:

- Buzintzuri 76 m². Prezio ona.
- Antigua 72 m². Oso ondo.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Iggailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Koldo Elizalde, 107 m²
- Bidekuruzeta, 200 m², aukera ona
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- San Anton Abad, 75 m², oso ondo
- Bidekuruzeta, 60 m², oso ondo
- Zubieta, 60 m², aukera ona
- Zubieta, 65 m², oso eguzkitsua
- Irtzar pasealekua, 92 m², oso ondo.
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Aranerrika, 87 m², ondo
- Ortuibar, 100 m², ia berria
- Mugertza, 60 m², berria
- Masterrekan etxebizitzak 3 logelakoak eta duplexak
- Ibarra, 130 m², aukera ona

SORALUZE

- Gabolatz, 65 m², oso ondo

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK
Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Bergara. Gizon bat gertu ilea mozteko, baita etxez etxe ere. Beste edozein lan ere egingo luke. Deitu ezazue telefono honetara: 648 87 53 27.

Bergara. Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izanda. Esperientziaduna. Deitu ezazue telefono honetara: 635 86 11 29.

Bergara. Pertsona nagusiak nahiz umeak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo beste edozein lanetarako gertu emakume bat. Orduka. Esperientzia eta erreferentzia onak. Deitu ezazue telefono honetara: 699 26 95 74.

deitu ezazue telefono honetara: 645 73 04 69

6/ MOTORRA**601. SALDU**

Opel Astra salgai. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

Trialeko motorra salgai. 1998koa. Munduko txapeladunaren motorraren erreplika. 1.900 euro. 699 37 15 11.

Peugeot 406 Coupe HdI. Sei urte. Beti garajejan. Egoera oso onean. 609 41 98 23

8/ DENETARIK**801. SALDU**

Ohe bikoitza salgai daukat. Deitu ezazue telefono honetara: 635 73 27 84.

Umea eramateko motila bat eta automobilerrako aukila salgai. 635 73 27 84.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 53 m². 3 logela, egongela, bainugela eta sukalea. Altzariekin. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 615 75 96 36.

Arrasate. Zigarrolan etxebizitza salgai. 81 m². 3 logela, egongela, bainugela, sukalea eta trastelekua. Oso eguzkitsua. Egoera onean. 652 73 22 83.

Eskoriatzan etxebizitza salgai, 80 m². Garajea eta trastelekua ditu. 686 92 55 71.

Luz Saint-Sauveurren apartamentua salgai (prezio negoziatua)

garría) edo errentan ematen da eski sasoi osorako. Telefonoa: 607 80 42 38.

Oñati. Duplexa salgai. 100 m² erabilgarri. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsu eta material ederrekin egina. Hiru logela, bikomun, sukalea, egongela eta estudioa. Telefonoa: 676 39 36 93.

Oñatin Zubillaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukalea, egongela, bainugela bat eta ganbara. Oso egoera onean eta berritua. 697 57 77 44 edo 635 71 41 39.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bolun. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 76 07 89.

Donostia. Datorren ikasturterako etxebizitza errentan ematen dut. Amara Zaharrea. Bi logela. 685 73 34 45.

Eskoriatza. Hiru logela, egongela, sukalea guztiz hornituta eta komuna. Berogailua. Telebista. Egoera oso onean. 686 30 67 89.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Oñati. Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 655 70 30 37 edo 676 59 66 38.

ARRASATE

Taberna baten lan egiteko zerbitzariak behar dira. Euskaraz jakitea komenigarria
680 67 22 93
617 60 84 45

ARRASATE

Denda baten esperientziadun saltzailea behar da. Bidali curriculum eta argazkia
139 posta kutxara 20500 Arrasate.

105. ETXEA OSATU

Arrasate, Eskoriatza. Erasmus ikasle batentzako logela bat behar da irailetik otsailera arte. Seriotasuna. Telefonoa: 656 77 66 32.

Bergara. Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Telefonoa: 605 76 98 97.

4/ LANA**401. ESKAINTZAK**

Angiozar. Etxeko lanak egiteko norbait behar dugu; astean 4-6 ordu. 652 77 83 06 edo 945 01 97 58.

Arrasate. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Santa Teresa auzoan. Egunero ordu eta erdi. 649 66 49 85.

402. ESKAERAK

Bergara. Emakumea gertu orduka lan egiteko. Etxean bizi izateko ere gertu. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 638 23 37 39.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Arrasate. Garajea salgai. Eguzki dorrean. 20,16 metro koadroko azalera du. Telefonoa: 943 79 43 39.

LAN ESKAINTZA

Sukaldea eta armairuak saltzen diren denda batean, pertsona bat behar da.

ESKATZEN DA
AUTOCAD erabiltzen jakitea.
Euskara jakitea.

ESKAITZEN DA
Zortzi orduko lan-jarduna.

Interesatuok deitu 943 76 11 73 telefonora
8:00etatik 12:30era eta
14:00etatik 18:00etara.

EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK

Arrasateko Udalak lan poltsa hauek sortu nahi ditu euskaltegirako:

- Lan poltsa bat aldi baterako kontratazioak egiteko
- Lan poltsa bat praktika aldiko kontratazioak egiteko

Epea izena emateko: irailaren 8tik 15era arte.

Oinarriak: BAZen (Maisu Arano, 8) jaso daitezke edo web orrian ikusi: (www.arrasate-mondragon.org)



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila



Oñatin kokatutako, ULMA Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinaren eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK (Especialitatea: elektronika)**Eskatzen da:**

- Industria automatizazio ezagutzak.
- 2-3 urteko esperientzia.
- PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
- Ingelese jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza tekniko ematea, bertara joan da.

INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK (Especialitatea: mekanika)**Eskatzen da:**

- Makinaren diseinu mekanikoen ezagutza.
- 2-3 urteko esperientzia.
- Diseinu tresnak: Autocad, Solid Edge eta Microstation.
- Ingelese jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza tekniko ematea, bertara joan da.

GALDARAGINTZA METODOETAN TEKNIKARIA**Eskatzen da:**

- LHII / Goi Mailako Heziketa Zikloa edo Ingeniaritza Teknikoa, eraikuntza metalikoak espezialitatea.
 - Galdaragintza fabrikazio prozesuetarako piezaketzea egiten eta dokumentazioa sortzen esperientziaduna.
 - Galdaragintza Arinari dagozkion fabrikazio prozesuak menperatzea.
 - Diseinu Tresnak: Autocad eta Solid Edge.
 - Desiragarria, Lantek Expert-en ezagutza izatea.
- Eskaintzen da, Legazpin kokatuta dagoen Ulma Precinox-en, garapen aukera garrantzitsuak dituen enpresa, berehala hastea.*

ELEKTRONIKA INGENIARIA
Packaging-aren Ingeniaritza Unitaterako**Eskatzen da:**

- Industria automatizazio ezagutzak.
 - PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak). Eremu industrialari dagokion goi mailako programazioan gutxienez 2 urtetako esperientzia.
 - Ingelese jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
 - Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
 - Bidaiatzeko prestutasuna.
- Baloratuko da:**
- Bizilekua lantokitik gertu izatea.
 - Packaging-aren proiektuan esperientzia izatea.
- Eskaintzen da:**
- Packaging-aren Ingeniaritza Proiektuen ekipoan hastea.
 - Norberak eskaintako esperientziarekin bat datorren ordainsaria.

ref 09/07

ref 10/07

ref 11/07

ref 12/07

Interesatuok bidali curriculum honako helbidera: ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua, Garibai auzoa 28-145 posta-kutxa 20560 OÑATI. Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

Ikus itzazu argazkiak, astero, ASTELEHENEKO GOIENKARIAn!

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira, eta berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarik izango.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.

- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaia baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.



• **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.



• **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

Usoa Igartua > Oñatiko turismo bulegokoa

"Eguraldi txarrarekin, kostatik barnealdera etortzen dira turistak"

Batzuk oporretan daudenean beste batzuei lan egitea egokitzzen zaie; hori da Usoa Igartua oñatiarraren kasua. Igartuak Arrikruzeko kobei buruzko proiektua egin zuen, eta, hori dela-eta, Oñatiko turismo bulegoan hasi zen lanean. Orain, beste proiektu batekin dabil: pertsona ezinduentzat turismoa egokitzea. Harekin izan gara turismoaz berbetan.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Oñatiko turismo bulegoan egin dugu hitzordua Usoa Igartuarekin. Abuztuan lan egitea egokitu zaion arren pozik dago, geroago izango baitu oporrak hartzeko tarte. Bidaiatzea asko gustatzen zaio; hortaz, turista ere badela aitortu digu.

Gogorra izan da abuztuan lan egin behar izatea?

Ez, beste urte batzuetan ere egin izan dut eta ohituta nagoela esan daiteke. Gainera, lanean nagoenean ez naiz oporrekintzatsatzen egoten; ardura, lana egitea besterik ez da izaten. Bestalde, turismo alorrean lanean aritzea hori da: beste batzuk oporretan daudenean zu lanean aritzea. Hortaz, ez naiz oporretan pentsatzen jartzen.

Gure ingurua bisitatzera etortzen direnei zer gustatzen zaie gehien?

Normalean Oñatin inoiz egon ez den jendea etortzen da; hortaz, lehenengo, Oñatin, herrian bertan dauden hainbat eraikin erakusten dizkiegu: Unibertsitatea, parrokia, jauregiak, Bidaurreta... Aurten, gainera, Arrikruz ere badaukagu.

Batzuk, adibidez, Arantzazura igotzen dira eta gero bueltan herrian geratzen dira zer dagoen ikusteko.

Bisitarietarako dagokienez, erki-degoko biztanleen artean gipuzkoarrak eta bizkaitarrak etortzen dira gehien; arabarrak, gutxiago. Estatu mailan, berriz, Katalunia, Madril eta Valentzia aldeko jendea etortzen da gehien. Atzeritik, besteak beste, frantzesak etortzen dira.

Aurtengo udan egin duen eguraldia onerako edo txarrerako izan da?

Aurreko urteko datuekin alderatuz, 1.049 lagun gehiago etorri da Oñati bisitatzera. Uztailan aurreko urteko datuak mantendu dira eta abuztuan gorakada nabaritu dugu. Aurtengo udan eguraldi txarra egin duenez, jorra izaten da txarra egiten duenean barnealdeko herrietara etortzekoa. Kostan dauden turistek ezin dutenez hondartzan egon, barnealdea bisitatzeko aprobetxatzen dute.

Aurtengo nobedadea: Arrikruzeko kobak.

Hala da. Koban lanean ari zirenean bisitatu nuen lehenengo aldiz, eta, orain, atea irekita dituenetik ere izan naiz. Egia



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Nekazaritza Ingenieritza Teknikoan eta Ingurumen Zientzietan lizentziaduna. **Zaletasunak?** Ibiltzea eta eskulanak egitea: margotu, gurutze-puntua, puzzleak... **Gomendatzeko moduko film bat?** Ikusi nue-

nean, *El nombre de la Rosa* asko gustatu zitzaidan. **Musika estiloa?** Orain, lagun batek oparitutako musika irlandarra entzuten dut. **Nora bidaiatzea gustatuko litzaizuke?** Australiara. **Betetzeko duzun amets bat?** Ikasketekin zerikusia duen lana aurkitzea.

esan, asko gustatu zait. Arrikruzten izan nintzen lehenengo aldian, nora begiratu ere ez nekien! Gauza asko daude ikusteko; gainera, nire ikasketak ere ingurumen alorrekoak direnez, ikasi ditudan gauza asko ikus daitezke bertan.

Turista gisa beste herri batzuk bisitatzera joaten zarenean, turismo bulegoko zerbitzuak erabiltzen dituzu?

Bai, bidaiatzea gustuko dut eta egiten ditut bidaiak; hala ere, ez gura beste. Egia esan, bakarrik bidaiatzeko ez naiz, beti konpainian egiten ditut bidaiak. Gainera, nik ere beste leku batzuetako turismo zerbitzuak erabiltzen ditut; herrialde batera joan aurretik, bertako informazioa jasotzea gustatzen zait. Nik uste dut turismo bulegoan lanean ari naizenetik gehiago erabiltzen ditudala horrelako zerbitzuak.

Gainera, beste bulego batzuetan nola lan egiten duten eta ze zerbitzu mota ematen duten begira egoten naiz. Hala, interesgarriak diren gauzak gurera ere ekar ditzakegu. Beste batzuk, berriz, atzeratuago daude!

Eta oñatiarrok ezagutzen dugu gure herria?

Ez dut uste. Nik oñatiar guztiak ez ditut ezagutzen, baina nire sentazioa da ez dugula gure ondare artistikoa eta historikoa ondo ezagutzen. Ni ere oñatiarra naiz eta turismo bulegoan lanean hasi arte hainbat gauza ez nekizkien. Unibertsitatea, adibidez, denok ezagutzen dugu, baina nork egin zuen edo zergatik egin zuten ez dakigu.

Egunkari batek egin duen inkestaren arabera, Arantzazu Gipuzkoako lehenengo miraria da. Ados zaude?

Nik ere hartu nuen parte! Eta nik ere Arantzazu botatu nuen. Gainera, Oñatiko unibertsitatea ere bazegoen aukeran; hortaz, bihotza zatitua izan dudala esan behar... baina, egia esan, Arantzazuk beste zerbaite transmititzen du; ez da eliza bakarrik, ingurua ere bada. Pozten naiz Arantzazuk irabazi duelako.

Ze herrialde edo leku da bisitari gisa gehien gustatu zaizuna?

Nik uste dut oraindik ez dudala ezagutu. Paris, Madeira... asko gustatu zaizkit, baina uste du oraindik ezagutu ez dudana toki harrigarri bat badagoela.



JAI EGITARAUA Bergarako bluetooth antenaren bidez, San Martinetako egitaraua doan emango du Lazkano dendak. GOIENKARIA

TEKNOLOGIA BERRIAK > BLUETOOTHA

Debagoieneko lehen bluetooth antena ipini dute, eta Bergaran dago

Bergarako Lazkano kirol oinetako dendak ipini du ibarreko lehenengo bluetooth antena, eta San Martin jaietako egitaraua eskuko telefonora bidaltzeko erabiliko da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko lehenengo bluetooth antena Bergaran dago. Hango Lazkano oinetako dendak ipini du, eta lehenengo zerbitzua San Martin jaietako egitaraua eskuko telefonorako ematea izango da.

Bluetootha teknologia ezagun egin da, bereziki automobilan jartzen hasi zenetik, eskuko telefonoa hartu barik berba

egiteko aukera ematen duelako. Azken finean, ahotsa eta datuak transferitzeko haririk gabeko teknologia da bluetootha.

Orain dela urte gutxi, eskuko telefonoetara bluetooth bidez edukiak (abestiak, gidak, irudiak, promozioak...) doan emateko antena berezi batzuk kaleratu ziren, eta horietako bat da Bergarako Lazkano kirol oinetako dendak bere egoitzan ipini duena. Batura Mobile Solutions enpresaren eskutik ipini du.

PRAKTIKAK HEDABIDEETAN

Antena horri esker, sakelako telefonoetarako doan emango du Lazkano Kirol Oinetako dendak San Martin jaietako egitaraua; horretarako, erabiltzaileak bluetooth sistema aktibatuta izan beharko du. Modu honetan, egitaraua eskuratzen duten erabiltzaileek jaietako programazioa

edozein momentutan eskuko telefonoan kontsultatu ahal izango dute, inolako kostu barik. Aurreago bestelako zerbitzu batzuk emango ditu: informazioa emango du, eta baita eskaintzen eta promozioen berri eman ere.

PRAKTIKAK HEDABIDEETAN

Bluetootharen ezaugarri nagusienetakoa da edukiak doan ematen dizkiola erabiltzaileari, baina horretarako antenatik gertu egon beharra dago: 10-15 metrora, asko jota. Hiriburuetan dagoeneko nahiko hedatuta dago. Esaterako, Donostiako eta Gasteizko turismo bulegoetan, eskuko telefonoetarako gida turistikoak ematen dituzte antena horiei esker, bulegoa itxita nahiz zabalik dagoenean. Bartzelonan eta Madrilen, berriz, merkataritzaguneez euren promozioak iragaritzeko erabiltzen dute.

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Sony Alpha 700: Canon EOS 40D eta Nikon D300 argazki kameraren Sonyren lehiakidea

Alpha 700 amateurrentzako SLR kamera digital berria da.

Reflex digital horren gorputza oso gogorra da. Aluminioz egindako xasisa du eta magnesioz gainestaltitako karkasa.

Hauek dira ezaugarri nagusiak: 12,2 megapixel, errafaga moduan bost argazki segundoko ateratzeko gai da. Hiru hazbeteko pantaila, ISO sentikortasuna: 100-6.400.

Salneurria: gorputza 1.400 dolar eta Sony SAL 1870 objektiboarekin 1.500 dolar.



Sonyren reflex argazki kamera berria azaroaren 3tik aurrera eskuragarri egongo da.

> HAZBETEKO UKIMEN BIDEZKO PANTAILA

iPod Touch: iPhonek duen ukimen bidezko pantaila eta wi-fia duen iPod berria

Applek goitik behera berritu du iPod gama osoa. Berrikuntzarik nabarmenena iPod Touch berria da. 3,5 hazbeteko ukimen bidezko pantaila, wi-fia, Safari web-arakatzalea, kontaktuak eta agenda, kalkulagailua, YouTube erreproduzibilua, iTunes multimedia erreproduzibilua..

iPod Nanok pantaila handiagoa du bideoak ikusi ahal izateko, Giga bateko Shuffleari koloreak aldatu dizkiote eta iPod Classic orain baino disko edukiera handiagoarekin (160 Giga arteko aukerak daude) eskura daiteke. Salneurriak: 79 eurotan hasi eta 389 euroraino.



iPhone baten itxura eta prestakuntza antzerakoak ditu, telefonoa kenduta.

> BETAURREKOAK

ETS Motorola S71: aurikularra duten Motorola ekoizlearen betaurrekoak

ETS Motorola S71 betaurrekoak O ROCKR Pro izenarekin ezagunak dira. Bluetooth bidez sakelako telefonoekin eta MP3 erreproduzibiluekin konektatzen da. Beso batean duen kontrolerkin musika betaurreko hauen bateriak kargatzeko sare elektrikora konektatzeko kargatzaile bat du. Kaleratze data eta salneurria zehazteke daude, baina aurreko modelook erreferentzia hartuta 300 euro inguru balioko du.



Betaurrekoen atzealdean aurikularrak daude eta beso batean agintek.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|-----------------|------------------|--------------------|----------------|---------------|
| /aebpn | /denetik | /gertu | /korozabaleta | /richimaier |
| /aiastui | /dragon-oriental | /gorkataxi | /markiegi | /tabernaberri |
| /aretxargi | /dukiena | /gurea | /maulanda | /udalaitz |
| /argi-plastik | /ego | /gutzieder | /mayte | /urdeki |
| /arregi | /ekilore | /hamaika | /merkeopari | /urbieta |
| /atai | /ekin | /itxaseder | /multiopticas | /urko |
| /azkarate | /elejalde | /irudisport | /ohiak | /vitoria |
| /bastida | /ezkutuorly | /ixaun | /ogizun | /zainduz |
| /briz-aseguruak | /galgorri | /jracing | /okipark | /ziripot |
| /BZ-sistemas | /gallastegi | /joseba | /otzeta | |
| /bolusukaldeak | /ganesha | /lamaino-etxeberri | /pando | |
| | /garaia | /lorelan | /puerta-ingles | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejatebea.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldoslete.com
- www.uxarte.net



berriak

> PROGRAMAZIOA

Xabier Urtzelai da 'Harmailatik' saioko aurkezle berria

Datorren astean hasiko dira Goiena Telebistan ohiko programazioarekin, eta bada aldaketarik ikasturte berriari begira.

Datorren astelehenean hasita, Xabier Urtzelai arrasatearra izango da *Harmailatik* kirol saioaren aurkezle berria. Beraz, Urtzelai izango da hemendik aurrera kirol arloan gurean gertatzen den guztiaren berri emango duena.

> PROGRAMAZIOA

Hasiak dira ibarreko gazteak 'Kantari'-rako entsetzen

Lau Teilatu, Aitormena eta halako abestiak hainbat gaztetxoren ahotan ibili dira uda honetan. Orain, ordea, entsetu dutena praktikan jartzeko ordua iritsi zaie; izan ere, ekin diote jada dantzak entsetzeari.

162 taldetan banatuta, 572 gaztetxok hartuko dute parte. Entsetzen lehenak Eskoriatzako haurrak izan dira, eta lehen saioa urriaren 20an grabatuko da, Oñatin.

> ARRASATE IRRATIA

Ikasturtea hastearrekin batera, berritasunak gure irratan

2007-2008 ikasturtearekin batera programazio berria estreinatuko dugu irratan. Datorren astetik aurrera, ohiko ordutegira bueltatuko gara, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara. Aurreneko orduan albisteak izango dira protagonista, Arrasatekoak zein ingurukoak. Eta bigarren orduan, berriz, aisialdiarekin lotutako saioek betekiko dituzte irratiko uhinak.

> ARRASATE IRRATIA

Atzera ere Aquariumerako sarrerak ditugu

Irailan *Uda Giroa*-n saioak gidatuko du irratiko lana. Hala, udak eskatzen dituen kontuen artean, egunero joango gara Donostiako Aquariumera bisita egitera: han duten eskaintzaren berri izateaz gainera, Aquariumerako sarrerak zozkatuko ditugu entzuleen artean.

Zozketan parte hartzeko bi bide daude: mezua bidali irratia@goiena.com helbidera edo telefonoz deitu: 943 71 17 31 telefonora.


'BERRIAK' > EGUNERO 14:45 ETA 20:45

'Berriak' saioak udako ordutegiarekin jarraituko du

Ikasturtea hasi da, baina, hala ere, GOITBko 'Berriak' saioak udan izan duen ordutegia izango du

GOIENKARIA > ARRASATE

Iluntzeko *Berriak* saioaren ordutegiak udan izan duen ordutegi bera izaten jarraituko du aurrerantzean ere. Hala, aurreko ikasturtean 19:45ean eta 21:45ean izaten bazen, hemendik aurrera 19:45ean eta 20:45ean izango da Goiena Telebistako *Berriak* saioa. Esan bezala, aldaketa hori iluntzeko saioak bakarrik izango du; izan ere, eguerdietako saioa orain arteko ordu berean emitituko dute: 14:45ean, hain zuzen ere. Aurkezlez ere aldatuko du datorren asteotan iluntzeko *Berriak* saioak; Julen Iriondok emango ditu berriak.

JULEN IRIONDO Hura izango da asteotan *Berriak* saioko aurkezlea. GOIENKARIA

'ZAHARRAK BERRI' > EGUAZTENA, 20:15

'Zaharrak berri' saioaren aurkezpena egingo du eguaztenean GOITBk

GOIENKARIA > ARRASATE

Kurtso berriarekin batera estreinatuko dute Goiena Telebistan *Zaharrak berri* saioa. Batik bat gure nagusientzat sortutako telebista saioa, magazine formatuan iritsiko da GOITBra. Atal desberdinetan banatuko da *Zaharrak berri*:

batetik, agenda kulturala eskainiko da, bereziki nagusiei zuzendutako ekintzen berri emanez. Bestetik, saio bakoitzean zozketa bat egingo dute; datorren astean Donostiako Zinemaldirako sarrerak zozkatuko dira.

Amaia Diaz de Monasterioren oñatiarrak astero dietetika eta elikaduraren inguruko tarte bat eskainiko du. Bizimodu osasuntsua egiteko aholkuak emango ditu hark. Saioak tarte nagusi bat ere izango du eta hori erreportajeen tarte izango da. Datorren astean Oñatiko Arrikutz koban gainekoa izango da erreportajea. Azken hori mediku baten aholkuen tarte batekin partekatutakoa izango da. Solasaldiak ere izango du bere tarte saio berrian; hain zuzen, lehenengo saioan telebistaz jardungo dute gonbidatuek.

telebegi

Leire Kortabarria

Gartzia

Espero baino gutxiago harrotu ziren hautsak Jose Maria Gartzia kazetari beteranoari egindako elkarrizketa bat ematea galarazi zuenean Television Españolak. Gartzia ez zen guztiz joan orduan, eta orain egun batzuk egin zuen despedida. Horretarako, harrigarria badirudi ere, Tele5eko gizarte-kronika telea *La noria* aukeratu zuen elkarrizketa emateko, nahiz eta argi utzi Tele5 egiten duela erantzule gaur egungo telezaborraz.

Garai baten, Gartzia oso ondo konpondu zen orduko Espainiako presidente bere izen bereko Aznarrekin. Itxura denez, boteretsuek elkarrekin haserretzeko ere erraztasunak dituzte, eta harekin gaizki bukatu zuen. Baina horrek ez du Zapaterorengana hurbildu: hari ere egurra polito eman zion. Oro har, kritika zorrotzarekin bukatu zuen —oraingoz— bere ibilbidea. Gustuko izan ala ez, karisma eta pertsonalitate handiko kazetaria izan da, ideologia edo alderdi baten pulpitutik hitz egiten ez duena. Hori bai, modu horretan hitz egiteko, independentzia behar da, eta hori botereak bakarrik ematen du.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Joxe Otadui, Parrokiako Batzordeko kideak Arantzazuko erromesaldiaren gainean jardungo du, irailaren 16an da eta hitzordua arrasatearrendako. Bestalde, Historian murgilduko gara Afrika Marteatxe historia zaletuaren eskutik.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Arrasate albisteak
Ibarreko albisteak
Herriz herri
Pentsaren erreposoa
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 2+2. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ikusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Saharako ondarea. 18:15 Klipa. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47+2. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 8

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron-antzerkia. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klipa. 12:30 Erreportajea. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Saharako ondarea. 14:00 Ur eta lur. 14:30 Musikantoi. 15:00 Teknopolis. 15:30 Klipa. 16:00 Kirolari. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Erreportajea. 19:30 Klipa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Ikusten. 22:00 Astekoak. 22:15 Klipa. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 9

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron-antzerkia. 11:00 Kirolari. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Klipa. 13:00 Eltze beroa. 13:15 Klipa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Ikusten. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Saharako ondarea. 18:30 Kirolari. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea. 21:00 Saharako ondarea. 22:00 Erreportajea. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Hitz bitan. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klipa. 16:15 Kirolari. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta lur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:45 Berriak. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Ikusmira. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Klipa. 18:45 Berriak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 14:45 Berriak. 15:15 Ur eta lur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klipa. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Teknopolis. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Ikusmira. 14:45 Berriak. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportajea. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ur eta lur. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



BERME
2
URTE

1.850
X
598
X
600 mm

A Saillkapen energetikoa
HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495
420 € 70.140 pta



BERME
2
URTE

1.850
X
598
X
600 mm

A Saillkapen energetikoa
**HOZKAILUA COMBI 5 FAC-495-NF
NO FROST**
460 € 76.820 pta



BERME
2
URTE

A Saillkapen energetikoa
**ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0250
KARGA ERDIA**
305 € 50.935 pta



BERME
2
URTE

1.000 b/min
5 kgr.

A Saillkapen energetikoa
GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta



BERME
2
URTE

**LABEA
BITROZERAMIKA
STA1410**

**LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA**
335 € 55.945 pta



BERME
2
URTE

**TELEBISTA SANYO
LCD 20" CE20LD51- C
LTD (TDT) integratua**
430 € 71.810 pta



BERME
2
URTE

**TELEBISTA SANYO
LCD 26" CE26LD81- C
LTD (TDT) integratua**
650 € 108.550 pta



**"EVA" MAHAIA
110x70 zm**
365 € 60.731 pta



BEROTU SUKALDEA C-85 NC **1925 €** 321.475 pta

**Sukalde itxia, berotzen ez
duena, igeltserotza lanik
barik. Kutxa eta gaineko
sukalde bikoitzarekin.**

Altuera: 85 zm.
Luzera: 85 zm.
Sakonera: 60 zm.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

iparraldea

oñatin

Irailaren 4tik 16ra

iparraldeko lagunekin bat eginik

4tik 16ra 18:30-20:30: Irkus Robles-Arangiz eta Gonzalo Etxebarria: margo erakusketa, **Kultura Etxean**

12an 19:30ean: Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart: "Kontu kantari" ipuin kontaketa musikatua, **Kultura Etxean**

13an 11:00etan: Azika txontxongilo taldea: "Kontu konta zan", **Santa Anan**

14an 19:30ean: Anton Azpiatzuren "La amargura del cacao y la magia del chocolate en Oñati" liburuaren aurkezpena, **Unibertsitatean**

15ean 10:00-14:00: Txokolatearen II. Artisanu Azoka **plazan**
13:00etan: "Axular-en hiztegia" liburuaren aurkezpena, **Unibertsitatean**
19:30ean: Oñatiko Ganbara Abesbatza eta Zuberoako Maddi Oihenart, Kattalin Indaburu eta Celine Mounole: kantaldia, **Santa Anan**

Antolatzaileak:

Babesleak:



Irailak 7-14

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



OÑATI

> Black River, Aterkings, Soulbreaker Company eta Sr. No, Atzeko kaleko jaietan

Gaur, egubakoitza, egingo dute kontzertua lau taldeok. 22:30ean izango da. Horrez gain, bihar, zapatua, erromeria izango da Kaixo taldearekin (23:00) eta etzi, domeka, Zakatekas mariatxien saioa, (19:30ean).

Musika



ARRASATE

> Radio Wings taldeak azkeneko kontzertua egingo du gaztetxean

Arrasateko Radio Wings taldeak agur kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 23:00etan, Arrasateko gaztetxean. 2001. urtean sortu zen taldea, Chicos Boom izenarekin. 70eko hamarkadako rock-and-rolla dute oinarri.

Erakusketa



ESKORRIATZA

> Espainiako gerraren gainean liburuetan ageri ez dena ikusgai

Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako liburuetan du izena erakusketak. Helburua da Espainiako gerra orain arte nola ikasi den eta gaur egun nola ikasten den erakustea. Irailaren 16ra arte egongo da ikusgai.

emango dituzte sariak: 18:30ean, kultura etxean.

Lehiaketako lanak ikusgai egongo dira kultura etxean hilaren 10etik 22ra.

ARETXABALETA

> Oporretako Argazkien Lehiaketa deitu du Urbaltz tabernak

Parte hartzeko, udako oporretan ateratako argazki bat aukeratu, 18x24 cm-ko neurrian inprimatu eta Urbaltz tabernara eron behar da. Argazki bakoitzeko 2 euro ordaindu behar dira. Irabazlearen izena irailaren 28an emango dute aditzera. Saria da bi lagunendako afaria.

Irailaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak.

ARETXABALETA

> II. Joteko Prest Pala Txapelketarako izenematea zabalik dago

Loramendi elkarteak antolatu du. Urriaren 9an hasiko da eta abenduaren 14an jokatu da finala. Partiduak Iturrigorri pilotalekuan izango dira martitzen eta eguenetan, 19:30ean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Izen emateko deitu 943 77 09 70 zenbakira edo idatziloramendi@topagunea.com helbidera.

Izenematea da irailaren 24ra arte.

BERGARA

> Kirol Argazkien Lehiaketako azken egunak

Datorren eguaztenean bukatuko da 17. Kirol Argazkien Lehiaketa aurkezteko azken eguna. Lanak zuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke eta laborategiko edozein teknika prozedura onartuko da. Lanak aurkeztu beharko dira Udaleko Kirol Zerbitzuan. Gero, lehiaketako argazkiekin erakusketak egingo dute Aroztegi.

Hilaren 12a baino lehen.

DEBAGOIENA

> 'Asteleheneko Goienkaria'-ren udako argazkien lehiaketa

Gure ibarreko edozeinek parte har dezake. Baldintza da udako argazkiak izatea, aurtengo udakoak zein beste uda batekoak. Aurkeztu ahal dira paperean edo digitalizatu. Argazkiak bidaliko dira e-postaz, honako helbidera: argazkiak@goiena.com edo Goienaren egoitzaren batera eraman daitezke. Hiru sari daude irabazleen artean banatzeko: lehenengo saria izango da argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin. Bigarren saria da asteburu bateko egonaldia bi pertsonarentzat. Eta hirugarren saria da bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Irailaren 17a da azken eguna.

Musika

BERGARA

> Umeendako berbena antolatu du Jardun elkarteak

Txorro Morro taldeak *Luma gorri* izeneko haurrendako berbena egingo du, Jardun taldeak gonbidatuta. Gaur, egubakoitza, 18:30ean, Munibe plazan.

ARRASATE

> Hainbat talderen kontzertua Taupa tabernako terrazan

Standart, Los Cretinos, High School eta Gunners taldeek egingo dute kontzertua.

Bihar, zapatua, 17:00etan, Taupa tabernako terrazan.

OÑATI

> Kantu gregorianoak entzuteko aukera Arantzazun

Ama Birjinaren bederraziurrenaren barruan emanaldia egingo du Donostiako Ereski eskola gregorianoak.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arantzazuko santutegian.

ELORRIO

> 'Salda badago' ikuskizuna Arriolan Rock egitarauan

Arka eta Sagardantza DJek nahastu egiten dituzte euskal musikaren garai ezberdineta-ko doinuak nahiz musikaren historia markatu dituztenak gaur egungo joera eta *hit* ezagunekin.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan, Arriola aretoan.

BERGARA

> Denboraldi berria hasiko dute Go Jamen

DJ Pablo Akaros eta DJ Haitzek irekiko dute denboraldi berria Bergarako Go Jamen.

Bihar, zapatua, 00:00etan.

Antzerkia

ELORRIO

> 'Katuska' zarzuela Masa Coral del Ensancherekin

Emilio Gonzalez eta Manuel Martialonsoren obra originala, Pablo Sorozabalen musikarekin. Bi ekitalditan banatuta, iraultza boltxebikearen hasiera eta tsarraren gainbehera jasotzen ditu. Garai berrien atarian dago Errusia.

Gaur, egubakoitza, 21:00etan, Arriola aretoan.

OÑATI

> 'Kontu kontari' ipuin kontaketa musikatua

Koldo Ameztoik eta Pantxix Bidartek egingo dute, *Iparraldea Oñatin* ekimenaren barruan.

Hilaren 12an, eguaztana, 19:30ean, kultura etxeko zinema aretoan.

OÑATI

> Azika txotxongilo taldearen emanaldia

Kontu kontu zan delako ikuskizuna egingo dute, *Iparraldea Oñatin* ekimenaren barruan.

Hilaren 13an, eguena, 11:00etan, Santa Ana antzokian.

Erakusketak

BERGARA

> Iñigo Arregi artistaren erakusketa

Artista arrasatearrak *Bidean* delako erakusketa jarri du ikusgai. Margolan eta eskulturrek osatzen dute erakusketa hori.

Irailaren 16ra bitartean, Aroztegi aretoan.

BERGARA

> Idoia Azkarate bergararren erakusketa

Teknika mistoa erabilia egindako margolanak erakusten ditu Bergarako margolariak. Erakusketa dinamiko eta freskoa da Idoia Azkaratena.

Nahikari tabernan, hil bukaera arte.

OÑATI

> Irkus Robles eta Gonzalo Etxebarriaren erakusketa

Margolariak *Iparraldea Oñatin* egitarauaren barruan ireki dute erakusketa.

Irailaren 16ra arte, kultura etxean.

Lehiaketak

BERGARA

> Ageriko 34. Pintura Lehiaketa jokatu da

Begarako Artisten Elkarteak antolatu du (Beart), San Martin jaien atarian. 09:00etan hasiko da lehiaketa, kultura etxean, eta egunean bertan

PROPOSAMENA

BERGARA

> Barazki, fruta, gazta eta lore moztuen azoka, bihar

San Martin feria ezaguna egingo dute bihar, zapatua, Bergaran. 10:00etan irekiko ditu atek eta bazkalordura arte barazki, fruta, gazta eta lore moztuak ikusi ahalko dira San Martin plazan eta Seminarioko jolaslekuan egokitutako erakusmahaietan. 13:30ean banatuko dituzte azokako sariak. Bestalde, 17:30ean, zezentxoak eta poneyak egongo dira gaztetxoendako, San Martin plazan, eta 18:30ean, jolasak eta tailerrak.



ARAMAIO

> **Udako postalen lehiaketa deitu du Txirritola elkarteak**

Eskatzen dutena da udako gustuko postalak bidaltzea Aramaioko euskara elkartera, euskaraz idatzita. Gero, lehiaketa egin barik, parte-hartzaile guztien artean zozketa egingo dute uda ostean eta irabazleari emango diote asteburu baterako egonaldia landa turismo batean.

Postalak bidali behar dira: Txirritola elkarte, kultura etxea, 01160, Aramaio (Araba).

Ospakizunak

ARETXABALETA

> **Areantza auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran**

Agorreko Andramaiaxak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, honako ekitaldiak izango dira, besteak beste: 19:00etan, auzoko kanpai jole eskola aurkeztuko dute elizan; gero, mokadutxo banatuko dute elizpean eta txistulariekin Martin Kabarrixari kantuan joango dira Garaikora. 20:30ean, auzo auzo izango da. Gaur hasi eta domekara arte.

OÑATI

> **Atzeko Kaleko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran**

Gaur, egubakoitza, zinta lasterketa egingo dute, 16:00etan; 17:00etan, umeendako jolasak egongo dira eta 19:00etan, txorimalo eta erraldoiekin kalejira. Bihar, zapatua, 13:00etan, Naparreneko Kantoiari Manolo Irizarren omenez salda banatuko dute eta 17:00etan, zezetak eta poneyak egongo dira. Domekan, berriz, mus txapelketa egongo da, 15:30etan. Izenematea Boga tabernan egin beharko da.

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> **Yoga ikastaroa Aredhana eskolarekin**

Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan.

Izenematea 616 96 57 95 telefono zenbakian.

ARRASATE

> **Yoga ikastaroak antolatuko dituzte**

Astelehen eta eguaztenetan 09:30etan eta 11:00etan emango dituzte eskolak; martitzen eta eguenetan, berriz, 19:15ean eta 20:45ean. Bañez Doktorea 1, Txindoki dorrean.

Izen emateko edo informazio gehiagorako deitu: 635 71 06 16 (Maite) eta 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE

> **Tai txi ikastaroa San Viator Handi eraikinean**

Irailaren 12an hasiko da.

Eguaztenero izango dira eskolak, 20:15etik 21:30era.

Izenematea: 679 64 24 91 (Rafael)

Zinema



Fraulein ***

Zuzendaria: Andrea Staka.

Aktoreak: Mirjana Karanovic, Marija Skaricic, Ljubica Jovic.

Alemania-Suitza-Bosnia Herzegovina 2006. 81 min.

Gaurko proposamena Alemania, Suitza eta Bosnia-Herzegovinaren arteko ekoizpena da. *Fraulein*-en kontatzen zaituzten istorioa Suitzan kokatzen da eta adin desberdinetako hiru emakume dira filmaren protagonista nagusiak. Horietako bi duela urte asko lehengo Jugoslaviatik Suitzara emigratuta dira, eta hirugarrena, neska gaztea, guduaren ondorioak jasan ondoren Zurichen agertzen da. Neska gaztearen agerpenak beste bi emakumeen bizitzari aurre egiteko dituzten pentsamoldeak aldatzeko balioko du.

Fraulein-en, pertsonaien deskribapena da helburu nagusia. Planoak nahiko itxiak dira, aurpegiak garrantzi handia dute eta argazkiaren margo grisek pertsonaiek daramaten bizitzaren tonua modu egokian islatzen dute. Informazio gisa pertsonaien lehengo bizitzari buruzko datu batzuk ezagutuko ditugu, horiek pertsonaiak hobeto ulertzen laguntzen dute, baina filma, batez ere, orainean geratzen da eta emakumeen izaera eta barneko sentimenduak erakutsi nahi ditu. Alde batetik mamu antzeko bizitza daramatzaten pertsonaiak daude: ilusiorik gabe, itxiak, ez dute laguntzarik nahi ezta beste gizakiekin harremanak izan, eta beste aldetik askoz zabalagoa eta mugan bizi den neska daukagu. Sortzen den triangeluaren deskribapena da istorioaren motorra, bi pertsonaiek hirugarrenak baino garrantzi handiago badute ere.

Fraulein filmean kontatzen den istorioa barnekoia eta umila da, eguneroko bizitzan kokatzen da eta errealak egiten zaizkigun pertsonaiak ditu. Aktoreen lan onak epeltasuna ematen diote istorioari.

Antonio Zabala

ARRASATE
MONTEIRON

Tu la letra y yo la musica
Egubakoitza: 22:30.

EIBAR
UNZAGA

La jungla de cristal 4.0
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

GASTEIZ
GURIDI

La jungla de cristal 4.0
17:00, 19:45, 22:30.

Bratz

17:00.

La ultima legion
19:45, 22:30.

Los Simpsons, la peli-
cula
17:00.

Secretos cantados
19:45, 22:30.

Los ojos del mal
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Ratatouille

17:30.

El ultimatum de Bourne
20:00, 22:30.

Movida bajo el mar
17:00, 18:45, 20:30.

El club de los suicidas
22:30.

La carta esferica
17:30, 20:00, 20:30.

FLORIDA-GURIDI

Fraulein
17:30, 20:00, 22:30.

Amor y otros desastres
17:30, 20:00, 22:30.

2 días en Paris
17:30, 22:30.

Cuatro minutos
20:00.

Tocr el cielo
17:30, 20:00, 22:30.

Caotica Ana
18:00, 20:15, 22:30.

Solos
18:00, 20:15, 22:30.

Deatg Proof
18:00, 20:15, 22:30.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

La jungla de cristal 4.0
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Los ojos del mal
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

Movida bajo el mar
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

Death proof
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

La ultima legion
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Caotica Ana
12:15, 15:35, 17:45, 19:55, 20:05, 00:15.

Wolf creek
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

El ultimatum de Bourne
12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

Sigo como Dios
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Ratatouille
12:15, 15:55, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.

Doraemon y el pequeño dinosaurio
12:15, 15:40, 17:40.

Bratz
12:15, 16:20, 17:20, 18:20.

El club de los suicidas
20:20, 22:20, 00:20.

Los Simpsons. La peli-
cula
12:15, 15:50, 17:50.

Papa canguro
19:50, 21:50, 23:50.

Amores y otros desastres
21:45, 23:45.

Locos por el surf
12:15, 16:40, 18:40.

Los 4 fantasticos y Silver Surfer
20:40, 22:40, 00:40.

Harry Potter V
19:40, 22:15.

Gauerdiko saiokak, egubakoitza eta zapatuan.

Eguerdiko saiok, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

La jungla 4.0
16:10, 16:30, 19:10, 19:30, 22:10, 22:30, 00:30, 01:00.

Los ojos del mal
16:25, 18:20, 20:15, 22:10, 00:30.

Movida bajo el mar
16:30, 18:20.

Death proff
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

La carta esferica
15:30, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

Sigo como Dios
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

La ultima legion
16:05, 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.

Bratz
16:00, 18:15.

El club de los suicidas
20:15, 22:25, 00:45.

El ultimatum de Bourne
17:30, 20:00, 22:30, 00:45.

Locos por el surf
16:25, 18:25, 20:25.

Los 4 fantasticos
20:10, 22:15.

Hasta que el cura nos separe
22:00.

Ratatouille
17:00, 19:30.

Los Simpson
20:30, 22:20.

Gauerdiko saiokak, egubakoitza eta zapatuan.

Eguena, ikuslearen eguna.

nire aukera



Xabier Elortza
Oñatiko Golpe de Estado taldeko kidea

Taldekideekin entseatu

Egubakoitz arratsaldeetan lokalera joan eta taldeko kideekin entseatzen du Elortzak. Entsegua-rekin bukatu eta gero eta inguruan gustuko kontzerturik baldin badago, huraxe entzutea joatea du gustuko; bestela, lagunekin kalean parrandan geratzen dela aitortu du. Zapatuan, 16:00ak bitartean aitarenean tabernan, Anton tabernan, egiten du lan. Bukatu eta gero 18:00ak bitartean neskalagunarekin egoten da, eta gero, berriz ere, entsegua izaten du taldeko kideekin. Domeka goizean, aitarenean lan egin eta gero, neskalagunaren etxean ematen du arratsaldea.

Opor osteko depresiorik bai?

Ez. Tristura apur bat ematen du, baina beste barik.

Arrikrutz ei da Oñatiko izarra. Egon zara?

Bada, ez. Duela gutxi, astelehen baten hurbildu nintzen kobaren ahoraino, baina barruan ez naiz izan. Oraingoz, behintzat, ez dut kobazulora sartzeko asmorik.

Laster San Migel jaiak. Egitarau zabala dago. Dagoenetik zer nabarmenduko zenuke?

Gauza asko daude. Bat aipatzearren hilaren 29an, gauez, egongo den kontzertua esango dut. Parte hartuko dute honako taldeek: Peter and The Test Tube Babies, Chelsea, Golpe de Estado, Never Surrender eta Travis Bickle, hain justu ere.

Zer deritzozu gure ibarrek kultur eskaintzari?

Nik musika kontzertuez berba egin nezake, horixe da-eta gustuko dudana. Horri dagokionez eskaintza polita dagoela uste dut.

Musika taldeak, behintzat, asko daude. Hori zeren seinale da?

Bai, jende asko dago musika egiteko gogoarekin; zerbait esateko duen jende asko dago. Entsegurako lokalak egotea oso garrantzitsua da.



Hugh Grant eta Drew Barrymore dira filmeko protagonistak.

Tu la letra y yo la musica

AEB, 2007. Zuzendaria: Marc Lawrence. Aktoreak: Hugh Grant, Drew Barrymore, Brad Garrett, Krysten Johnston, Haley Benet. 106 min. Guztizendako. Gaztelaniaz. Alex Fletcher 80. hamarkadako pop abeslaria da. Gainbehera etorrita dago eta areto txikietan bakarrik egiten ditu ekitaldiak. Baina berriz gora egiteko aukera izango du Cora Corman momentuko izarririk disdiratsuen ezagutzen duenean.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Bajo las estrellas ***

Espainia, 2007. Zuzendaria: Felix Viscarret. Aktoreak: Alberto San Juan, Julian Villagan. 100 min. Benito Lacunza tronpetista jotzaile izna nahi du. Aita hil ondoren, jaioterria itzuliko da, Nafarroara. Hara iritsi, eta Benitoren anaia parrandetako aspaldiko bere lagun batekin ezkontzera doala jakingo du; lagun horren alabarekin ere egingo du topo.

Steak

Frantzia, 2007. Zuzendaria: Quentin Dupieux. Aktoreak: Eric Judor, Ramzy Bedia. 85 min. 2016. urtea. Moda eta edertasun irizpideak asko aldatu dira. Moda berri batek jendea aurpegi lifting-ak egitera eramango du. Georgek orain gutxi egin du lifting-a eta udako oporretan Chivers buruzagi taldean sartu nahiko du. Blaise galtzaileak, txikitako Georgesekin lagunak, helburu bera izango du. Hortxe hasiko dira tira-birak.

Erase una vez... un cuento al reves

AEB-Alemania, 2006. Zuzendaria: Paul J. Bolger. Marrazki bizi-dunak. 87 min. Maitagarrien ipuinen munduan dena oso ondo doa. Baina egun batean, gaizkia eta ongia kontrolatzen dituen mago baten laguntzaileek okerreko botoiari emango diote. Hemendik aurrera, gaizkileek ipuinen amaierak aldatuz gero?

Corazones solitarios

AEB-Alemania, 2007. Zuzendaria: Todd Robinson. Aktoreak: John Travolta, James Gandolfini. 108 min. Elmer C. Robinson eta Charles Hildebrandt detektibeak Bihotz Bakartien Hiltzaileak bikotearen atzetik dabilta, haiek harrapatu nahi. Bikote horrek alarunak hiltzen ditu. Benetak gertaeretan dago oinarrituta film honen istorioa.

Descubriendo a los Robinsons ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizi-dunak. 102 min. Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Spiderman 3 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan Dunst, James Franco. 139 min. Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superheroi eginbeharren artean. Baina, ekaitz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da.

Zodiac ****

AEB, 2007. Zuzendaria: David Fincher. Jake Gyllenhaal, Robert Downey. Saileko hiltzaile batek izua zabalduko du San Frantziskon. Bi kazetari-rendako obsesio bilakatuko da.

Baziren behin Aramaion...

KONTALARIAK Euskal Herri osotik etorriko dira ipuin kontalariak Aramaiora, 30 inguru guztira

MAGIA Han entzungo diren ipuinen magiari, Aramaio txokoek duten magia gehitu beharko zaie

HERRITARRAK Herriko aspaldiko istorioak ere kontatu gura dituzte, bertakoen ahotik, ahal dela

OIHANA ELORTZA > ARAMAIO

... Euskal Herri osotik etorritako 30 ipuin kontalari. Batzuk musika instrumentuekin eta txo-xongiloekin beste batzuk. Horrelaxe hasiko da irailaren 22an Aramaion kontatuko duten ipuinetako bat, hantxe elkartuko dira eta umeei zein nagusiei ipuinak kontatzera etorriko diren Euskal Herriko ipuin kontalariak. Oraingo astean egin dute ipuin festaren aurkezpena Jose Mari Carrere, Miren Camison eta Itziar Rekalde kontalariak eta Asier Agirre Aramaio alkatetik eta Ainara Inuntziagak, Kultura zinegotziak.

ARAMAIOKO MAGIA

Ipuinek duten magiaz gain, Aramaio txokoek ere magia dutela dio Jose Mari Carrere ipuin kontalariak: "Herri txikia da Aramaio, eta, hirietan ez bezala, transmisioa ez da galtzen horrelako herrietan. Gainera, txoko ederrak ditu, erreka izkina, adibidez, eta leku horiek aproposak dira talde txikiei zuzendutako

ipuinak kontatzeko", dio. Txikia izateaz gain, Udalak erraztasun guztiak eman dizkielako eta jaia urtean-urtean herrialde ezberdin batean egin gura dutelako aukeratu dute kontalariak Aramaio. "Joan den urtean Getxon elkartu ginen eta orduan pentsatu genuen urtero egitea festa hau. Egia esan, geuk ere ez genuen espero 30 bat elkartzea. Askok gara gero!", dio barrez Jose Mari Carrere.

NAGUSIAK ERE KONTU KONTARI

Kontalarion festa bakarrik ez, herritarrena ere izatea gura dute antolatzaileek eta Aramaio aspaldiko istorioak eta kondairak ere gogorarazi gura dituzte, nagusien ahotik, ahal dela.

Irailaren 22an egingo dute ipuin festa Aramaion, eta herriko tabernak, jolaslekuak, erreka bazterrak edo arkupeak, ipuinak kontatzeko eta, aldi berean, entzuteko agertoki bihurtuko dira. Batzuk euskaraz eta beste batzuk gazteleraz izango dira, umeendako eta nagusiendako.



ELKARREKIN Asier Agirre, Miren Camison, Jose M. Carrere, Itziar Rekalde eta Ainara Inuntziaga.

ARRITXU BARRUSO

ahobero

"Datorren domekan Kontxako bandera Gipuzkoan geldituko da"

Josetxo Etxebarria > Gipuzkoako Arraun Federazioko presidentea

Gipuzkoan maila handiko arraunlariak eta elitean dauden teknikari eta arraunlari asko daudela dio Etxebarriak. Hala ere, bandera nork irabaziko duen beste tentatzen du jendea aurtengo estropadan gertatuko denak, Kontxako azken banderetan beti izan da eta ika-mikaren bat.

iturri onetik

Benito Lertxundik kontzertua emango du Oñatiko kiroldegian Gabonetan

Benito Lertxundi abeslari oriotarrak kontzertua emango du Oñatin datozen Gabonetan; bere azken diskoa aurkeztuko du. Gabon gau bezperako asteburuan etorriko da.

Kontzertua Zubikoa kiroldegian izango da eta 1.000 lagunendako tokia prestatuko dute antolatzaileek. Hau ez da Lertxundi Oñatira datorren lehen aldia; azken kontzertuan, esaterako, lepo bete zen kiroldegia.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Udako unibertsitatea Iparraldean

Hegoaldean ez dugu ohitura handirik, baina Iparraldeko alderdiek -Frantziaren eraginez- udako unibertsitate irekiak antolatzen dituzte, etorkizunaz hausnartzeko. Aurtun, Abertzaleen Batasunak deituta, hitzaldi bat ematea egokitu zait. Eta, giroa lagun, neuk ere egin ditut nire hausnarketak.

Bat. Hegoaldean ez dago hausnarketa irekien beharrik? Ez dago adorerik?

Bi. Non ari gara uzten Iparraldea hegoaldekook? Apaingarri gisa erabiltzen dugu sarri, lurralde menpekota bailitzan. Eta gure premia badute, baina erakusteko asko ere bai.

Izan ere, zinez ikusten ditut Iparraldea eta Nafarroa etorkizunetik hurbilago gure EAE zaharkitu hau baino. Hemen indarra, han berrikuntza. Eta biak behar ditu Euskal Herriak.

ai, ene!



Txapelketa irabazteko moduko bibotea

Munduko txapelketa irabazteko moduko sudurpekoa du alemaniar horrek, baina egunero zainduko du horrenbeste?

<http://tinyurl.com/3yxxk4>

Lagunen aurrean ederto gelditu nahian?
Har ezazu lasaitasun!
Arkauz etxeak eskainitakoarekin txundituta geldituko dira.

Arkauz zure etxea da.